



Everesteko atea erabat zabalik utzi zutenekoa

Leire Sangroniz ikertzaileari elkarriketa



## KORONABIRUSA



### HERRIKO ZERBITZUAK "NORMALTASUN BERRIRANTZ" ABIATU DIRA

Zailtasunak zailtasun eta segurtasun neurriak baldintzatuta, irekitzen hasi dira dendak, terrazak, tailerrak eta beste zerbitzu batzuk / 4

Oñatiko Sillero Oinetakoak dendako Ane Zumelaga bezero batekin, atzo, eguna. ENEKO AZURMENDI

### "Baliabideak jarriko ditugu bergararren ongizatea bermatzeko"

Bergarako alkateak lasaitasun mezua bidali du, eta neurriak hartuko dituztela ziurtatu / 26



Gorka Artola, Bergarako alkatea. E.A.L.

### "Tokiko komertzioak eta toki hedabideak bat" direla ohartarazi du Goienak, zero kilometroaren parte / 7

#### SINADURAK



**Hemen GARBIKETAK**

INOIZ BAINO GARRANTZITSUAGOA:  
GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

ZURE KONFIANTZAKO  
**GARBIKETA ENPRESA**

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45  
www.hemen-garbiketak.com  
hemen@hemen-garbiketak.com



Oñatiko udaletxea, Foru Funtza murriztearen eragina jasango duen bailarako udaletako bat. GOIENA

# Foru Funtza murrizteak eragin zuzena izango du bailarako udaletan

Bailarako udalek jasoko duten diru-sarrera %20 murriztuko da. Bestalde, COVID-19 gaitza izan eta sendatutakoak gero eta gehiago dira. PCR testak egiten dihardute

**Maialen Santos** DEBAGOIENA

Eider Mendoza foru bozeramaileak martitzenean azaldu zuen foru erakundeak egin dituen aurreikuspenen arabera zerga bilketa orokorra %20 eta %25 artean jaitsiko dela aurreko urtearekin alderatuta eta, ho-

rrenbestez, Gipuzkoako udalek -tartean, Debagoienekok- Foru Funtsetik jasoko duten diru-sarrera %20 murriztuko dela, "pandemiak eragindako egoerari aurre egiteko". Neurriak "eragin zuzena" izango du udaletan, finantzaketaren diru iturri na-

gusienetarikoa baita funtsa. Gauzak horrela, aurreikusita zeuden 536 milioietatik, 429 milioi eurora arteko beherakada eragingo du neurriak, zehazki. Erabakiaren harira, Oñatiko alkate Izaro Elorzak adierazi du neurriak Udalaren egoera "ahul-

du" egiten duela "COVID-19 gaitzari aurre egiteko momentuan". Horrez gain, azaldu du Aldundiak ez diela udalei ekarpena egiten, instituzio bakoitzak bere finantzaketa-banaketa adostua duela: "Udalak lehen mailako instituzioak gara; diru-sarrerak birbanatu behar badira, instituzio guztien artean hitz egin eta adostu beharko dugu". Are, Elorzak dio ez dutela "bidezko" ikusten Udalari dagokion diru kopuru bat aurrerantzean ingre-satuko ez dela "komunikabideen bitartez" abisatzea. Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak, berriaz, azaldu du "duela hilabete inguru" izan zutela murrizketa posiblearen berri, eta asteon erabaki hori "berretsi" egin du-tela. Behin betiko erabakia eza-gutu ostean aurrekontua "berri-kusi" egin beharko dutela ere azaldu du. Gaineratu du laster hasiko direla egin beharreko doikuntzak egiten: "Hala eta guztiz ere, aurreikusten dugu neurriaren eraginez Arrasateko Udalak hiru milioi eta erdi euro gutxiago jasoko dituela".

**ZERGA BILKETA**

## ZERGA BILKETA METATUA %24,4 MURRIZTU DA GIPUZKOAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak asteon eman ditu aditzera zerga bilketen inguruko datuak; eta aurreko urteko sasoi berarekin alderatuta, apirileko zerga bilketa metatua %24,4 murriztu da Gipuzkoan. Zehazki, 842,3 milioi euro bildu dira guztira, eta, horrenbestez, 2019an baino 272,7 milioi euro gutxiago batu dira. Aldunditik azaldu dutenez, beherakada "batez ere"

bi zerga nagusietan islatzen da: PFEZ eta BEZ zergetan, hain zuzen ere. Itzulketek, aldiz, "gorakada handia" izan dute -%20,8 igo dira-.

**KORONABIRUSA DEBAGOIENEAN**

## GORANZKO JOERA HARTZEN ARI DA SENDATUTAKO PERTSONEN KOPURUA

Azken asteetan, koronabirusa izan eta sendatutako pertsonen kopuruak gora egin du nabarmen; izan ere, EAEn kutsatutakoek %83 errekuperatu egin da dagoeneko. Bestalde, EAEn hildakoak 1.442 dira guztira. Koronabirus kasu positibo berriak baieztatzen jarraitzen du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, eta, martitzenean aditzera emandako datuen

### Kutsatuak Debagoiengan

	Positiboak	100.000 biztanleko kutsatze tasa
Arrasate	246	1117,22
Oñati	48	423,47
Bergara	53	363,11
Aretxabaleta	56	801,49
Eskoriatza	14	342,55
Antzuola	7	327,72
Aramaio	4	269,72
Elgeta	8	704,85
Gatzaga	0	0,00
<b>Guztira</b>	<b>438</b>	<b>681,14</b>

ITURRIA: OSAKIDETZA

**ALKIDEBA**

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIKURUA ERAIKUNTZARAKO ETA INDUSTRIARAKO

administracion@alkideba.net

NILFISK-en banatzaile ofiziala



Saskibaloi taldearen babeslea



Máizaga - Soraluez erepidea.  
Tel.: 943 75 15 54 • Soraluez (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabilioia  
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

arabera, dagoeneko 436 debagoien-darrek dute edo pairatu dute gaitza; horietatik erdiak baino gehiagok, Arrasaten. Horretaz gain, aipatzekoa da azken egunetan positibo berriak egon direla orain arte koronabirus kasurik apenas zuten bailarako herrietan; esaterako, Elgetan bost kasu egiaztatu dira egun bakarrean -8 kutsatu daude, denera-; eta Antzuolan eta Aramaion ere atzeman dituzte positibo berriak azken egunetan. Aipatzekoa da orain artean aurreko eguneko 20:00ak arteko datuak ematen aritu dela Jaurilaritza, baina, martitzenean iragarri moduan, aurrerantzean 00:00ak arteko datuak jarriko dituzte eskura eguneroko Datu Buletinean.

Adinekoen egoitzei erreparatuta, eguaztenara arte aditzera emandako datuen arabera, 28 pertsonak dute gaitza Debagoienean; Iturbiden, hiruk; Aretxabaletako GSRn 24k; eta Eskoriatzako Jose Aranan, batek. Hilda-koak, bestalde, 32 dira guztira; 26 Iturbiden eta sei Jose Aranan. Errekuperatutako egoiliarak, azkenik, 58 izan dira. Hain zuzen, 53 pertsona sendatu dira Arrasateko egoitzan, lau Aretxabaletan eta bat Eskoriatzan. Gauzak horrela, eguaztenara arte, 348 adinek gaitza dute gaixotasuna Gipuzkoan, 167 hil dira eta 51k jarraitzen dute gaixorik oraindik.

TESTAK BIZTANLERIARI

## TESTAK EGITEN JARRAITZEN DU OSAKIDETZAK, OSASUN ZENTROETAN

Apirilaren 27an jarri zuen mar-txan Osakidetza lehenean fase batean 4.147 pertsonari zuzendutako baheketak selektiboko

plana, bere garaian sintomen-gatik COVID-19 gisa diagnostikatu ziren baina testik egin ez zitzaizkien pertsonen zuzendutakoak. Hala, gaixotasuna zenbat pertsonak gaitza dute eta zenbat dauden immunizatuta egiaztatu gura du Osakidetza.

Bailarako osasun zentroetatik adierazi dute hasiak direla lanean, eta datozen asteetan egingo dizkiete testak susmagarri izan eta ezaugarri jakin batzuk betetzen dituztenei. Hala eta guztiz ere, gaitzaren sintomak orain dituztenei PCR probak egiten jarraitzen dute bailarako osasun etxeetan, kasu berriak isolatu eta birusaren hedapena etetea izanik helburu nagusia.

Sintomak izanez gero osasun zentrorara deitu eta familia medikuarekin telefono bidezko

hitzordua eskatu behar dela adierazi dute; ondoren, medikua sintomak dituen horrekin harremanetan jarri eta pazientea baloratu dezan -ostean, jarraitu beharreko prozedurari ekin ahal izateko-.

Proba egiteko beharra egonez gero, telefono bidezko arreta horretan zehazten da hitzordua, izan ere, sintomak agertu eta 24 eta 48 ordu bitartean da komenigarria proba egitea. Gaineratu dutenez, gaitzean positibo izan daitezkeenak artatzeko gune bat egokitu dute osasun zentroetan, eta bertan egiten dituzte probak, aho-sudurre-tako laginak hartuta. Proba egin eta 24 ordura jakin daiteke emaitza, eta, Osakidetza-kosun sailak azaldu duenez, %90eko fidagarritasuna du proba horrek.

AURRE! PLANA

## INDARKERIA JASATEN DABILTZAN EMAKUMEEI ARRETA ESKAINTZEKO GIDA

Gaur egungo larrialdi egoeran dagoen indarkeria sexistari aurre egiteko "jarraibide berriak" proposatzen dituen gomendio gida bat gertatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak: *Indarkeria sexistari osasun larrialdian. Tokiko administrazioentzako gida*. Era-soak eta indarkeriazko egoerak jasaten ari diren emakumeei arreta "egokia, azkarra eta eraginkorra" emateko jarraibideak jaso dituzte bertan; hain zuzen, hainbat gako proposatzen dituzte indarkeria sexistak gaur egungo osasun alertaren baitan izan duen "bilakaera ulertzeko".

Aldundiko Berdintasuneko zuzendari Miren Elgarrestak aditzera eman duenez, gida horrek "tresna baliagarria" izan nahi du gaur egungo egoeran emakumeen aurkako indarkeria lantzen dabiltzan tokiko erakundeentzat eta teknikarientzat.

Hiru maila ezberdinetan banatzen dira gida horretan ageri diren gomendioak: batetik, arretari buruz gidaliburuak dio jardunbide egokia dela telefono bidezko arreta eta berehalako mezularitza erabiltzea indarkeria jasaten ari diren emakumeei erantzuteko. Bestetik, detekzioa aipatzen da; osasun alarmaren aurretik edo alarma egoeran zehar sortutako sare komunitarioen lankidetzari balioa ematen dio, biktima izan daitezkeenak identifikatzeko. Eta hirugarrenik, sentsibilizazioari dagokionez, azpimarratu dute osasun alarmaren testuinguruan indarkeria matxistak "premiatzeko gaia" izaten jarraitzen duela eta, horrenbestez, arreta zerbitzuak egokitze eta laguntza eskaintzeko "ahalegin handia" egiten ari direla.

Bestalde, indarkeria sexistatik jarritako salaketan kopuruak behera egin du, datu ofizialen arabera. "Beharakada hori, ziurrenik, elementu berriek eragin dute, eta elementu horiek indarkeria gertatzen den moduei eta kasuei eragiten diete", adierazi du Miren Elgarrestak. Orain arteko bilakaeraren behin betiko zifrarik ez egon arren, lehen hipotesien arabera, konfinamenduan zehar "erasotzaileen kontrol sentazioa areagotu" egiten dela uste du Berdintasuneko zuzendariak; modu berean, salaketak jartzeko orduan emakumeei atzera eginarazten dieten faktoreak ere "areagotu" dira.

## Confesbask-en neurri proposamenak

Koronabirusaren krisiari aurre egiteko, Confesbasken zuzendariak neurri proposatu zizkion joan den astean Eusko Jaurilaritzari. Eduardo Zubiaurre patronaleko presidentek GOIENARI azaldu dionez, sozietate eta errentaren gaineko zergak igotzea proposatzen dute, zorpetzeari aurre egiteko neurri gisa: "Ulertzen dugu herri garatu baten eta ongizatezko gizarte baten zergak egon behar direla, eta egiten duten ekarpena ezinbestekoa dela lehiakortasunari, hazkunderari, enpleguari, inbertsioari... laguntzeko". Gaineratu duenez, Confesbasketik uste dute egoerari aurre egiteko "indarguneak sustatu" behar

direla: "Aurten ehun ekonomiko eta enpresarialari eutsi beharko genioke, eta datorren urtean, berreskuratzeko ekonomiko gertatzen denean, horretaz baliatu ongizatea eta enplegua berreskuratzeko". Gainera, presidentek uste du administrazioak gehiago zorpetu beharko duela, eta zorpetze hori gero ordaindu egin beharko dela "epeka, zentzuz eta hurrengo belaunaldiei zorrik utzi gabe". Hala eta guztiz ere, Zubiaurrek azaldu du neurria "behin-behinekoa" eta "finalista" litzatekeela.

**Sindikatuaren erreakzioak**  
Confesbasken proposatutako neurrien harira, LAB sindikatuak

azaldu du ez dutela onartuko langileak izatea COVID-19aren krisiaren ondorioak ordainduko dituztenak, eta patronalaren proposamena "norabide horretatik" doala salatu dute, eta zera proposatu: "Fiskalitate bidezkoago eta birbanatzaileagoa finkatzeko, aldarrikatu dugu funtsezko zerbitzu publikoak blindatzeko diru-sarrerara publikoen bolumena handitzea". Era berean, ELA sindikatutik uste dute ezohiko egoeratik bidezko irteera bermatzeko ezinbestekoa dela errenta altuei, enpresei eta kapitalari zergak handitzea. CCOO, bestalde, uste du Confesbasken proposamena egokia izan daitekeela, betiere, zergen igoerak ekonomia baxuenei eragiten ez badie.

**zabalik**

09:00etatik 15:00etara


Bulegoko BANAKAKO ARRETA PERTSONALIZATUA eskaintzen dugu astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 15:00etara. *elkar ikusiko garelakoan!*

**goiena**  
seguru bizi

Antso Abarka 6, behea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 59 81 • Fax: 943 79 39 18

Zurradero 2  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 65 • Fax: 943 76 40 37

goiena@goienaaseguruak.com  
www.segurosgoiena.com



# Lan egiteko era berriak, betiko zerbitzuak ahalik eta ondoen bermatzeko

Konfinamendua arintzeko lehen fasea astelehenean sartu zen indarrean, eta horrek hainbat komertzio eta establezimenduren irekiera ekarri du; terrazen gaia izan da hautsak gehien harrotu dituenetako bat, jende pilaketak nabariak izan dira-eta asteen

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Astelehenean ireki zituzten herritarrek bi hilabete hauetan hainbeste desiratu zituzten terrazak. Aukeran, ordea, gutxi izan ziren ireki zituztenak, eta horrek jende pilaketak eragin zituen hainbat herritan. Nabarmentenak Arrasaten, Oñatin eta Bergaran gertatu ziren. Bergarako Arrano tabernak, esaterako, barkamena eskatu behar izan du sare sozialen bitartez. "Saiatu ginen segurtasun neurri guztiak hartzen eta distantziak bermatzen, baina ezinezkoa izan

zen etorri zen jende andana kontrolatzea". Era berean, bezeroei arduraz jokatzeko eskatu diete tabernako kideek.

Oñatiko Boga taberna izan zen lehen egunean terraza ireki zutenetako beste bat, eta, Iker Palacin arduradunak adierazi duenez, nahiz eta astelehenean "gainezka" ibili, martitzenan lasaiago ibili ziren. "Ordutik aurrera, bezeroak gehiago errespetatzen hasi dira eta oso ondo jokatu dute". Orain, ordea, asteburua dator. "Ikusiko dugu zer gertatzen den. Baina terraza

gehiago irekiko dituztela uste dut, eta jendea gehiago banatuko da", azpimarratu du.

Lan egiteko modua asko aldatu zaiela aitortu du Palacinek, eta horrek lan gehiago dakarrela. "Orain arte, terraza eduki izan dugu, baina zerbitzua ez dugu eskaini, eta ez gaude ohituta. Orain, komanda hartu behar diegu bezeroei eta eskatzen dutena kanpora atera. Gainera, bezero bakoitza joaten denean, bestea jarri aurretik mahaiak garbitu eta desinfektatu behar izaten ditugu", dio.

## Bost pertsona, gehienez

Arrasateko Elkar liburu-dendan babes neurri guztiekin ari dira lanean. "Eskularruekin eta maskarekin dihardugu, eta, gehienez, bost pertsona egon daitezke barruan. Batzuetan bezeroei azaldu egin behar izaten diegu gelekin eskuak garbitzeko, batzuek ikusi ere ez dutelako egiten sartzekoan, eta kontrol lana egin behar dugu orain. Gehienbat, gogoraztea da; bestela, ondo betetzen dituzte arauak herritarrek", dio Euri Ansoategi, dendaren arduradunak.

Gaineratu du jende gehiena gauza konkretuen bila gertatu dela egunotan. "Badirudi konfinamenduan liburu konkretuen inguruan aritu direla berbetan eta horren bila etorri direla orain dendara. Beste askok telefonoz ere deitu digute liburuak eskatzen, eta momentu batzuetan pilatu egin zaigu lana".

## Txandak ematera ohitzen

Lan egiteko modu berria izaten ari da Bergarako Disdira ile-apaindegikoentzat. "Ez gaude ohituta bezeroei txanda ematen eta bezeroak txandaka edukitzen. Normalean, hainbat bezero edu-

kitzen ditugu aldi berean, eta txandak kontrolatzea eta bakoitzaren iraupena kalkulatzeko zaila egin zaigu. Bestalde, bezero bakoitzaren ostean guztia garbitu eta desinfektatu behar izaten dugu", azaldu du Miren Etxezarreta ile-apaindegiaren arduradunak.

Lokala handia dela dio, eta neurriak ondo bete ditzaketela. "Gu bost langile gara eta, gehienez, beste bost bezero sartu daitezke aldi berean, hamar pertsona guztira. Horregatik, lanordu gehiago izan ditugu eta bezero gutxiago, baina oso pozik gaude haiekin eta haiek ere pozik daudela esan digute, gauzak ondo egiten ari garelako".

## Ohiko ordutegian, ezohiko eran

Joan den astean hitzordu bidez funtzionatu ostean, aste honetan ohiko ordutegian hasi dira lanean Oñatiko Sillero Oinetakoak dendan. "Gehienez, bi bezero sartu daitezke. Gero, desinfektatu egiten dugu denda, egunean bi aldiz, eta mostradorea ere sarri garbitzen dugu. Batzuetan, ahaztu ere egiten zaigu oraindik, eta arreta hori mantentzea da zailena, ohitura falta daukagulako.

## "Lehen eguna zaila izan zen"

IKER PALACIN OÑATIKO BOGA TABERNA

Astelehenean ireki zuen terraza Boga tabernak. "Desfase apur bat izan zen, jendeak antsietate handia edukiko zuelako edo. Mahaiak bete zirenean jendeak zutik egon gura zuen, eta guk esaten genien hori ezin zela. Batzuei errieta egiten ibili behar izan genuen, baina martitzenetik aurrera, ondo".



Iker Palacin, terrazan. E.A.

## "Une batzuetan, lana pilatu zaigu"

EURI ANSOATEGI ARRASATEKO ELKAR LIBURU-DENDA

Asteon, jendea "oso gogotsu" gerturatu da. "Uneetan, lan asko pilatu zaigu, eta neurriak hartu beharra, gainera. Baina pozik gaude, ilusioa egiten duelako betiko bezeroak mantentzen direla eta jendea irakurtzeko gogoz dagoela ikusteak. Gainera, herritarrek errespetu handiz jokatu dute hasieratik".



Euri Ansoategi, liburu-dendan. X.U.

## "100 dei baino gehiago jaso nituen"

MIREN ZUBIZARRETA BERGARAKO DISDIRA ILE-APAINDEGIA

Aurreko astean ireki zuten, aurrez txanda eskatuta. "Gu bost langile gara eta hasieran ez genekien zenbat langile sartu ahal izango ginen. Lehen egunean 100 dei baino gehiago jaso nituen. Apur bat urduri ere bageunden, baina gero oso ondo moldatu gara, eta protokoloa bete ahal izan dugu".



Miren Zubizarreta, ile-apaindegiaren barnean. E.A.

## "Aste hau hobeto daramagu"

ANE ZUMELAGA OÑATIKO SILLERO OINETAKOAK-EKO ARDURADUNA

Txanda bidez ireki zuten, joan den astean. "Konfinamenduari aurretik botekin genbiltzan, eta, aurreko astean eguraldi ona egin zuenez, jendeak sandaliak gura zituen. Gainera, jende asko ibili zen. Zentzu horretan, nahiko kaos izan zen, baina ondo konpondu ginen, eta aste hau hobeto daramagu".



Ane Zumelaga, bezero batekin. E.A.

Sarreran gelak ditugu, gu maskarekin eta eskularruekin ari gara, eta plastikozko galtzetin moduko batzuk ditugu, bezeroak babesteko", azaldu du Ane Zumelagak, Sillero Oinetakoak dendako arduradunak.

### Autoaren garbiketari, garrantzia

Bezeroarekiko kontaktua ezberdina izaten ari dela onartu du Arrasateko Udalaitez auto tailerreko arduradun Jon Galdosek. "Saiatzen gara kontaktu hori ahalik eta txikiena izan dadin, gugatik eta haiengatik, noski. Autoaren garbiketari inportantzia ematen diogu, gehien ukitzen diren lekuei, batez ere: atea, sarraila, bolantea, palanka, eta abar. Ozono-makina jarri dugu, auto guztia desinfektatzeko. Horrez gain, tailerrean maskarak, eskularruak eta EPIak erabiltzen ditugu prebentzio modura. Distantziak ere behar moduan betetzen ditugu".

Lan egiteko modua aldatu den arren, batez ere "ezjakintasun eta beldur puntu hori" nabarmendu du Galdosek. "Hala ere, bezeroek ondo jokatzen dute, eta ezarritako neurri guztiak ondo betetzen dituzte".

## Terrazei laguntzeko neurriak

Debagoieneko udal gehienek hainbat neurri hartu dituzte zabaldu dituzten terrazei laguntzeko asmotan:

- **ANTZUOLA** Terrazak handitzea baimendu die Udalak horretarako aukera duten tabernei. Horrez gain, hasiera batean, behintzat, ez dizkie tasak kobratuko tabernariei.
- **ARAMAIO** Udalak ez du neurririk ezagutzera eman arlo horretan.
- **ARETXABAETA** Aurtengo tasak bertan behera utzi ditu Udalak. Terraza handitu nahi duten tabernen kasuak aztertzen aritu da eta aukera eskainiko die, hirigintzako teknikariekin adostuta.
- **ARRASATE** Espazioa bikoizteko aukera dute terrazek, ahal izanez gero, baina ezingo dute lehen zeuzkatenak baino mahai gehiago jarri. Gainera, horrek ez du tasak gehitzea ekarriko.
- **BERGARA** Tasak moldatzeaz gain, terrazek espazio handiagoa hartzea baimendu ahal izango da, eta, hala nahi izanez gero, ostalariak egin beharko diote proposamena Udalari. Eskaerak banan-banan aztertuko dira Hirigintza Departamentuan. Hasiera batean, behintzat, tasak gutxitzeko asmoa azaldu du Udalak.
- **ELGETA** Ireki duen tabernari irizpideak pasatu dizkio Udalak, eta plano batean markatu zer-non jar dezaket. Hori bai, kalean ibil daitekeen jendeak pasatzeko nahikoa espazio izatea lehenetsiz.
- **ESKORIATZA** Espazioa handitu ahal izango dute terrazek. Gainera, terrazarik ez duten baina jarri nahi duten negozio guztiek dagokion eskaera egin ahal izango dute.
- **LEINTZ GATZAGA** Udalak ez du neurririk hartu arlo horretan.
- **OÑATI** Espazioa bikoizteko aukera dute terrazek. Bost mahai ipintzeko aukera emango zaie orain arte gutxiago izan dutenei, legeak soilik mahaira zerbitzatzeko behartzen duenez, "ostalarien irekiera bideragarri izan dadin". Bi hilabete hauetako tasak ez ditu kobratuko Udalak, eta aurrera begira, aztertzen ari da.

### Bergarako IATn, auto asko

Eskaera guztiei zerbitzua eskaintzen ari dira Bergarako Ibilgailuen Azterketa Teknikoan, "kontuan hartu gabe bi hilabete hauetan pasatzekoak ziren autoak edota orain pasatu behar dutenak diren", Fernando Legaz zuzendariaren arabera. "Baina kontuan izanda ia bi hilabete itxita egon garela, autoak pilotzen ari zaizkigu, normala den moduan".

Segurtasun neurriak dagokienez, sartzen diren pertsona guztiei tenperatura neurtzeko kamera bat jarri dute. Bestalde, langile guztiek dituzte eskularruak, maskarak eta gelak.

Legazek aitortu duenez, inspektzioak berak ez die zailtasun handirik eragiten. "Zailena da bezeroak ordenatzea eta bulegoan arreta eskaintzea, jende pilaketak ekiditeko. Izan ere, segurtasun distantziak mantendu behar izaten dituzte txanda eskatzera datozenean edota bukaerako txostena jasotzerakoan".

### Kanpaina, hilabete geroago

Apirilaren 15ean zen hastekoa errenta aitortpenaren kanpaina, modu mekanizatuan, ogasuneko bulegoetan egiteko aukera es-

kainiz. Baina, egoerak baldintzatuta, eguaztenean zabaldu zituzten lurraldeko ogasuneko bulegoak; horien artean, Bergarakoa. Halaber, derrigorrezkoa da txandak alde aurretik hartzea, Gipuzkoako Ogasuneko telefonotik edo webgunetik.

Hamaika lagun ari dira lanean, babes neurriekin, eta bulegoa egokitu egin dute: "Mahaien artean egurrezko manparak jarri ditugu, batetik bestera bereizteko, eta teknikari eta herritarren arteko distantziak bermatzeko, kristalezko manparak jarri ditugu. Horrez gain, bulego kanpoan itxoin behar da eta behin barrura sartutakoan gelek in eskuak garbitu. Ez da beharrezkoa maskarekin etortzea, baina jende asko dator maskarekin", dio Miren Pozuetak, bulegoko arduradunak.

### Jauna, lekutik mugitu gabe

Neurri bereziekin hasi dituzte mezak ere. Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Gatzagako parroko Andoni Illarramendik dioenez, elizkizunetan ez diote elkarri bakea ematen, eta, herritarrek lekutik mugitu gabe, parrokoak ematen die jauna.

## "Ozono-makina jarri dugu"

JON GALDOS ARRASATEKO UDALAITZ TAILERRA

Apiril bukaeran ireki zuten tailerra, gutxieneko lanak egiteko. "Autoen higieina mantentzeko protokoloak denbora dezente kentzen digu, baina nahiko ondo hasi dugu berriro martxa. Hainbat neurri hartzen ari gara eta ozono-makina ere jarri dugu, auto guztia desinfektatzeko".




Jon Galdos, tailerrean. X.U.

## "Ez dago ur bedeinkaturik"

ANDONI ILLARRAMENDI ARETXABALETAKO PARROKOA

Astelehenean hasi zituzten eguneroko mezak. Eserlekuetan markak ipini dituzte. "Lekuak bi metroko distantziarekin markatu ditugu, jendeak jakin dezan non eseri behar duen. Sarreran gelak ditugu eta ez dago ur bedeinkaturik". Elizkizunak pantaila batekin ematen ditu parrokoak.



Parrokoa, Aretxabaletan. M.B.

## "Bi proba bezeroak egin behar ditu"

FERNANDO LEGAZ BERGARAKO IAT-KO ZUZENDARIA

Martitzenean ireki zuten Bergarako IAT. "Gure lan egiteko modua aldatu behar izan dugu. Inspektioari gehien eragin diona da lehen inspektoreak egiten zituen proba batzuk orain bezeroak egin behar dituela, inspektore autoan sar ez dadin: gas emisioen proba eta frenoena".




Fernando Legaz, Bergaran. E.A.

## "%25 aitortpen gutxiago egin dugu"

MIREN POZUETA BERGARAKO OGASUNeko BULEGOKO ARDURADUNA

Eguaztenean hasi ziren modu presentzialean, bulegotik, errenta aitortpenak egiten. "Sasoi normaletan, beste urte batzuetan, eguneko 200 bat errenta aitortpena egin izan dugu, baina oraingo egoeran %25 gutxiago egingo ditugu. Hasieran, mantsoago hasi gara, segurtasun neurri guztiekin".



Miren Pozueta, Bergarako bulegoan. E.A.

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Ikastetxeetara era mailakatuan itzultzeko plana aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak maiatzaren 7an. Bertan zehaztu zuten, maiatzaren 18an, batxilergoko 2. mailako ikasleak, Goi Mailako Lanbide Heziketakoak -1. eta 2. mailak- eta Erdi Mailako eta Oinarritzako Lanbide Heziketako 2. mailakoak ziren itzultzekoak eskola presentzialetara. Astebe- te geroago, hilaren 25ean, DBH-ko 4. mailako ikasleak, batxilergoko 1. mailakoak eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako 1. mailakoak itzuliko ziren.

Asteon, ordea, atzera egin, eta ikasleak jardun presentzialera itzultzeko erabakia ikastetxeen esku utzi du Jaurlaritzak. Erabakiak hezkuntza komunitatean sortutako nahaste eta ezjakintasuna ikusita, itzulera maiatzaren 25era atzeratzeko erabakia hartu zuen atzo Jaurlaritzak. Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak zehaztu duenez, "argitasuna eta segurtasuna emateko helburuarekin" hartutako erabakia izan da. Gaineratu duenez, Jaurlaritzak ez du eskolak irekitzeko beharrezkoa duen zehazketa juridikorik jaso oraindik Espainiako Gobernutik. Egoera horretan, datorren maiatzaren 25ean ikasgeletara itzuliko diren erabaki beharko dute orain ikastetxeek.

#### "Erantzukizun falta"

LAB, ELA, STEILAS, CCOO eta UGT sindikatuek ohar bateratua argitaratu dute, ikasgeletarako itzulera ikastetxe bakoitzaren ardurapean uzteko erabakia salatuz, eta Hezkuntza Sailari "bere ardurak" bere gain hartzea eskatu diote: "Ikastetxeekin landu gabeko neurri hori abian jartzeko neurrigabeko ardura maila ezarri diete ikastetxeei". Era berean, langile eta ikasleen "osasuna bermatzeko baldintzarik" ez dagoela azaldu dute.

Planak Hezkuntza Komunitate osoaren "gaitzespena eta kritika" jaso duela salatu dute sindikatuek. Bide horretan ere bat etorri da Kristau Eskolak

#### "EBALUAZIOA ONLINE EGITEA AURREIKUSTEN DUGU; EGOERA OSO ALDAKORRA DA"

AGURTZANE LOIDI, ARANZADI IKASTOLAKO ZUZENDARIA

# Ikasgeletara itzulera: ziurgabetasuna eta zalantzak nagusi

Era presentzian ikasgeletara itzultzeko aukera zabalik eta ikastetxe bakoitzaren esku utzi du Eusko Jaurlaritzak asteon. Atzo zehaztutako itzulera planaren arabera, maiatzaren 25etik aurrera hasi daitezke bailarako ikasleak eskolek bueltatzen



Bergarako Mariaren Lagundia Ikastolako ikasgela bat, hutsik, konfinamendu garaian ateratako irudian. M.L. IKASTOLA

elkartea, eta Hezkuntza Sailari ikasgelak maiatzaren ez zabalteaz eskatu dio.

Euskal Herriko eskola publiko gurasoen konfederazioaren (EHIGE) iritziz ere, berme juridikorik eta segurtasun-bermerik ez dagoen bitartean ikastetxeetan eskola presentzialetara itzulera ez litzateke gauzatu behar. Ikastolen elkartetik ere erabakiak hartzeko "ikaslea erdigunean izan beharra" azpimarratu, eta baldintza soziosanitarioak ere kontuan hartu behar direla azaldu dute.

#### "ASTELEHENETIK AURRERA BUELTATZEN HASTEKO PRESTATZEN HASIAK GINEN"

GORKA ARETXAGA, MGEP-KO LANBIDE HEZIKETAKO ARDURADUNA

#### Bailarako ikastetxeak

Egoera honetan, neurri eta arauak ikastetxe bakoitzari eragiten diote, zuzen-zuzenean. Bailarako ikastetxeetan, ezjakintasuna eta zalantza nagusi izan dira asteon, baina bat etorri dira; erabaki "zaila" da zentzuz, erantzukizun handikoa, eta Jaurlaritzatik jakinarazpen ofizialik jaso ez izana salatu dute hainbatek.

Jaurlaritzaren atzoko neurriak sorpresaz hartu zituen erabaki bat hartzeko lanean ari ziren ikastetxeak. Hainbatek, baina,

#### "AURRETIK ERE EZ GENUEN AURREIKUSTEN ITZULTZEA, GUTXIENEZ EKAINERA ARTE"

MAITE LASA, ARRASATE INSTITUTUKO ZUZENDARIA

hartuak zituen erabakiak ordu-rako. Bergarako Aranzadi Ikastolan, esaterako, ez zuten aurreikusten bigarren batxilergo mailako ikasleak astelehenean, hilak 18, eskola presentzialetara itzultzea. Bertako zuzendari Agurtzane Loidiren esanetan, egoera ez zegoen batere argi: "Ebaluazioa online egitea aurreikusten dugu. Definituta genuen selektibitatea prestatzeko saio presentzialen batzuk egitea, egutegia finkatuta, baina dena dago zalantzan, egoera oso aldakorra da".

#### "BENETAKO ERRONKA IRAILEAN IKASLEEN ITZULERA ANTOLATZEA IZANGO DA"

GOTZON IPARRAGIRRE, MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Mariaren Lagundia Ikastolan ere ez zuten aurreikusten itzulera. Gotzon Iparragirre zuzendariak azaldukoaren arabera, maiatzaren 25etik aurrera Lanbide Heziketako hainbat ikasle itzultzea aurreikusten zuten, praktikak eta proiektuak lantzeko, astean behin. Baina benetako erronka irailekoa izango dela aitortu dute. Ipintza institutuaren eta Miguel Altuna lanbide ikastetxearen kasuan, oraindik erabakirik hartu ez zutela adierazi zuten atzo eguerdian, baina, badaezpada, pres-taketa eta desinfekzio lanetan aritu direla.


Oñatiko kasuan, Zuzazola Larrañako zuzendari Itziar Agirrek adierazi zuen ez zela haien asmoa astelehenean ikasleak itzultzea. Dena den, selektibitatea prestatu eta Lanbide Heziketako praktika batzuk egiteko, babes neurriekin, eskola presentzialak egitea aurreikusten dute aurrerago. Elkar Hezi ikastetxeen eta Txantxiku ikastolan bat etorri dira esaten "ardura handiko" erabakia dela eta aitortu dute online metodologiarekin "oso ondo" moldatu direla. Ez batean ez bestean atzo eguerdian ez zuten erabakirik hartuta.

Arrasate institutuan ez zuten itzulera maiatzean zehar egitea aurreikusten eta kurtsoa online bukatzeko prest daudela adierazi du Maite Lasa zuzendariak. Arizmendi Ikastolan egoera aztertzen eta plan zehatza definitzen ari direla jakinarazi dute, baina, atzora arte, ez dute erabaki zehatzik. Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoan, aldiz, itzulera gauzatzen hasteko asmoa zuten datorren astean, eta, Gorka Aretxaga Lanbide Heziketako arduradunak azaldu zenez, plangintza bat prestatzen zebiltzan, praktikak egiteko.

Aretxabaletako Kurtzebarri institutuan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arteko eskaintza dutenez, datorren astean zuten erabakia hartzeko asmoa. Lanbide Heziketari dagokionez, Aretxabaleta Lanbide Heziketan ez zuten erabakirik jakinarazita.

#### "SELEKTIBITEA PRESTATZEKO, BABES NEURRIKIN, ITZUL GAITEZKE AURRERAGO"

ITZIAR AGIRRE, ZUZAZOLA LARRAÑA INSTITUTUKO ZUZENDARIA



GOIENA aldizkaria eta Puntua, Goiena Komunikazio Taldearen papereko bi euskarriak. XABIER URZELAI

**Jone Olabarria** DEBAGOIENA

Herrietako denda txikien urteetako aldarrikapena den arren, koronabirusak eragindako krisi sozialak azaleratu baino ez du egin beharra; tokiko merkataritza da herrien bizia eta indarra. Herritarrek ez dute inoiz hainbeste baloratu tokikoa, gertukoa, zero kilometroko produktua. Komunitatea sortu eta komunitate hori mantentzeko ezinbesteko tresna dira merkatu txikia eta baserriarren produktuak, baina horiek guztiak ahalbidetuko dituen sare eta komunikaziorako tresna sendoen beharra ere sentitu du gizarteak berrogeialdian.

Azken asteetako datuek azaltzen dutenez, telebista eta komunikabide digitalak izan dira COVID-19 gaitzaren hedapenak eragindako konfinamenduak herritarrek aukeratutako informazio eta entretenimendu aukera nagusiak. Informazio benetako, ziur eta kalitatezkoaren beharra sekula baino beharrezkoagoa den honetan, beste behin, tokiko komunikabideek eskaintzen duten gertuko produktuaren balioa azaleratu du egoerak.

**Gurean eragiteko tresna**

Hori da, hain zuzen ere, Goiena Komunikazio Taldearen kasua. Iazko martxo eta apirilko webguneko bisitak 2020ko hil berekoekin alderatuta %75 igo dira. Iban Arantzabal Goiena Komunikazio Taldeko zuzendariaren arabera, gertuko eta sinesgarria

# Tokikoa inoiz baino baloratuago, baita komunikabideak ere

'Zero kilometroa' deritzona da tokiko produktua edo gertuko produktua. Horixe da tokiko komunikabideak eskaintzen dutena, gertuko produktua. Orain, inoiz baino gehiago, komertzioek eta komunikabideek bat eginda jardutea bereziki da garrantzitsua

den produktua eskaintzean dago tokiko komunikabidearen arrakasta: "Etxe ondoko informazioa eskaintzen dugu, zure ezagunek idatzitako istorioak edota zure kontaktutakoak. Gure leuroetan irakurriko dituzunak dira zero kilometroko edo gertutasuneko gaiak. Zero kilometrorra izango da zuretzako eta baita ingurukoendako ere".

Tokiko merkataritzarekin gertatzen den bezala, toki komunikabideek ere bertan sortu, banatu eta kontsumitu daitekeen kalitatezko produktua jartzen dute herritarren eskura: infor-

**"ZURE ETXE ONDOKO INFORMAZIOA EMATEN DUGU, ZURE EZAGUNEK IDATZIA ETA ZUK ZEUK ZUZENEAN KONTATUA"**

mazioa. Hain zuzen ere, komunikazioaren burujabetzaren garrantzia azpimarratu du Arantzabalek, are gehiago gutxitua den hizkuntza komunitate batean: "100 kilometroren bueltan baduzu mezua zabalduko dizun komunitatea, 1.000 edo 10.000 kilometrorra ere mezua helaraziko dizuna. Komunitatea eratuz elkar zainduko dugu eta, kontrara, zenbaki bat baino ez zara izango multinazionalendako. Zure datuez jabetu eta aprobetxatuko dira, erreparorik gabe".

**Multinazionalen prezioa**

Hain zuzen ere, multinazionalak gure esku jartzen dituzten tresna horien gaineko hausnarketa egitera animatu ditu debagoiendarrak: "Zabalkunderako egoiak izan daitezken arren, edukiak partekatzeke zalantza gehiago sortzen dute. Ondo

doakionari zer egin esateko ez gara inor, beti da norbere erabakia. Askotariko kasuak daude, eta bereizgarri askorekin. Pentsa dezagun, baina, ezer ez dela *gratis et amore*".

Are adierazgarriagoa egiten da adibidea komertzioaren publizitatea tartean dagoenean: "Instagram, Facebook eta Whasapen jabea berbera da eta erabili egiten du komertzio txikia bere mesedetan. Paretik kendu eta egunen batean bezeroarengana zuzenean heltzea izango luke. Epe motzekoa da lilura, eta ahal duenean soineko hori

**"ELKAR ZAINDUKO DUEN KOMUNITATEA SORTUKO DUGU; HERRITAR, KAZETARI, KOMERTZIO ETA MERKATU"**

edo zapata horiek berak eskainiko dizkio bezeroari, ez herriko komertzioak. Harrotu egingo da merkeago eta etxeko atera eramango duela esanez, gainera".

**Sare propioaren balioa**

Jarrera horiek ekiditeko, norberak kontrolatuko duen bezeroen datu basea osatzeko dei egin du: "Egin publizitatea herriko komunikabideetan, erabili zure kanal propioak, topatu mezularitza zuzena zure bezeroekin, izan burujabe. Ez zara damutuko. Gauza bera gertatzen da kontatu nahi duzun horrekin; edukiak bertako zerbitzarietan, bertako paperezko prentsan, bertako telebistan, hemengo webguneetan, komertzioaren webgunean...".

**Euskara ardatz**

Hogeita hamar urtean lan egin da euskarazko publizitateak gaur duen agerikotasuna izateko; euskara gertukoago da, sinesgarriago eta fidagarriagoa. "Zeinek imajinatuko luke 2020a euskarazko publizitaterik gabe? Zaila egiten zaigu... Ba, hori ez du lortu Facebookek, hori ez du eragin kioskoetan dituzuen 100 argitalpenetatik 99k, ez du egin Amazonek". Tokiko komunikabideek 30 urtean osatutako materiala lizentzia librepean uzteko lan egiten ari direla gogorazi du: "Aspalditik sortzen dugun guztiak du lizentzia librea. Herritik sortua, herriarekin egina eta herritarrena da gure proiektua".

Youtube, Facebook edo Instagramek ateak itxiz gero gaur egun bertan gordetakoak galtzeko arriskua ere azpimarratu du. Gogorazi du plaza publiko rola hartu duten arren, hori ez dela sare sozialen interesa, eta "diruaren mesedetan" lan egiten dutela: "Ezkutuko erabilpena egiten dute gure datuekin".

Arantzabalen ustez, norberaren erantzukizuna da "munstroari" jaten eman edo herrietako komunikabideekin bat egitea: "Gure ardura den moduan herriko dendetan erostea edo baserriarrei erostea zuzenean zein merkatuetan". Gertuko komunitatea tokiko komertzioek eta tokiko komunikabideek eratuko dutela azpimarratu du: "Elkar zainduko duen komunitatea sortuko dugu: herritarrek eta kazetariak; komertzialak eta komertzioak; merkatuak eta komunikabideak".

**Imanol Beloki** DEABAGOIENA

Osasun zentroetako egoera normalizatzen ari da apurka-apurka, eta Debagoieneko Ospitaleko zerbitzuak erreuperatzen ari dira, koronabirusa atzean utzita. COVID-19 gaitzak eragindako une gogorak, osasun langile taldeak izan duen jarraera eta erantzuna, eta etorkizunera begirakoak izan ditu hizpide Agustin Agirrek.

**Arrasate da Gipuzkoako bigarren herria koronabirus kutsatu gehien izan dituen. Zein izan daiteke horren arrazoia?**

Zaila da galdera hori garbi erantzutea. Atzera begira jarri behar dugu; lehenengo kasua Italiatik etorritako pertsona batena izan zen, eta lotura bat dago hor. Gure gaixo guztiak Gasteizera ere joan dira, eta handik ere etorri ziren hasieran zenbait kasu...

**Zein izan da gestionatzeko zailtasun handiena?**

Izan ditugun aldaketak. Egunetik egunera jaso ditugun informazioak ezberdinak izan dira. Medikuek ez genekien birusak zein portaera zeukan, diagnostiko batera heltzeko sintomatiakoak eta asintomatiakoak... Gaur egun, askoz ere gehiago dakigu. Martxo bukaeran gailur bat izan zen, eta paziente asko izan ziren egoera larrian. Hori kezkarria izan zen, ez genekin oso ondo nola erantzun, eta une gogorak bizi izan genituen.

**Anbulatorioetan ere testak egiten hasi dira. Zein da proba hauen prozedura?**

Madriildik protokolo batzuk jasotzen ditugu; horiek Osakidetza pixka bat moldatzen dira, eta horrekin egiten dugu eguneroko lana. Aldatzen joan dira protokoloak, eta orain, proba batzuk eskatzen dira lehen eskatzen ez zirenak. Sintoma batzuekin proba eska dezakezu. Lehen, 15 egun etxean geratzea eskatzen zen sintomarik izanez gero. Aste honetan eta hurrengoan, bestalde, sintomak dituen biztanleria osoari probak egiten hasiko gara. Debagoienean 2.700 proba egin ditugu, gutxi gorabehera. Urgentzietan, ingresatutakoei, etxeko ospitalizazioan... Ahaztu barik nagusien egoitzetan egin ditugunak. Proba asko egin dizkiegu bai egoiliarrei eta baita bertako langileei, eta Osakidetza langileei. **Material faltarik izan duzue ospitalean?**



Agustin Agirre, Debagoieneko Ospitaleko Koordinazio Asistentzialeko Area Medikoko zuzendaria. XABIER URTZELAI

# "Kezkagarriena da koronabirusa gurekin geratuko dela"

**AGUSTIN AGIRRE** KOORDINAZIO ASISTENTZIALEKO AREA MEDIKOKO ZUZENDARIA

Debagoieneko Ospitalean bizitakoaz, osasungintzako langileen profesionaltasunaz eta etorkizunera begira pandemiak izango duen eraginaz mintzatu da Agirre, besteak beste

Arazoak izan ditugu; *stock haustura* deritzona ez dugu izan, baina justu-justu egon izan gara. Prebentiboko departamentuak asko lagundu digu, momentuan bagenekielako zein falta genituen, eta horiek ez ditugu bu-

**"ORAIN, INFORMAZIO GEHIAGO DUGU ETA PRESTATUAGO GAUDE EGOERARI AURRE EGITEKO"**

katu. Ez dugu izan arazorik maskarekin, EPIekin... eta beti izan dugu materiala.

**Lantalde handia duzu zure kargu. Zer jaso duzu egoera honetan beraiengandik? Zein erreakzio?**

Hain zuzen ere, Debagoienean gure langile guztiakin zorte izugarria izan dutela beraiekin kontatzeko. Profesional handiak daude hemen, talde aldetik lan gogorra, bilera ugari egin ditugu; betiere, neurriak hartuta... Profesional aldetik, erantzunaren aldetik eta moral aldetik

oso harro nago beraien jarreararekin.

**Krisi honetatik indartuta aterako gara?**

Esaten dutenez, eta nik ere hala uste dut, koronabirusa gurekin geratuko da. Albiste oso kezka-

**"OSASUNGINTZA EZ DA BETIKO MODUKOA IZANGO, ETA EREMU GUZTIETAN LANDU BEHARRA DAGO"**

garria da. Honek esan nahi du bakuna lortu arte gure bizimodu guztia aldatuta dagoela. Bestalde, ikusi dugu koronabirus momentu txarretan ere nahiko ondo egon garela. Udarako eta, bereziki, udazkenerako prestatuta egon behar dugu. Izan ere, baliteke gripea eta koronabirusa batera etortzea. Gripearen txertoak hartu behar dugu sekula baino serioago, eta prestatuta egon behar dugu.

**Prestakuntza horretan, bereziki, zer behar dugu?**

Indarrak jartzea kasu bat identifikatu eta segituan zerbait egitean; hala, kutsadura ez hedatzeko. Hori izango da hementik aurrera gure lanik garrantzitsuenetakoa. Biztanleriarekin ere landu behar dugu, mila aldiz esaten ari garen hartu beharreko neurriak... helaraziz. Gainera, berriz ere hartu behar ditugu betiko gaixotasunen tratamenduak. Horiek ere hor daude, nahiz eta koronabirusaren kontra ari garen.

**Zein izango da ikasgai nagusia? Zer erakutsiko digu krisi honek etorkizunera begira?**

Osasunaren arlo guztiak indartsuago atera behar dute hementik. Eta azpimarratzekoena egoitzak dira. Beste ikuspegi batetik begiratu behar ditugu. Oso ondo daude, baina koronabirusak toki bat bilatzen du kutsatzeko oso erraza dena. Komunitate bat da, bisita asko daude, denek batera bazkaltzen dute... Zaila da kontrolatzea hor sartzen bada.

**Egoera normalizatuan ari zarete lanean?**

Horretan gaude, baina ospitalea, kontsulta... ez da lehenengo bera izango. Gaixoak bisitatzea lehen denak batera etortzen ziren; orain, hori moztu egin behar da. Urgentzietara ere garai batean orkatilan bihurtu txiki bategatik etortzen ziren asko, eta gauza horiek landu egin behar ditugu.

**Bizitza profesionaleko une gogorrena izan da?**

Urte batzuk badituz, eta ez dut nire bizitza guztian halakorik bizi izan. Bi-hiru hilabete hauean, une gogorrena muin-muinean geundela bizi izan genuen egoera izan zen. Kutsatutakoak egoera larrian, ez genekin prest ginen egoerari aurre egiteko... sinestezina.



# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



2020-2021

## Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

### Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh • onarpena.lhm@mondragon.edu  
664 298 704 • 664 298 683

## Ate Irekiak Online

Maiatzak 25 - 26 -27



Mikel Elortza Cobos  
(Eskoriatza)

Sareko informatika sistemen administrazioa  
(Administración de Sistemas Informáticos de Red -ASIR)

### Zergatik aukeratu zenuen ziklo hau?

Aurreko bi urteetan, mikroinformatika-sistema eta sareen erdi mailako zikloa egin nuen Eibarko EHU-n eta goi mailako ziklo bat egitekotan, ASIR egitea pentsatu nuen, gehien gustatzen zitzaidalako eta baita erdi mailakoaren jarraipen naturala zelako.

### Eta, zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (MGEP)?

Batez ere gertutasunagatik aukeratu nuen hemen ikastea. Hala ere, ate irekietara etorri nintzenez, asko gustatu zitzaidan lan esparrua.

**Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, taldelanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako erronkak egin dituzue?**

Ikasteko beste era praktikoago bat da. Lehengo mailan, guztira hiru erronka izan genituen, denak taldeka, eta helburua enpresetan agertu ahal diren arazoak edo inzidentziak konpontzea izan zen. Bigarren mailan aldiz, bakarkako erronkak izan dira. Egia da, batzuk konplexuagoak izan direla, baina bai lehengo mailakoak, bai bigarren mailakoak gustatukoak izan ditut.

### DUAL formakuntza programan zaude ezta? Zein motatako lanak egiten dituzu?

2019ko ekainean hasi nintzen LKS enpresan DUAL programan lanean eta 2020ko ekainean bukatuko dut. Ignacio de la Fuente, da nire ienpresako tutorea.

Teknologia aldetik, sistema departamentuan lan egiten dut. Bertan bezeroen ordenagailu eta mugikor berriak programez eta bezeroaren informazioarekin konfiguratzen ditut, bezeroen intzidentzia batzuk ere konpontzen ditut. Orain, gainera, proiektu berri batekin hasi behar naiz.

### Zer eskaini dizu ENPRESAN praktikak egitea, bai pertsonalki bai ikasketak aldetik?

Lan munduan esperientzia lortzea, ikasi ditugun gauzak praktikan jartzea eta gauza berriak ikastea ere eskeini dit. Aurretik, ziklo erdiko ikasketak egin nituen, eta praktikak Mondragon Unibertsitateko Informazio Sistemako sailean egin nituen. Oraingo lanen testuingurua desberdina da, eta nire profil profesionalaren lan esparruak hobeto ezagutzeak ahalbidetzen dit.

### Eta etorkizunera begira, zein da zure asmoa?

Momentuz, ikasketekin jarraitzea da asmoa, hain zuzen ere Informatika segurtasuneko urte bateko ikasturtea egitea pentsatuta daukat. Horrekin batera, lan egiteko aukera izango banu, lana eta ikasketak, biak batera egitea nahiko nuke.

### Azkenik, ze gomendio emango zenioke zikloak aukera bezala aztertzen ari den ikasle bati?

MGEPen ASIR ikastea, aukera ezin hobea da, batez ere praktikotasunarekiko apustua egin nahi baduzu eta lehenbailehen enpresa eta lan eremu erreale baterako prestatu nahi bazara.



ZABALIK

URTZI AMIANO SALTERAIN

## "Joño! Hi be hemen?"

Agintariak eta hedabideek polizia bihurtu gaituzten aro honetan –askok barnean eramango genuen–, harrিতuta edo txundituta utzi nauten hainbat jokaera ikusi ditut:

Hasieran gure mugikorretan edukitako bideo, GIF, argazki, informazio amaiezin eta iragazi ezinak.

Teknologia berrien bidez bilkurak, formakuntzak, klaseak... edozer egiteko dugun gaitasunak.

AZ Gaubelak-ek, herri oso bat zapatuero motibatuta izateko izan duen kapazitateagatik.

Herrian zenbat txakur dagoen ikusteak.

Osasun munduan lanean dabilzan langileek lanerako izan duten energia agorrezin horrek.

Inongo berririk gabe senide edo lagun minak erietxean izan dituzten horiek.

Arrabol gainean Iberdrolak berak baino watt gehiago sortu ditugun zorook.

### AURPEGI BATEK SORRARAZTEN DUEN IRRIBARRE NATURALAREKIN GERATZEN NAIZ

20:00etako txalo zaparradan, nire auzoan bizi zirenak bertan bizi zirela ez jakiteak.

Haurrek edozertara moldatzeko duten gaitasunak.

Jendeak duen imajinazio amaigabeak.

Komuneko paperaren

misterioak. Ulertu ezinik nabil oraindik.

Ondokoaren arau-hausteak ikusteko ditugun begiek, baina norberak eginikoen garrantzi kentzeak.

Bi metro zer diren dugun kontzeptu ezberdinak.

Geure burua kontraesanetan jartzeko dugun gaitasunak.

Maite ditugunak fisikoki ez ikusteak sortzen duen inpotentziak.

Une zailenetan ere umorea ateratzeko dugun gaitasun horrek, baita ezerezetik txarrena ateratzeko dugun gaitasun horrek.

Hain komuna izan beharra daukan zentzu ez-komun horrek.

Baina ni, mendira edo aske antzean ibiltzeko aukera eman ziguten lehenengo egunarekin geratzen naiz; hainbeste desiratzen genuen paraje hori ikustetik, sentitzeko aukera eman ziguten egun horrekin. Aspaldi ikusi gabeko aurpegi batek sorrarazten duen irribarre natural hori. Bai, irribarre natural eta erraldoi horrekin geratzen naiz: "Joño! Hi be hemen?"

Zer gutxi behar duen izakiak, benetan baloratu beharreko gauza txiki horiek kentzen dizkigutenean.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Gaia bakarra denean

JOSEBA BARANDIARAN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Bertsolariek, neurriek eta doinuek garrantzia galtzen dute gaia bakarra denean. Saio ia guztiak baitira balkoitik balkoira gaia bakarra denean. Tarteka, digitalak diren batzuk ere pizten dira –Meet, Zoom, Skype eta antzeko plazetan–. Halakoetan, BEC oroitzapen urrun lauso bat baino ez da, Youtubek soilik gogoratzen duena.

Gaia bakarra denean, barruko polizia edo salatario ernetzen zaigu, eta kaletar oro bihurtzen da susmagarri; are gehiago, txakur-jabea bada.

Metrotik beherako distantziak arrisku eremu dira, gaia bakarra denean, zer esan metrokoek.

Eskuak garbitzearekin eskuak garbitu nahi ditugu, gaia bakarra denean.

Joaquin eta Alberto ahanzturaren zaborpean desager litezke betiko, gaia bakarra denean, eta guztiok harrapatzen gaitu "estar por estar" astun batek.

Gaia bakarra denean, heriotza orok dakarren hurrengo galdera da koronabirusagatik izan al den.

George Orwellek ahoa bete 1.984 hortz begiratzen digu gaia bakarra denean eta *Brave new world* edo *Mundu*

*zoriontsu bat* irudikatzen du Huxley xakelagun hartuta. Bizitza zuri-belzten du konfinamenduak eta guztiok hil beharko dugula ahazten jarraitu nahi dugu.

Zakurra, balkoia eta lorategia urre gorri dira, gaia bakarra denean.

Baserria herri bihurtzen da eta basoa eta hiria, basamortu.

Eta une horretan, martxo amaieran idatzi eta maiatzean argitaratuko den idazki hori irla bakartian botilan sartu eta itsasoari botatzen zaion horren pareko da: bidaia luze baten ostean nonori iritsi dakioken esperantza txatal hori.

Gaia bakarra zenean.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martinez de Arenaza,  
Maite Igartua.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua:

SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta  
Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza  
Politikarako  
Sailburuordetzak)  
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

## BERBAGAI

# "Eskaera asko jaso arren, okerrena etortzeko dago"

LEIRE LUGARIZARISTI DEBAGOIENEN CARITASEKO GIZARTE LAGUNTZAILEA

**Mireia Bikuña Madrid** ARRASATE Martxoaren 11tik itxita egon osten, Elikagai Bankuaren banaketa martxan ipini dute berriro Arrasaten. Pandemiak eragindako egoerak behartuta hasi dira familiei elikagaiak banatzen. Egoera horrek berak eragin du laguntza eskaerak handitu izana Caritasen.

## Oraingoan ere ahulenengan eragin dute pandemiaren ondorioek?

Horrela izaten da, eta oraingoan ere bai. Arrasaten, jeneralean, 600 herritarri ematen diegu laguntza, baina geroz eta gehiago dira guregana laguntza eske datozenak. Baina egoera ez da zaildu Arrasaten bakarrik. Bailerako herri guztietan eragin du koronabirusak, eta ondorioak antzekoak dira. Guztietan handitu dira ahulenen beharrak.

## Kezkatuta zaudete?

Bai. Ikusi dugu laguntza eske datozela betiko herritarrek, baina baita Caritasen inoiz



Leire Lugarizaristi, Caritasen bulegoan. L.L.

egon ez direnak. Horrenbestez, egoera oso konplikatu dela esango nuke. Egutero deitzen digute laguntza eske. Janari eske. Eta dei horietako batzuk oso gogorak izan dira.

Are gehiago, esango nuke oraingo egoera zaila izan arren, okerrena etortzeko dagoela. Janari beharra asetzeko gai izango gara uste dut, baina alokairuak ordaintzeko laguntza eskaerak

ere jaso ditugu. Alokairua ordaindu ezin duten pertsonak badaude Caritasera laguntza eske etorri direnak. **Dirulaguntzak ere ematen dituzue?**

Ez. Guk elikagaiak eta medikamentuak ematen ditugu. Eskaera bereziak ditugunean, modu pertsonalizatuan aztertzen ditugu. Caritasak ez dauka dirurik alokairu guztiak ordaintzeko.

## Eskaerak handitu diren heinean, Elikagai Bankuak badauka nahiko elikagai horiek asetzeko eta urte osoko banaketa bermatzeko?

Ikusi egin beharko dugu. Debagoiengan banatzen ditugun elikagaiak Bergarako eta Oiartzungo bankuetatik datoz. Azken bilketa handia oso ona izan zen, baina, COVID-19ak urterako genituen aurreikuspenak hankaz gora ipiniko dituenez, pausoz pauso joango gara. Egungo egoera hau ez da di-da batean konponduko. Luze joko du normaltasunera itzultzeak. Bidea gogorra izango da.

## Ekarpen ekonomikoa egin gura dutenendako kontu korronteak zabalik dituzue.

Bai. Guztion laguntza beharko dugu. Ekarpina egin gura dutenek Laboral Kutxako kontuan egin dezakete.

## HAU BE BADOGU!

## Tabernak eta terrazak hizpide izan dira



**@iuribetxebarria:** "Asteartea, fresko, 9 gradu, eta terrazak lepo eta distantziei inungo errespetu barik. Eskerrak 60 eguneko konfinamenduen gauza asko ikasi biher zitxun gizarte honek. Kakazaharra".

**@alferrikaldia:** "Ba, terrazak, niri, meh! Beti nahiko indoorsekoa izan naiz".

**@unaimy:** "Buatxabal, zein gaizki nerabeak terrazetan!".

## Erabiltzaileak, fase ezberdinekin nahastuta

**@miirenbarcelona:** "Faseen azalpena: 1.0 Fasea. 2.1. Desfasea. 3.2. Desfasea. 4.3. Desfasea. 5. Konfinamendua".

**@ametts:** "Danak berdin jarraituko du, baina eh, lasai, komertzioak irekiko ditugu kontsumitu dezazuen...".

**@LoreaSr:** "Lehenengo fasea hasi dugu eta oraindik ez dakigu zer egin dezakegun".

## Udako musika jaialdia, bertan behera

Euskal Herrian egiten diren hainbat jaialdik 2021era atzeratu direla azaldu dute asteon:

**@nontzeberri:** "Azkena Rock Fest eta Bilbao BBK Live ez dira aurten egingo".

**@xabimurua:** "Hurrengo urtean indar bikoitzez bueltatzeko balio dezala!".

## Everesteko balentria gogoratzen

Aurrenekoz euskal espedizio bat Everesteko gailurrera:

**@inigosuspe:** "40 urte bete dira Martin Zabaletak munduko gailurra zabaldu zuela, Everest igo zuela".

**@matalaz1661:** "Duela 40 urte Martin Zabaletak Pasang Temba sherparekin batera Everest gailurrera heldu zen. Lehen euskalduna izan zen".

## ITURRI ONETIK

## Corpuseko prozesiorik ez; elizkizuna, bai

Oñatiko udalbatzak aho batez onartu zuen Corpus jairik ez antolatzea. Koronabirusagatik bizi dugun alerta egoerak eraginda. Honenbestez, eskualdeko beste hainbat jai bezala, aurten ez da Corpus jairik egingo Oñatin. Ekainaren 14an, domekan, zen ospatzekoa egun handia. Hala, besteak beste, kaleko prozesioa eta dantzak ez dituzte egingo aurten. Hori bai, elizkizuna egin nahi dute, dantza eta guzti, ezohiko moduan bada ere. Aztergai dute meza zuzenean ematea telebistaz eta Internetez.

## ALBISTE IZAN ZEN

2005-05-07

## Kilometroak Txikia, jendetsu eta eguzkitsua

Kilometroak Txikia egin zuten Arrasaten, egun osoko jai, urrian Aretxabaletan etorriko zen festa handiaren atariko moduan. Urte hartan, Arizmendi Ikastolak antolatu zuen Kilometroak jai, eta hiru herritan ditu Arizmendik guneak, Leintzen: Arrasaten, Eskoriatzan eta Aretxabaletan. Arrasaten egindakoan askotariko jai ekitaldiak izan ziren herri osoan; urriko Kilometroak 2005 egunean baino eguraldi askoz hobearrekin.



## Txernobyngo istripua gertatu izan ez balitz?

**JOSU GARITAONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT'

EGITASMOAREN ARDURADUNA  
BERGARA

Pentsa dezagun, une batez, istripu nuklearrik ez dela egon eta gure planetan dauden zentral nuklearrak zintzo ibiliko direla -400 baino gehiago-.

Kasu horretan ere ez da etikoa energia mota hori erabiltzea; gure etxeko sarrerako argia segundo batez piztean, ondorengo belaunaldiei milaka urte iraungo duten hondakin erradioaktiboak lagatzen dizkiegu.

Arduratu beharko dute ondo gordetzen, Zaldibarren egin den kudeaketa baino hobeto; pentsatu, une batez, izango zituen ondorioekin, gu baino zoroago dauden eskuetan erori izan balitz eta Urkuluko urtegira bota izan balute zerbait.

Pentsatuko duzue horrelako hondakin arriskutsuak txukun lagako dizkiegula

ondorengo belaunaldiei; bai, zera! Zati bat militarrek erabiltzen dute munizioa egiteko, tankeetako burdina erraz zulatzen dute eta.

Orain, pentsatuko duzue Irakeko gatazkan bakarrik erabili dutela; ba, ez, horrelako armak Europako tiro-praktika eremuetan probatu zituzten lehenago. Kontxo, Bardean ere tiro-praktika egiten dute, baina pentsatuko duzue Espainiako armadak ez duela horrelakorik egingo. Ondo dago jakitea beste nazio batzuetako armadek ere erabili dutela Bardea.

Nik horrenbeste pentsatu beharrik ez daukat: zentral nuklearrak dituzten argindar-enpresei ez diet elektrizitaterik erosiko.

## AHT orain? Gelditu!

**SEBAS ARANZABAL ARANZABAL**

ANGIOZAR

Bizi dugun osasun krisiaren ondorio ekonomikoei buruz iritzi ugari entzuten ari gara, ez da erraza datorkiguna aurreikustea, baina

instituzioak hasi dira erabakiak aurreratzen; horrela, GFAk aurreratu du udalei bideratzen dien diru kopurua %20 murriztuko duela. Eta, hartutako lehen erabakien artean, aditzera eman du 2020rako baserri-bideak konpontzeko aurreikusita zegoen 1,5 milioiko partida bertan behera gelditzen dela.

Azken hilabeteetan eguraldi zakarrak eragindako kalteak handiak izan dira baserri-bideetan, eta udalek ez daukate nahiko baliabide konponketa horiei aurre egiteko, baina, bueno, osasun egoera larri honetan ulertzekoa da denok esfortzu bat egin beharra.

Asken asteetan, inguruko basoetan isiltasuna nabaria da, basogintza lanak geldirik daude, baina bada gure inguruan isiltasun hori apurtzen duen zarata: AHTaren obrek; horiendako ez dago krisirik, lan horietan 100 metro egiten gatatzen dutenarekin Gipuzkoako baserri-bideak

konpontzeko laguntzak bideratuko lirateke.

Jaurlaritzak aurtengo aurrekontuetara AHTaren obrei bideratu dizkien 100 milioiak zergatik ez ditugu erabiltzen osasun sistema sendotzeko, test gehiago egiteko edo maskarak erosteko? Baina batzuen lehentasunak beste batzuk dira: *txin, txin, txin*, diruaren hotsa.

## Kutxabankeko bezeroarentzako arreta-arduradunari

**PEDRO MARIA OJANGUREN**

**BILBATUA**

ELGETAKO XALBADORPE  
ERRETIRATUEN ELKARTEKO  
PRESIDENTEA  
ELGETA

Jaun/Andrea:

Ohar honek balio dezala gertatzear dagoenaz jabetzeko. Udalerriari dagoen banketxe bakarra ixtear zarete. 60 urteko historia du bulego horrek eta udalerriri osoari eragiten dio. Bereziki, erretiratuen kolektiboari eragiten dio, biztanleen %35-40 ingururi. Horrekin batera, teknologia berrien

erabileran zein mugikortasunean gabezia handiak dituen kolektiboak da.

Ikusten ari naiz kolektibo honek zer-nolako kezkarrekin, urduritasunarekin eta desadostasunarekin ari den bizitzen itxiera prozesu hau. Askok protesta-ekintzak eskatzen dituzte edota aztertzen ari dira aurreztutakoa beste erakunde batzuetara bideratzeko aukera.

Hel gaitezen elkar aditzera. Lan arloan, noski. Jakinekoa da Elgetako bulegoa, Kutxabanken 37. zenbakiduna, guztiz kaudimenduna dela. Egunero sortzen dira ilarak artatuak izan nahi duten bezeroekin, eta herri osoa da erabiltzaile. Onar daiteke doikuntza premia bat egotea langile kopuruari dagokionez, baina inoiz ez behartutako itxiera bat.

Hala, erabakiaren inguruko hausnarketa berria egiteko eskatzen dugu. Erantzun positiboa jasoko dugulakoan, zain egongo gara.

Agur t'erdi.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

# Egin tokiko komunikabideen alde

## Egin Goiena Klubeko bazkide



### Anima zaitetz, egin zaitetz Goiena Klubeko bazkide. Baduzu zer irabazi:

- Deskontuak hainbat komertziotan: Goiena Klubeko txartela erabilia.
- Puntuak aldizkaria jasoko duzu: zeuk eskatutako helbidean.
- Zozketak: irabazi ekitaldietarako sarrerak, liburuak, teknologia gailuak...
- Deskontuak Iragarki sailkatuak atalean, Goiena aldizkarian.
- Deskontuak eskelak jartzean Goiena aldizkarian.

### Gainera, ORAIN egiten bazara bazkide, beste abantaila hauek ere izango dituzu:

- **30 euro bakarrik** kostako zaizu urte bukaerara arteko kuota, 56 beharrea.
- **%30 merkatuko zaizu bazkide** kuota errenta aitortzen egiterakoan. Izan ere, Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jardura izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.
- **Maskara jasangarria** jasoko duzu, 300 aldiz garbitu daitekeena. (Maskarak agortu arteko oparia.)



### BAZKIDE EGITEKO:

☎ 943 25 05 05 ✉ [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)





Lau pertsona, Arrasateko Olarte kalean, establezimendu batera sartzeko ilaran. ENeko AZURMENDI

# COVID-19 kutsatuei dagokienez, EAEko lehen postuetan dago Arrasate

Arrasatera beste leku batzuetara baino lehen heldu zen COVID-19a, eta kutsatuen datuetan eragina izan du horrek. EAEko altuenen artean dago: hamaikagarrena da kutsatu kopuruan; 10.000 biztanletik gorako herrietan, biztanleko kutsatuetan, hirugarren

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Koronabirusak gogorrago kolpatu ditu herri batzuk, eta Arrasateren kasuan hori agerikoa da. Debagoieneko biztanle gehien dituen herria izanik, normalizat jot daiteke kutsatu kopuru altuena izatea, baina alde handiarekin gaintzen ditu alboko herri handien zifrak. Datu metatuei erreparatu gero –orain arte egon diren kutsatuek, sendatuak eta hildakoak kontuan izan gabe–, une honetan 246koa da kutsatuen kopurua Arrasaten, Bergarak baino lau aldiz pasatxo gehiago –53 kutsatu– eta Oñatik baino bost aldiz gehiago –48 kutsatu–. Biztanleko kutsatu kopurua zehatzagoa da tokian tokiko eragina neurtzeko, baina hor ere alde handiak daude. Arrasateko biztanleen %1,11 izan da kutsatua, Bergaran baino hiru aldiz gehiago –%0,362–

eta Oñatin baino ia hiru aldiz gehiago –%0,413–. Gipuzkoako kutsatu datuetan ere, zerrendako lehenen artean dago Arrasate. Kutsatu kopuruari dagokionez, bigarrena da Donostiaren atzetik –746 kutsatu–, kontuan izanda probintziako bosgarren herri populatuena dela –Donostia, Irun, Eibar eta Zarautz dira populatuena, hurrenez hurren–. Biztanleko kutsatu kopurua aintzat hartuz, ordea, Gipuzkoako lehena da herri handien artean. Mutiloak bakarrik gaintzen du, biztanleen %1,2 izan baita kutsatua; 250 biztanle dira eta hiru kutsatu izan dituzte.

EAE mailan ere, goialdean dago Arrasate. Kutsatu kopuruaren zerrendan hamaikagarrena da eta 10.000 biztanletik gorako herrietan, biztanleko kutsatuetan, hirugarrena da, Gasteizen eta Basauriren atze-

tik –biztanleen %1,59 eta %1,21, hurrenez hurren–.

## Datuen bilakaera

Alarma egoera ezarri zenetik bi hilabete pasa dira, eta Arrasateko kutsatuen %77 lehen hilabetean gertatu ziren. Apirilaren 15erako, 191 kutsatu zeuden, eta azken hilabetean, 55 gehiago. Eguneko ia bi kutsatuko batez bestekoa izan da azken hilabetean, baina normalizat jo du hori EHUKo Mikrobiologiako irakasle Miren Basarasek: "Gai-xo asintomatikoak dauden heinean, ezinezkoa da gaixotasunaren hedatzea guztiz kontrolatzea. Ez dira test masiboak egin; beraz, asintomatikoak hor daudenez, transmisio kateak ez dute etenik". Zaila da datu horien atzean dauden faktore guztiak zehaztea, baina GOIENAK lau lagunengana jo du azalpen bila.

## Arrasateko kutsatzen faktoreak



### Miren Basaras

EHUKo Mikrobiologia irakasleak dio Gasteiztik gertu egoteak zerikusi handia izan duela. "Bestalde, kontuz datuekin, datu metatuak dira eta. Zifra horiek ez dituzte sendatutakoak eta hildakoak kontuan hartzen".



### Mikel Lezamiz

Mondragon Taldean luze jardundakoak dio herriko enpresetan kanpora asko bidaiatzen dela. "Hasierako kutsatuek hortik azal daitezke, baina ez ostean etorritakoak. Agintariek ez dute asmatu gaitza kontrolatzen".



### Agustin Agirre

Debagoieneko Ospitaleko zuzendari medikuak dio zaila dela Arrasateren zifra altuari "erantzun garbi" bat ematea. Dio lehen kasuak Italiatik etorritako lagunenak zirela eta, bestetik, hemengo gaixo asko Gasteiztik etorri direla ere.



### Maria Ubarretxena

"Datua altua da eta ardura piztu zigun hasieratik. Osasun arloko adituek karga biralaren garrantzia aipatu izan digute, non kutsatuek ahalmen handia duten beste batzuk kutsatzeko. Arintze fasean, beraz, jarrai dezagun neurriak betetzen".

## Arrasateko kutsatuen datuak

DEBAGOIENA HERRIA	KUTSATUAK	KUTSATUAK BIZTANLEKO
Arrasate	246	%1,11
Bergara	53	%0,36
Oñati	48	%0,41
Aretxabaleta	56	%0,79

EAE HERRIA	KUTSATUAK	KUTSATUAK BIZTANLEKO
Gasteiz	3.923	%1,59
Basauri	494	%1,21
Arrasate	246	%1,11
Ermua	167	%1,04

### OHARRAK:

- BIZTANLERIA DATUAK 2019KO URRIAN EUSTAT-EN ARGITARATUTAKO DATUETAN DAUDE OINARRITUTA.
- KUTSATUEN DATUAK OSAKIDETZAK MAIATZAREN 13AN EMANDAKO DATUETAN DAUDE OINARRITUTA.
- EAE-KO TAULA OSATZEKO HERRI HANDIAK HARTU DIRA AINTZAT, 10.000 BIZTANLETIK GORAKOAK.

# Konfinamenduak ez dio astoari jai gosea kendu

Gaur ziren hastekoak Musakolako San Isidro jaiak, eta auzoa parrandaz beteriko asteburuan murgiltzeko prest zegoen. Osasun egoerak baldintzatuta, ez dituzte ohi bezala egingo, baina etxean sartuta ederto pasatzeko egitaraua lotu du jai batzordeak

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Alarma egoera ezarri aurretik ez zegoen garbi San Isidro jairik egingo zen ala ez, baina jai batzordea eta Udala adostasunera heldu ostean, laino hori uxatu egin zen. Bigarren laino bat agertu zen bidean, koronabirusarena, eta horren eraginez Musakolako zerua ilundu. Baina jai batzordea ez da besoak gurutzatuta gelditzekoa. Sagardotegi eguna etxetik irten gabe egitea zer den badakite, eta jaiak etxetik irten gabe egin daitezkeela erakutsiko dute asteburuan.

## Egitarau umoretsua

Gaur, 12:00etan, Arizmendi Ikastolako haurrek danborrak astinduko dituzte, eta Youtuben jarraitu ahalko da. Kanean egitea zen asmoa, baina Ertzaintzak kamioi baten gainean egitera behartzen zuela ikusita, ideia baztertu egin dute. 17:00etan, izerdia botatzeko txanda, Youtube bidezko spinning saioarekin. 17:30ean, txokolate-jana, nor bere

etxean, eta 19:00etan, ikurrina igotzea eta gaiteroak. Hauek kalejiratxoak egingo dute, eta etxe azpitik pasatzean balkoira edo leihora irtengo dira auzotarrak, zapiak eta txapelak jantzita. 22:00etan, etxeko balkoietan kontzertuak, eta 23:00etan, aldiz, argi-festak; etxeko argiak kenduz eta balkoiak argizatuz

Zapatuan, etxe-txikiteoa egingo dute, 12:00etan, musikaz alaituta. 19:00etatik 21:00etara, DJ Iverrek abesti dantzagarriak jarriko ditu Youtuben. 22:00etan Berri Txarrak taldearen itzulera kontzertu mundiala zen egitekoa, baina, azkenean, kale! 23:00etan, berriz egingo dituzte argi-festak.

Domekan, 09:00etan, *Musakola's Secret* izeneko pijama erakustaldia egingo dute balkoietan, 12:30ean, poteoa balkoietan, eta 17:30ean, balkoien arteko sokatira txapelketa. Izerdiak kentzeko, 18:00etan, balkoitik balkoira ur globo jaurtiketa egingo dute. Amaitzeko, 19:30ean, lapiko-jotzea egingo dute jaiak agurtzeko.



Jai batzordekoak, astoarekin, iazko San Isidro jaietan. GOIENA



IMANOL BELOKI

## Errepideak, oinezkoen zerbitzura

Alderdi politiko guztiak ados jarri ziren EH Bilduk oinezkoen segurtasuna handitzeko eskaera lantzeko, eta Garibai etorbideko, San Vicente Ferrer kaleko eta Gipuzkoa etorbideko errepide zati batzuk oinezkoek eta bizikletek erabiltzea adostu zuten. Askok begi onez hartu arren, Gelmako bizilagun batzuek kexa azaldu dute auzoko ibilgailu fluxua dela eta.



**Eskerrik asko**  
zuen animoengatik,  
denon artean  
**lortuko dugu!**



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30



Ziklista bat Garibai kaleko errepidean, gaur egun taxiak eta autobusak soilik pasatzen diren lekuan. GOIENA

# EH Bildu: "Ekobulebar"-a ez da esentziala orain"

Diote "aurreikusitakoa baino 4.000.000 euro gutxiago" batuko dituela Udalak 2020an, eta "egoera baretu arte" itxaron nahi dute "proiektu handiei" ekiteko. Gobernuak dio "aurrera" egingo duela "arrasatearren bizi-kalitatea hobetuko duten egitasmoekin"

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

"Proiektu handien" kasuan Arrasateko EH Bilduk hilabete batzuk itxarotea nahi du, "egoera baretu arte". Euren ustez, EAJ eta PSE-EE "gastuen exekuzioarekin tematuta" daude, eta diote egoera honetan "zuhurtziaz" jokatu behar dela, Udalak "ezin izango dielako 2020rako aurreikusitako gastu eta inbertsio guztiei aurre egin". Udalak 2020an esperotakoa baino 4.000.000 euro gutxiago batuko dituela kalkulatu dute. Aldunditik 4.000.000 euro gutxiago jasoko dituztela aurreikusten dute, eta, udal zerga eta tasekin lotuta, ordea, 1.500.000 euro gutxiago. "Udal tasa eta zergen bitartez ere dezente diru gutxiago jasoko dugu; bonifikazioak direla, tasen itzulketak dela, jarduera ekonomikoaren murrizketak eragindako tributu murrizketa dela, eta abar. Eraikuntza zergaren bidez jasotzea espero zena, hirigintza baimenekin lotutako tasetatik, obren okupazioen tasatik, terrazen tasetatik... jarduera ekonomikoari

zuzenean lotuta dauden tributu murrizketa ere %25ekoa izango dela suposa genezake, eta horrek, kasurik onenean, 5.500.000 euroren murrizketa dakar gure sarreretan. 2019tik soberan geratutako dirutik, 1.500.000 euro gordetako zirela hitz eman zuten; beraz, kasurik onenean, geratzen zaigun deskoadratzea 4.000.000 eurokoa da", azaldu dute.


**'Ekobulebar'-a**

Proiektu horri buruz esan dute "momentu honetan" ez dela "inondik inora" proiektu esentzial bat. "Eko-tik oso gutxi du eta. 3.000.000 euro inguru xahutuko duela aurreikusten da. Gogoratu Juan Arzamendi Musika Eskolaren obrak geldirik daudela eta ez

**"PROIEKTU HANDIAK" MARTXAN JARRI AURRETIK, HILABETE BATZUK ITXAROTEA NAHI DU EH BILDUK**

dakigula zelan eta zer kosturekin martxan jarriko diren. Kultura ere, erlojuaren eraikina, obratan dago. Erguingo igogailua... Arrasateko ekonomia berpiztea nahi bada, larrituta ikusten dugu helburu hori lortzeko PNVri eta PSOeri okurrizten zaien gauza bakarra enpresa eraikitzaileei kontratu gehiago esleitzea dela. Herriaren eta herritarren beharrak beste batzuk dira orain. Iruditzen zaigu, gainera, *Ekobulebar*-aren kasuan, aktuzio bigun batzuekin -baliabide eta diru gutxi- proiektu horren helburu batzuk bete ahal direla".

2020ko aurrekontuetan 100.000 euro daude *Ekobulebar* proiektua idazteko. Gobernuak lanak esleitzeko prozedura iragarri du 2,5 milioiko aurrekontuarekin, baina 2020an ez dago partidarik lanak ordaintzeko. Oharrari buruz, Gobernutik adierazi dute, "Arrasateko bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea helburu duten egitasmo jasagarriekin aurrera egiteko" asmoa dutela.



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

## Geranioak

Agenda hustu zait. Bakoitzak ditu bere minak, bere itoak, bere arnastu ezinak. Eta hau da nirea. Udaberriko orriak beteta nituen, eta agenda hustu zait. Ez dut hausnartzeko gogorik. Ez dut pentsatu nahi. Ohartu naiz zenbaterainoko presaz nembilen. Egia da, eta badakit. Baina ez dut nahi. Hau da nire dolua.

Goierriko elkarte batean behar nuke gaur, edo Gernikako areto batean, bertsoetan, zintudan hitzari lau oin aurkitu nahian. Gustatu egiten zait, aldiro kasualitate berrietarako aitzakia izatea. Hori da agenda hutsaren minik handiena. Tarte batez, ezer gutxi gertatuko da kasualitatez. Idatzi-deitu-eskatu beharko ditugu tarteok, disimulurik gabe. Bakoitzak ditu bere itoak. Balkoian gaude. Zeru zati hesitu honetan harrapatu du gure belaunaldia udaberriak. Geranio artean argitu zaigu aitona-amonekin dozenaka alditan eztabaidatutakoa: gurasoak baino okerrago biziko gara. Gutxiagorekin ere bai, baina ez dute zertan baliokide izan. Ez dugu pentsatu nahi.

Orain ohartu gara zenbateko zamaz genbiltzan. Egia da, eta badakigu. Baina ez dugu nahi. Hau da gure dolua.

## Iaz baino 1.342 liztor beltz gehiago harrapatu dituzte

Martxoaren 1etik apirilaren 30era, 3.773 liztor beltz harrapatu dituzte Arrasaten. "Kopuru horrek agerian uzten du espezie hau zein eroso egokitu den gura eta zer-nolako gaitasuna duen ugaltzeko", diote gaiaz arduratzen diren Udaleko langileek. Habiaren bat ikusi gero, deitu BAZera, Udaltzaingora edo 628 11 56 73 zenbakira.

## 'Eroso.eus', herriko jatetxeen produktuak etxean jasotzeko

Gaspe batzuek zerbitzu bat sortu dute herriko jatetxeen produktuak zuzenean etxera eramateko. *Eroso.eus* webgunea sortu dute, eta bertan, herriko lau establezimenduren produktuak eskatu daitezke: Hamalau, 1990, Irati Taberna eta Izozkitegi. "Ekonomia lokala sustatzeko" sortu dute, eta euskaraz lan egiteko konpromisoa adierazi.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Zebra-bide altxatua leuntzeko eskaria

"Nafarroa etorbidean zebra-bide altxatu hori jarri zuten orain dela hilabete batzuk. Udalarari eskatzen diot bi aldeak leuntzeko, ziklistak, motorzaleak eta arrisku barik pasatzeko", dio irakurle batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.





Luis Mari Lopez Rekarte futbolari ohia, duela 31 urte sartutako golaren irudia erakusten. LUIS MARI LOPEZ REKARTE

# Arrasatear batek inoiz sartutako golik gorenena

Luis Mari Lopez Rekartek egin zuen, Bartzelonak Sampdoriari irabazitako Europako Errekopako finalean. Inaxio Kortabarriak ere gol garrantzitsua sartu zuen Gijonen, Realak lehen liga irabazteko, baina Lopez Rekarterena kontinente mailako titulua zen

## Xabi Gorostidi ARRASATE

1989ko maiatzaren 10a. Suitzako Berna hiriko Wankdorfstadion futbol zelaia. Bartzelona eta Sampdoria aurrez aurre, Europako Errekopa nork irabaziko-orduan, nazio bakoitzeko Kopa irabazleek jokatzen zuten txapelketa-. Kataluniarrak markagailuan aurretik; 1-0, Julio Salinasek lau garren minutuan buruz sartutako gola. Italiarrak estutzen ari dira, berdinketa lortu guran. 75. minutuan, Johan Cruyff entrenatzaileak aukia mugitu du: emaitza mantentzeko, eta Cruyff aro-ko lehen titulua lortzeko. Txiki Begiristain kendu, eta haren ordeztu Luis Mari Lopez Rekarte defentsa arrasatearra atara du. Handik bost minutu eskasera, falta ezker hegalean, Sampdoriaren alde. Roberto Mancinik areara erdiratu, baina baloia Zubizarreta atezainaren eskutara. Honek azkar bidali dio Miquel Solerri -hau ere aulkirik irten berri-, erdiko marrara heldu da aurkari baten sarrera

gainditu ostean. Burua altxatu du, eta ezkerretik Lopez Rekarte dator, korrikaldi bizian. Une egokira arte itxaron, sakonean pasea egin, eta Rekarte bakarrik geratu da Gianluca Plagiuca atezainaren aurrean. Pase argia dauka Gary Lineker aurrelariarentzat, baina zuloa ikusi du atean eta gola du begiz jota. Gorputza ondo jarri, baloia bigarren zutoinera gurutzatu, eta sarera. 2-0. Lasaitasunaren gola -bi debagoiendarren parte hartzearekin lortua-, eta titulua Bartzelonarentzat. "Sufritzen ari ginen une hartan, nekatuta geunden. Golak lasaitasuna eta konfiantza eman zigun. Garrantzitsua izan zen", dio Lopez Rekartek. "Fresko-fresko irten nintzen, eta Solerrek

**DOMEKAN 31 URTE  
BETE ZIREN LOPEZ  
REKARTEK EUROPAKO  
ERREKOPAKO FINALEAN  
GOLA SARTU ZUELA**

baloia hartu bezain pronto korrikan hasi nintzen pentsatuz: 'Hemen dago nire aukera'. Jokalari bezala primeran definitzen du jokaldi hark: "Azkartasuna zen nire bertute nagusia; gaur egun, ez hainbeste; kar, kar, kar. Jokaldi horrek ondo islatzen du zer-nolako jokalaria nintzen".

Alavesen, Realean, Bartzelonan, Coruñaeko Deportivon eta Mallorcan egin zuen futbol ibilbidea, alboko marrari itsatsita beti. Bidean pilotutako palmaresa, kontuan hartzeko modukoa: hiru Errege Kopa hiru talderekin -Realarekin 1987an, Bartzelonarekin 1990ean eta Deportivorekin 1995ean-, aipatutako Europako Errekopa 1989an eta Espainiako Superkopa 1995ean.

## Mendia, betiko pasioa

Lagun bat alboan zuela 7 urterekin igo zen Udalatxera lehen aldiz. Ordutik, mendizaletasuna zainetan sartu zitzaion, eta gaur egun arte mantendu du. "Atlas mendia da igo dudana altuena".



Luis, Aitor eta Maitane Lopez. J.M.V.M., 'CORAZONTXURIURDIN' ETA LEVANTE

## Lehen mailako hiru belaunaldi

Futbolari bikainez jositako hiru belaunaldi dituztela esan dezakete, harro, lopeztarrek, denak lehen mailan jokatzerara heldu baitira.

### Luis Lopez 'Bomba'

Aita, Luis Lopez *Bomba*, izan zen lehena. Hitz hauekin oroitu du berriki Jose Mari Velez de Mendizabal historialariak bere blogean eskaintako artikulu interesgarrian: "*Bomba*-k Iturripe zaharrean sartutako golek gure haurtzaroa alaitu zuten, gure irudimenari futbol zelai prestigiotsuetara bidaiatzeko aukera emanez". "Futboleko legionero" bat zela zioen, eta ez zaio arrazoirik falta, zortzi taldetan aritu baitzen: Eskoriatza, Mondra, Beasain, Real Union, Touring, Eibar, Mondra berriz, Malaga, Alaves, eta Mondra hirugarrenez. Hiru talderekin jokatu zuen Bigarren Mailara igotzeko kanporaketa -Mondra, Real Union eta Eibar-, baina lortu ez, eta Lehen Mailan lau hilabetez jokatu zuen Malagaren elastikoarekin. Balantzea: bi liga partidu, Kopako hiru eta bi gol.

### Aitor Lopez Rekarte

Luis Lopezen lau semeetatik bik lortu zuten lehen mailan jokatzea: Luis Mari eta Aitorrek. Azken honek hamar denboraldi eman zituen Realarekin, eta denetarik bizitzea tokatu zitzaion. Gutxigatik ez zuten Liga irabazi 2002-2003 denboraldian, Txapeldunen Liga jokatu zuen eta Bigarren Mailara jaitsiera ere bizi izan zuen. Taldeko kapitain besokoa eraman izan zuen.

### Maitane Lopez



Lopezarren artean elitera heltzen azkena Maitane izan da, Jose Ignacio *Kote*-ren alaba -honek Eibarrekin jokatu zuen Bigarren Mailan-. Levanten jokatzen du 2015etik, eta 17 eta 19 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin Europako txapeldun izandakoa da. Aurten kontratua amaitzen zaio, eta ligako oilarrak atzetik ditu.

**ion** ELEKTRIZITATEA

Mantentze lan integralak  
Konponketa txikiak eta handiak  
24 orduko zerbitzua

**658 99 59 12**

Deitu!!!



Dagoeneko jaso dituzte ikasleen eta senideen bideo batzuk. ARRASATE MUSIKAL

## Norberak etxean gozatu eta ondoren plazaratu

Urteroko hitzordua izaten da Arrasate Musikaleko ikasleek senideekin batera egiten duten kontzertua. Aurten, egoerak baldintzatuta, modu ezberdinean egingo dute: bakoitzak bere etxean grabatutako bideoak bateratu egingo dituzte ondoren

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

"Ikasleek gurasoekin, lehengusuekin edota aitona-amonekin eskaini ohi izan dute kontzertua, eta egoera benetan politak ikusi izan ditugu orain arte. Aurten, ordea, planteamendua aldatu behar izan dugu, COVID-19a dela eta. Martxoan konfinamendua hasi genuen momentutik jendeak bazituen ideia batzuk, eta hala egingo dugu. Ideia nagusia mantendu gura izan dugu, nahiz eta ezingo dugun guztiz bete", adierazi du Edorta Aias-tuik, Arrasate Musikaleko ekin-tza arduradunak.

Modu horretan, bakoitzak bere etxean grabatuko du pieza musikal bat, eta ondoren batu egingo dituzte guztiak.

Bideo formatuan izango denez, Aias-tuik azpimarratu du "pieza arinak" izan daitezkeen eskatzen ari direla, denborari dagokionez eta musikari dagokionez. "Bideoa arina izatea komeni da, pantaila baten aurrean ikusi behar dela kontuan izanda. Pieza la-

burrak eskatzen ari gara, bi minutuz azpikoak".

Jo beharreko pieza "erabat librea" izango da, bakoitzak etxean daukan instrumentua eta jotzen duena kontuan hartuta. "Egia da familia bereko instrumentuek soinu hobea dutela, baina tronpetak eta biolin bat ere uzartu daitezke lasai asko, nahi izanez gero".

Edozelan ere, formatu honek baditu bere mugak. Emanaldi asko, berez, lehengusuek edota izeba-osabek elkarrekin egin beharrekoak ziren, eta horiek ezingo dituzte egin, "ez baitira batera bizi". Beraz, "bideo bakoitza etxean elkarrekin bizi diren senideekin bakarrik grabatu ahalgo dute ikasleek".

**BIDEO OSOA  
IKUSTEKO AUKERA  
EGONGO DA GOIENA  
TELEBISTAN ETA  
'GOIENA.EUS'-EN**

**Lotsak gairatzeko deia**

Ekintza arduradunak azaldu duenez, adin bateko ikasleek ez dute gura izaten gurasoekin jo, lotsagatik. "Gurasoek ilusio gehiago izaten dute seme-alabek baino. Hala ere, guztiak animatu gurako nituzke, gauza oso politak egiten direlako. Behin, familia bateko hiru belaunaldi elkartu ziren kontzertu batean, aitona, ama eta bi bilobak, hunkigarria izan zen".

**Maiatzaren 20ra arteko epea**

Orain, bideo-dei bidez ari dira klaseak ematen, eta ilusio gutxiarekin zeuden ikasle asko "suspertu" egin dira berriro.

Hala, suspertu diren horiek maiatzaren 20ra arteko epea dute bideoa bidaltzeko. Gero, esan moduan, bideo horiek guztiak bideo bakarrean batuko dituzte eta GOIENAKO euskarri ezberdinetan egongo da ikusentzuteko aukera, *Goiena.eus* webgunean eta Goiena telebistan, esaterako.

## Solasaldiak eta ekitaldiak online egiten ari dira Udal Bibliotekan

Literatura solasaldiak ekainaren 10ean bukatuko dituzte eta 'Udaberriko ostegunERO' zikloa, maiatzaren 28an

**E.A. ARRASATE**

Martxoan, konfinamendua hasiarekin batera, bertan behera geratu ziren Udal Bibliotekak antolaturiko hilabete hartako literatura solasaldiak. "Aste Santuan, horri buelta bat ematen hasi ginen, eta, denbora luzerako kontua zenez, online egitea erabaki genuen", azaldu du Saioa Ojanguren, liburutegiko langileak.

Hala, aurreko astean egin zuten lehen saioa, euskarazkoa, Anjel Lertxundirekin. "Sekula egin bako esperientzia izan zen, berria, baina oso ondo irten zen". Aste honetan bigarrena egin dute, gaztelarazkoa, Cristina Morato idazlearen *Cautiva en Arabia* liburuan oinarrituta.

Azken bi saioak ekainean egingo dituzte. Euskarazkoa hilaren 4an izango da. Pio Perez Aldasoren *Joxe Zapirainen bertso-*

*malkoak* liburua izango dute berbagai, eta idazlea bera ere konektatuko da saiora. Gaztelarazkoa hilaren 10ean egingo dute –Italo Calvino idazlearen *Las ciudades invisibles* liburuarekin–. Solasaldien koordinatzaileak Alex Gurrutxaga eta Juan Ibarrrondo dira.

**Bi saio zikloa bukatzeko**

Bestetik, *Udaberriko ostegunERO* zikloaren baitan, hilaren 21ean eta 28an egingo dituzte azkenengo bi saioak.

21ean, Maite Frankok bi ipuin kontatuko ditu, 7 urtetik gorako haurrentzako: *Bitxia* eta *Txakur gaua*. Adin guztientzako, berriz, Shakti Olaizolak *Irakurritz* saioa eskainiko du. Kontortsioa, oreka eta dantza irakurketarekin batuko dira zirku-antzerki ikusizun horretan; familian edo bakarka ikusteko aproposa.

## 136 lan aurkeztu dituzte aurten AEDren Literatura Lehiaketara

Ekainaren 11n egingo dute sari banaketa, Kulturaten, eta idazle gonbidatua Jon Maia bertsolaria izango da

**E.A. ARRASATE**

Egoera berezia izanik, "beldur apur bat" bazuten antolatzaileek parte-hartzeari dagokionez, Itxaro Artolak azaldu duenez. "Normalean, nahiko erabakigarria izaten delako irakasleek ikastetxeetan parte hartzea animatzea, eta, aurten etxetik ari direnez, beldur hori geneukan. Baina kopuru orokorra mantendu egin da eta pozik gaude", dio.

Izan ere, 136 lan aurkeztu dituzte guztira. "Iaz baino gutxiago, 184 izan zirelako, baina egia da iaz parte-hartzea asko igo zela". Hala, aurreko urteetako kopuruaren bueltan dago aurtengoa ere. "Beraz, lehiaketaren dinamika mantendu ahal izango dugu, genero guztietan aurkeztu dituztelako lanak".

Narrazioa izan da, "alde handiarekin", nabarmendu den generoa eta poesian ere lan gehia-

go aurkeztu dituzte aurten. Kontrara, bertso-paperak izan dira parte-hartze baxuena izan dutenak. "Bertsoak, normalean, ikastetxeetan asko lantzen dira, eta hori nabaritu egin da aurten".

**Ekitaldian, saridunak bakarrik**

Sari banaketa ekainaren 11n egingo dute, Kulturaten. "Ez dakigu ze baldintzatan egin ahalgo dugun, baina, momentuz, hasierako planteamendua mantenduko dugu. Hori bai, ekitaldi berezia egin beharko dugu, saridunekin bakarrik. Normalean, saridunen inguruko jende asko gerturatzen da eta aretoa bete egiten da. Aurten zaila izango da hori", dio Artolak.

Idazle gonbidatua Jon Maia bertsolaria izango da. Hala ere, oraindik ez dakite hitzaldi edo solasaldi formatuan egingo duten haren tartea.

# "Herrian positibo eman zutenak osatu egin dira"

**AITOR MONTES** ARAMAIOKO MEDIKUA

Populazio dentsitate txikiko herria izateak ere laguntzen du, eta pozik dago gaitzak edo haren mehatxuak Aramaion izan duen bilakaerarekin; baina adi jarraitu behar da

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Gaur egun, lasaiago, baina kontsulta askoko egunak pasa ditu medikuak.

**Zer moduz, Aitor?**

[Barre] Zer moduz? Ea, bada: estresatuta eta apur bat... Guztiz aldatu da lan egiteko era eta antolakuntza, eta ez da erraza. Koronabirusa dela eta, askoz hobeto; martxo erdialdera kristorena izan zen, kasu susmagarri asko, arnas bideetako sintomak, jendea ezularekin, sukarrarekin... Konfinamendua hasi zenetik, hobeto. Hasieran, bat-batean, gorakada handia egon zen; gero, hoge kasu inguru susmagarriak; hurrengo astean, sei-zazpi; gero, bi; eta harrezkerorero, zero. Eta, zentzu horretan, oso ondo. Jarraitzen dugu testak eta probak egiten, susmoa dagoenean, eta denak dira negatiboak. Astiro-astiro, baina behe-rantz doa.

**Testak bertan egiten dituzue?**

Ez. Hemen ez dugu hainbeste baliabide. Pentsa behar duzu arriskua dela pazienteek koronabirusa hartzea, edo baita ere langileok. Beraz, egin behar dena da zentralizatu. Non zentralizatu da, batez ere? Arrasaten. Duzu leku bat horretarako egokitu dena, eta, horrela, murrizten duzu asko pazienteen



Aitor Montes. GOIENA

arriskua, han egoten direlako, bakarrik, testa egitera doazena, ez beste pazienteak. Arriskua asko murrizten da horrela.

**Baina hasierako jende-olde horri buruz zeniharduean, Aramaio kontsultari buruz zeniharduen, ezta?**

Bai. Itzela izan zen. Orduan ez genuen ia-ia testak egiteko aukerarik, eta jendea irisan zitzaien etxean egoteko. Askotarikoak ziren sintomak: batzuk sukarrarekin, beste batzuk ezularekin; batzuk ondo, beste batzuk okerrago... baina denak osatu ziren. Nik dakidala, lau testek eman

zuten positibo; gehiago egin dira, baina negatibo eman dute, eta, zentzu horretan, ondo. Eta positibo eman zutenak osatu dira. Emaitzak oso onak izan dira hemen; agian, herri txikia delako.

**Zenbat test egingo ziren Aramaion?** Ez ditut zenbatu. Baina lau positiboek gain, izango dira beste hamar bat.

**Ezjakintasunak, beldurak... ere eramango zuen jendea kontsultara, nolabaiteko hipokondriarekin edo...**

Apur bat bai, baina ez pentsa. Jendea zentzuduna da; ez datoz

kontsultara sukarrak ez badago, telefonoz deitzen dute. Hasieran, ez zen hainbesterako; orain, agian, badago kezka hori, eta jendea ikaratu egiten da; adibidez, albisteetan agertu da berriki Aramaion positibo bat egon dela, eta jendea Whatsappez eta telefonoz, arduratuta eta kezkatuta: "Zer gertatu da, itzuli egin da koronabirusa Aramaioa?". Beno, positiboa da, baina adierazten duena antigorputzak garatu dituela; duela hilabete pasatutako koronabirus bat. Etorriko da berriro? Bada, baliteke. Jendea lanera itzuli da, Gasteiza, Arrasatera... ere bai; jendea gero eta gehiago egongo da katean, eta pentsatzekoa da tarteka harrapatuko duela baten batek. Gaietan egon behar dugu. Baina, esandakoa, jendea zentzuduna da, eta sukarrarekin edo klinika susmagarria denean, abisatzen gaitu.

**Lehenengo erantzunean estresa aipatu didazu. Zuen lanean nola eragin du krisi honek?**

Aramaio, kontsulta aldetik, beti izan da oso leku lasaia. Baina, oraingoan, izan ditugu egun batean 30etik gora telefono dei eta kontsulta; hori oso arraroa da; neguan, tira, baina udaberrian oso ezohikoa da. Telefono bidezko kontsultak, gainera, askoz zailagoak dira; zeren ea nola azaltzen dizun paziente batek telefono bidez zer gertatzen zaion; zailagoa da, denbora gehiago eskatzen du, jendeak kontrakoa pentsa dezakeen arren.

**Gainerako patologiei dagokienez, igarri da jendeak ez duela hain erraz jo kontsultara? Esanaz: "Hau pasatzen denean joango naiz, joatekotan"; larritasun gutxiko kasuetan, behintzat.**

Bai. Jendea zentzuduna da, eta itxaron badezake, ez du presarik.

**Zuzena da, beraz, jarrera hori, betiere, osasuna arriskuan jartzen ez bada.**

Hori da. Eta koronabirusa kontrolatzen ari bagara edo kontrolatuko badugu, ez da tratamendurik daukagulako, edo txertoa dugulako; jendeagatik da, jendea etxean geratu delako, halako neurriak hartu direlako eta jendeak erantzukizuna erakutsi duelako, eta zentzua.

**Aramaion positibo bakarra zegoenean, irratian esan zenuen hoge inguru izan zitezkeela herrian, hark izandako harremanak-eta kontuan izanda...**

Baina gero, zalantza. Zeren lau positibo konfirmatu dira; baina baziren beste batzuk oso susmagarriak eta guk ziurtzat jotzen genituenak positibo, eta negatibo eman dute. Harritzekoak dira azken ikerketak: Hospital Clinice-en, Bartzelonan, osasun langileen arteko prebalentzia oso baxua izan da, %11,2, oso leku gogor batean, non osasun langileak birusaren ondoan ari diren, elkarbizitzen. Beraz, ez dakit, izan zitezkeen gehiago, edo, agian, ez.

**Etorrizuzena begira, adi jarraitu beharko dugu...**

Bai. Eta erantzukizun kolektiboa da. Jendeak har ditzala neurriak. Zergatik ez joan lagun batekin taberna batera kafe bat hartzera? Bada, bai. Baina ikusiz gero jende pila bat dagoela, aldamekora joan. Eskuak garbitu, behin eta berriro. Eta leku itxi eta estuetan, musukoa jantzi.

**"LAU POSITIBOZ GAIN, BESTE HAMAR BAT TEST EGINGO ZITZAIZKIEN ARAMAIOARREI"**

## Okindegian soilik terraza


Aramaioko tabernek ez irekitzea erabaki dute, oraingoan. Okindegia da astelehenaz geroztik kafeak eta edariak ere ateratzen dituen. Argazkian ikus daitekeenez, jendeak errespetatzen du elkarren arteko distantzia; hala dela baieztatu du bertako beharginak: "Bestela, irten eta ordena jarri". Eguraldia hobetzean, mahaiak jarriko dituzte berriro.



GOIENA

## Mendiko eta natura argazkien lehiaketa abiarazi du Orixolek

Konfinamendu-arintze egoera honetako argazkiak jaso nahi dituzte, ezarritako neurriak errespetatuz ateratakoak. Kirol ekipamendutarako 30 eta 50 euroko bonuak izango dira sarien artean, eta herriko produktuekin otzarak. Bakoitzak bi argazki aurkez ditzake, ekainaren 1era arte: [orixolme@hotmail.com](mailto:orixolme@hotmail.com) - izen-abizenak eta telefonoa jarri-.



2019. urte amaierako irteera. ORIXOL

# Merkataritza pizteko ia 1.000 bonu hilerro

Herriko denda eta ostalaritza zerbitzuetan gastatzeko bonuak jarriko ditu salgai Udalak datorren astelehenean, eta Arkupera jo beharko da erostera; hamarrek taloitegiak izango dira eta horien balioa, 50 euro batzuek eta 5 euro bestek

## Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko dendetan, ostalaritzan eta negozio txikietan kontsumoa sustatzeko helburua duen bonu kanpaina jarri du abian Udalak. Maiatzaren 18an, astelehena, hasi eta abendura bitartean 950 bonu jarriko ditu herritarren eskura hilerro –abuztuan izan ezik–.

## Bi taloitegi mota

Arkupera jo beharko dute herritarrek bonuak erostera –09:00-13:00 eta 17:00-20:00–. Bi sorta edo taloitegi mota egongo dira eskuragai: batetik, 5 euroko hamar bonu dituztenak, eta herritarrek 35 euro ordainduko dute hori –Udalak 15 euro jarrita–; eta bestetik, 50 zentimoko hamar bonu dituztenak. Azken horiek 16 urtetik beherakoendako izango dira eta 3,5 euroekin erosi ahal izango dute. Guztira, 650 taloitegi aterako dituzte 50 eurokoak, eta 300, 5 eurokoak.

Asmoa da hilabete hasieran jartzea salgai. Lehenengo hamabostaldian, pertsona bakoitzeko taloitegi bateko muga ezarriko dute; bigarren hamabostalditik aurrera eta soberan geratzen badira, gehiago erosteko aukera egongo da. Bonuen iraungitze epea, osterara, bi hilabetekoa izango da.

Ekimena herriko negozio guztiei dagoela bideratuta adierazi dute Udaletik: arropa dendak, ile-apaindegiak, tabernak, jate-txeak, gozoki dendak, fisioterapia zentroak, akademiak.... Eta establezimenduak izango dira bonu-sistema horretara doan atxiki ahal izango direnak.

## Tokiko kontsumoa "bultzatzea"

*Hemengaz!* ekimenaren baitako kanpaina da abian jarritakoa, eta "230.000 euro inguruko eragin ekonomikoa sortzea" aurreikusiten dute. Udalak bonu horien %30 diruz lagunduko du, 70.000 euro inguru jarrita. Osasun krisiak eragindako geldialdiaren ostean,



Datorren astean eskuragai izango diren bonuak. M.A.



Ainhoa Cabero zinegotzia Belar Metako langileei maskarak banatzen. A.D.

## 'Hemengaz!' maskarak banatzen

Herriko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuetan *Hemengaz!* lelodun maskarak banatu dituzte egunotan udal ordezkariak. Gu Haziak Gara elkarteak zazpi lagunek josi dituzte, 200 guztira, eta kotoi organikoak oihala erabili dute, "dagokion ziurtagiriarekin".

jarduera ekonomikoa suspertze-ko martxan jarritako neurrieta-ko bat da, hain zuzen ere; Unai Elkoro alkateak "lehentasuneko" jo du tokiko kontsumoa bultzatzea eta dinamizatzea: "Pultsu ekonomikoa suspertu

eta gure merkataritza, ostalari-tza eta zerbitzuei laguntzeko".

Udalak beste neurri batzuk ere hartu ditu, tasak murriztu esaterako. Bestetik, kaleko giroa berpizteko 20.000 euro gehiago bideratuko dituela iragarri du.



Eider Otxoa dolu-laguna, bulegoan. MIRARI ALTUBE

## Agurtzeak duen garrantzia agerian utzi du COVID-19 gaitzak

Eider Otxoa dolu-lagun aretxabaletarraren esanetan, oso garrantzitsua da agur esateko egiten den erritua

## M.A. ARETXABALETA

Astean zabaldu dituzte erlijio kulturako erabiltzen diren guneak eta Aretxabaletako parro- kian ere hasi dira mezak esaten. Atzotik, esaterako, Santa Ritaren omenezko bederatziurrena egi- ten dabilta.

Hiletarik, osterara, ez dute egin oraindik. "Martxoaren 14az geroztik hil direnen hiletak zelan egin ez dugu erabaki. Izan ere, osasun protokoloa ezingo genu- ke bete", azaldu du Andoni Illa- rramendi parrokoak.

## Errituaren garrantzia

Eider Otxoa dolu-lagunak agur esateko egiten den errituaren garrantzia azpimarratu du: "Bat- etik, maite dugun eta joan den pertsona hori gogora ekartzen da, goraipatu egiten da, eta, bes- tetik, haren gertukoena mina batzen da, babesa ematen diegu. Hor dago errituaren garrantzia".

Ildo horretatik, azken boronda- teen dokumentua nabarmendu du: "Medikuarenean egin daite- ke eta hor jasota geratzen da norberak zelako hileta gurako lukeen. Horrek asko errazten dio familiari gogorra izaten den une hori".

## Trauma gainditzeko terapia

COVID-19 gaitzak bizipen latzak utzi dituela adierazi du Otxoak, eta horien artean azpimarratu ditu gaixoeekin lanean jardun dutenena eta senideren bat gal- du dutenena: "Estresaren osteko trauma dute, eta izoztuta egon dira, eta poliki-poliki kontzien- tzia hartzen hasi eta gainera etorri zaie guztia". Laguntza eskatzea lehen pausoa ematea dela gaineratu du, eta terapia bidez lantzen dihardute dolu- lagunek halako egoerak: "Badu- te konponbidea eta hori terapia- rekin landu behar da".

## Bideo-dei bidezko trebakuntza jarri dute abian KZgunean

Zuzeneko formakuntza saioak antolatu dituzte KZgunean, tal- de txikitan elkartuta –lau eta sei artean–, eta hori bideratzen dute bideo-deiak eginda. Horre- tarako aurrez egin behar da eskaera; hona hemen bideak: 945 016 100 edo [kzc@kzgunea.net](mailto:kzc@kzgunea.net). Argibide guztiak –gaiak, ordutegia, hizkuntza...– emango dizkiete interesa dutenei.



Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

# "Herritarrekin gertuko tratua dut gustuko"

**KEVIN SANTIAGO BLANCO** UDALTZAIN LAGUNTZAILEA

Galdakoztarra da eta Aretxabaletako udaltzainen taldea osatuko du praktikaldia bukatzen duenean, udazkenen inguruan; bien bitartean laguntzen eta ikasten dihardu

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Enpresa kudeaketa ikasketak egin zituen eta marketin eta giza baliabideetan jantzi zen. Auditore lanetan jardun zuen Iberdrolan ia hiru urtez, baina, gustuko ez, eta polizia izateko oposizioak gertatu zituen. Alarma egoera ezarri zenean, Arkauten zegoen prestakuntza jasotzen, eta, hori aldi baterako eten behar izan zuten, polizia zerbitzuak indartzera bidali zuten, beste hainbat legez. Martxoaren 23an iritsi zen Aretxabaletara, itxialdi bete-betean, eta ordutik dabil ikasten eta eguneroko lanetan laguntzen.

**Zeintzuk izan dira zure eginbeharrak Aretxabaletara iritsi zarenean?**

Praktikaldian nago, baina edozein udaltzainek dituen eginbeharrak betetzen nabil: herriko gorabeherak zaindu, osasun neurriak betetzen direla adi egon, herritarrei arauen berri eman, eta, orokorrean, lagundu. Izan ere, arauak egun batetik bestera aldatzen dituzte, eta, askotan, herritarrak galduta daude, normala den moduan.

**Esku-hartze asko egin behar izan dituzue egunotan?**

Bai, noski. Isun asko jarri beharrik ez dugu izan, herritarrek, orokorrean, errespetatzen dituztelako ezarritako arauak, baina



Kevin Santiago, udaletxean, udaltzainek duten bulegoan. MIRARI ALTUBE

**"LEHENENGOTIK EZ DAGO ISUNIK JARRI BEHARRIK, ABISATU ETA ULERTARAZTEA DA KONTUA"**

batzuk bai. Burugorrorak edonon daude eta ez da adin multzo baten kontua, baina, une honetan, arauak malgutzen hasi direnean, gazteak gehiago lasaitu direla esango nuke eta neurriak gogorarazi egin behar dizkiegu.

**Aretxabaletarrek zelan hartu zaituzte?**

Oso ondo, oso pozik nabil. Sorpresa handia hartu nuen Gipuzkoara etorri eta bizkaieraz egiten duzuela berba entzundakoan... Ez nuen halakorik espero! Oso jatorrak eta eskuzabalak izan dira nirekin herritarrak, eta oso gustura sentitu naiz lehen hila-beteotan.

**Ikusmina piztu duzu; sentitu dituzu begiradak balkoietatik?**

Bai; gainera, galdera asko egin dizkidate kalean: "Zu zara bizkaitarra? Seguru asko Athletic-

zalea izango zara, jo...". Ez dut kezarik, oso ondo hartu naute.

**Zerbaitek eman dizu atentzia?**

Aretxabaleta inguruak, ederra da gero! Urkulu urtegia eta berreri-auzoak: Galartza... Naturazalea naiz, mendizalea ere bai, eta inguru zoragarria daukazue.

**Aretxabaletaren aldean handia da Galdakao, a ze saltoa!**

Bai, bai, baina neure hautua izan da hona etortzea. Herri txikiak, euskaldunak eta lasaiak ditut gustuko eta nituen aukeren artean hautatu nuen. Herri txikietan hurbileko tratua dago herritarrekin; hiriburuetan, ostera, hotzagoa izaten da tratua hori. Nik laguntzea dut gustuko eta horretarako harreman estua eta gertukoa izatea komeni da.

**Ritxi Briñasekin osatu duzu bikote eta bera dabil erakusten; gomen-diorik eman dizu?**

Bai, bera dut tutore eta aholku asko eman dizkit. Baina badago bat oso garrantzitsua, aurretik ere banekiena baina orain bizi-tzen ari naizena, eta da halako herri txikietan "ezkerreko eskuarekin" jokatu behar dela. Hau da, arauak betearazterakoan ez dagoela hain zorrotza izan beharrik; inposatu egin behar-rean herritarrei azaldu egin behar zaizkie kontuak, eta ulertarazi. Lehenengotik ez dago isunik jarri beharrik, abisuak eman eta erakutsi zein arau-hauste edo kalte egiten dabilen, horrela ikasi egingo dute eta. Hori dela modurik onena lan egiteko uste dut.

**Noiz itzuliko zara Arkautera?**

Laster hasiko dira prestakuntzak Arkauten, baina ni iraila arte ez naiz joango, talde txiki-txiki itzuliko garelako. Trebakuntza bukatzeko geratzen zaizkidan bi hilabeteak beteko ditut orduan, eta ondoren bueltan izango naiz.

## Hainbat tasa egokitu dituzte merkatari eta ostalarientzat

Zaborrarenak eta urarenak beherapenak izango dituzte eta terrazena kendu egin dute

**M.A.** ARETXABAETA

Konfinamendu egoeran itxi behar-rean izan diren jarduera ekonomikoei laguntzeko asmoarekin, Udalak hiru tasa aldatzea onartu zuen eguaztenean egindako ohiko osoko bilkuran.

Zaborrari dagokionez, hiru-hileko kuota heren batean jarri dute. Horrela, geratzen diren hiru hiruhilekoetan bakarra kobratuko diete nahiz eta hiru zatitan banatuta izan.

Uraren kasuan, komertzio gehienetan ur kontsumoa oso baxua dela zioen Unai Elkoro alkateak; horregatik, minimoa 30 metro kubiko izan behar-rean bat izatea onartu zuten. Ostalaritza zerbitzuei dagokienez ere minimoa metro kubiko bat izango da. Alkateak zera argitu zuen: "Badaude kontsumo handia dutenak, eta ura debalde uztea ez da komenigarria ikusi, ekonomikoki laguntzeak ez du izan behar ur kontsumoa ez zaintzeko aitzakia". Etxebizitzetara ezarritako prezioa izango dute merkatarietara zein ostalariek.

Hirugarrenik, terrazan tasa bertan behera uztea erabaki zuten hemendik eta urtea bukatu artean. Udaltzako kide guztiak bat etorri ziren aldaketak onartzerakoan.



ATE IREKIAK ONLINE

MAIATZAK 20

Goi eta Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Eman izena: [www.ale-aretxabaleta.eus](http://www.ale-aretxabaleta.eus)




688 304 816

# Denboraldiko helburua beteta, Euskal Ligara

Sailkapeneko buru zen UDAko taldea, eta Gipuzkoako Futbol Federazioak jakinarazi die Euskal Ligan jokatu dutela. Entrenatzaile lanetan aritu den Unai Calzon eta taldeko kapitaina izan den Haritz Diaz de Guereñu pozik agertu dira igoyerarekin

## Maialen Regueiro ARETXABALETA

Joan den asteburuan jakin zuten bailarako futbol taldeek Gipuzkoako Futbol Federazioak denboraldi honetarako hartutako erabakia, eta, horren ondorioz, UDAko ohorezko gazteek Euskal Ligan jokatzeko aukera izango dute 2020-2021 denboraldian.

Talde aretxabaletarrari sei partidu geratzen zitzaizkion denboraldia amaitzeko, eta, 64 punturekin, sailkapeneko buru zen.

## Igoerarekin "pozik"

Unai Calzon ohorezko gazteen entrenatzailea eta Haritz Diaz de Guereñu, taldeko kapitaina, pozik azaldu dira Federazioak emandako albistearekin. Calzonek aitortu du, gainera, egoera "kaskar" honetako "albiste one-takoa" izan dela eta taldeak horrelako zerbait espero zuela, datuak onak direlako. Hala ere, albistea jakin bitartean taldeak egoera ezjakintasunez zein beldurrez bizi izan du, Federazioak zenbait aukera zituelako esku artean.

## Denboraldiaren bilakaera

Ohorezko gazteen denboraldia-ri %20 geratzen zitzaion, sei jardunaldi, eta aretxabaletarrak sailkapeneko buru ziren, 64 punturekin. Diaz de Guereñuk aitortu du denboraldi hasieran taldeak finkatutako helburua Euskal Ligara igotzea zela. Calzonek, bestalde, 2019-2020a denboraldi borobila izan delakoan dago: "Hasieratik dena oso ondo irten zaigu eta lesioekin ere zortea izan dugu. Hala ere, denboraldi zorrotza izan da eta lan asko egin dugu".

Taldearen jarrerari dagokionez, entrenatzaileak honela deskribatu du: "Taldea sendoa izan da. Izan ere, taldea osatzen duten jokalariek langileak, lehiatsuak eta bihotz onekoak dira. Beraz, hiru ezaugarriak



Ohorezko jubenilen taldea, Mondraren aurkako derbia irabazi izana ospatzen. UDA

## CALZON ETA DIAZ DE GUEREÑU EZ DIRA GAZTEEN TALDEAN ARITUKO DATORREN DENBORALDIAN

elkartuta, talde oso ona sortu dute. Azken batean, futbola maitatzen duen lagun talde bat da eta horrek hein batean ere eragina izan du izandako denboraldian". Diaz de Guereñuk, bestalde, azaldu du taldeak hasieratik zekiela aurtengoa beraien urtea izango zela: "Berdegunean izugarriko taldea izan garela erakutsi dugu eta berdegunetik kanpo ere talde bat izan gara, eta horrek asko eragiten du". Hala ere, jokalariek eskoriatzarrak uste du mailaz igo izana azken hiru urteetan egindako lanari esker izan dela: "Duela hiru urte hasi ginen talde hau osatzen, eta mailaz igotzea epe horretan egindako lanaren azken emaitza izan da". Horrekin batera, UDAko kapitainak egunerokotasuneko lanean jarri du azpimarra, eta taldeko kide guztiek erakutsi-

tako konpromisoa, ilusioa eta esfortzua goraiatu ditu, horiek barik ezinezkoa izango zelako aurrera jarraitzea, ezta mailaz igotzea ere.

## Euskal Ligari begira

Nahiz eta Gipuzkoako Futbol Federazioak ez dituen datorren denboraldirako baldintzak zehaztu, ohorezko gazteak jakitun dira Euskal Liga aurtengoa baino maila indartsuagoa izango dela. Horregatik, Calzonek adierazi du garrantzitsua dela jokalariek azken urteetan erakutsi duten maila mantentzea, eta,aldi berean, maila ezberdina izango den kontziente izatea.

Datorren denboraldian gainera, jokalariek osatuko dute taldea. Izan ere, beheko mailetatik hainbat jokalarik igoko dira eta beste hainbatek goiko kategorietan jokatzeko aukera izango dute. Azken hori da, hain zuzen, Diaz de Guereñuren kasua, eta, adinak baldintzatuta, 2020-2021 denboraldian seniorrekin arituko da. Calzonek gazteen entrenatzaile gisa ez duela jarraituko ere aitortu du, UDAko beste talde bat gidatzen arituko dela argudiatuz.



Garikoitz Garciaen koinatua eta arreba. ARETXABALETAKO SARE

## Gari Garcia eskertuta herritarrek adierazitako babesarekin

Aretxabaletako Sarek '#GariAtxabaltara' ekimena jarri zuen abian, preso aretxabaletarrari babesa eskaintzeko

## M.R. ARETXABALETA

*Etiketetik etxera #GariAtxabaltara* ekimena jarri zuen abian Aretxabaletako Sarek, Garikoitz Garcia Arrieta preso aretxabaletarrari eta haren senideei babesa eskaintzeko asmoarekin. Lelo horrekin ateratako argazkiak eskatu zituzten, baita asetebelean ehun jaso ere; horiek bideo bat osatu dute. Aretxabaletako Sare pozik azaldu da ekimenak izan duen harrerarekin eta eskerrak eman nahi izan dizkie parte hartu duten guztiei.

Garcia Arrieta Valentziako Picassenteko kartzelan dago, eta

familiaren eskutik jakin du ekimen honen berri, bere arreba Amaia Garcia azaldu duenez: "Askok eskertu du ekimena martxan jarri izana. Bideoa ikusteko aukerarik izan ez duen arren, guk kontatutakoarekin poztu egin da". Garciaen arreba ere eskertu du herritarren babesa eta itxialdian "jendea presoekin ahaztu ez" delakoan dago.

Garciaen espexeko egoerari dagokionez anaia moduluz aldatu dutela azaldu du; duela gutxi ospitalean izan da, eta horregatik, isolamenduan egon beharra du orain.

## GORA ETA BEHERA



## Olio hondakin poteak eta zabor poltsak kalean

Otalora kaleko bidegurutzean zaborra pilatzen dabilela salatu du herritar batek: "Egunak joan, egunak etorri, gero eta olio ontzi gehiago, makina hondatuta dagoelako. Eta paisaia hornitzeko, zabor poltsak. Uste dut pandemia honetan egoera hauek ere zaindu egin behar ditugula".

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus  
edo 688 69 00 07.





Martitzenean, Eskoriatzako Akeita tabernako terrazan zenbait herritar. IMANOL BELOKI

## Ireki edo ez, zalantzan daude ostalariak

Akeita eta Hotela taberneak ireki zituzten ateak astelehenean; Ogi Berrik, berriz, martitzenean eta eguaztenean Kokotsek. Beste guztiek, aldiz, ez dute garbi irekitzeko unea den ala ez, eta, zalantzas beteta, erabakiak hartzen joango dira egunak pasa ahala

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Lehen fasean sartuta, terrazak irekitzeko aukera izan dute hainbat tabernarik, zenbait neurri ezarrita. Mahai batetik bestera bi metroko segurtasun-distantzia utzi beharko dute, bezeroak ezingo dira tabernara sartu, zerbitzatzen duten bakoiztean eremua garbitu beharko dute, eta, horrekin batera, ko-

muna kasu berezietan soilik erabili ahal izango da.

"Eskoriatzan Akeita eta Hotela tabernak izen ziren lehenak irekitzen, astelehenean. Eta, ordutik, Ogi Berrik eta Kokotsek ere ireki dituzte ateak. Beste hainbatek, esaterako, ez dute zabaldu, oraindik goiz dela argudiatuz. Urrestilla eta Inkernu taberneak, adibidez, ez dute

uste taberna zabaltzeko garaia denik, Gobernuak ezarritako segurtasun neurri eta gomendio guztiak bermatzea zaila ikusten dutelako. Hori horrela, tabernariak eta ostalariak dituzten zalantza horiek argitzeko bilera egin dugu asteon. Tabernariak ez daukate argi zer egin, eta protokolo zehatzak eskatzen ari dira", adierazi du Nerea

## Feria egunerako ekintza xume bat egitea aztertzen ari dira

Ekainaren 6an egitekoa zen azoka bertan behera geratuta, lanean jarraitzen dute antolatzaileek


**I.B.** ESKORIATZA

Ekaineko lehenengo zapatuan, hilaren 6an zen egitekoa Eskoriatzako 24. Ferixia. Hala ere, bertan behera geratu da, segurtasun neurriak eta jende pilaketak ezin direlako bermatu.

Duela bi aste jakinarazi zieten antolatzaileek postulariei azoka bertan behera geratuko zela. Hala ere, feriaren esentzia, zergatik eta zertarako egiten den gogorazteko ekintza xume eta sinboliko bat egitea dute esku artean.

Hala adierazi du Estitxu Aguado Arizmendiko ordezkariak: "Ekainaren 6an zerbait egiteko asmoa dugu. Ez dakigu zer egingo dugun oraindik, baina guraso talde bat eratu genuen aurtengo edizioa prestatzeko, eta ideia berriak sortzen laguntzeko. Hala, beraien inplikazioa azpimarratzekoa da. Hori horrela, datorren urteko edizioa ondo prestatuta izatea ere badugu helburu. Gauzak finitzeko bilera egingo dugu gaur, eta ekintzaren bat edo beste antolatu ahala jakinaraziko dugu".


## Zein izan da zuen erabakia?



**MAITE ZUBIA**  
AKEITA TABERNAKO JABEA

### "Bezeroek errespetatu egiten dituzte arauak"

"Astelehenean ireki genuen taberna, eta, zabaldu bezain pronto, jende dezente izan genuen egun osoan zehar. Iluntzera arte, oso ondo errespetatu zituzten arauak bezeroek. Hala ere, 19:00etatik aurrera-edo kaotiko samarra izan zen egoera. Lan asko egiten ari gara egunotan. Izan ere, dena desinfektatzeak denbora eramaten du, ixtean garbiketa sakona egiten dugu... Horrez gain, komun bakarra dugu erabiltzeko prestatuta, eta errespetuz jokatzeko dute datozenek".



**OSCAR ESCRIBANO**  
INKERNU TABERNAKO KIDEA

### "Goiz da tabernako ateak irekitzeko"

"Erkartekideok itxita jarraitzearen erabakia hartzeko hainbat baldintza hartu genituen kontuan. Lehenengoa, osasunarena: langileena eta bezeroena. Zaila ikusten genuen bermatzea Gobernutik emandako segurtasun gomendio eta neurriak. Bigarrena, Udalak terrazak jartzeko egin zigun proposamenarekin ez geunden ados. Eta, hirugarrena, sarrera posibleak eta gastuen kalkuluak egin eta kostuen aldetik ez zuela merezi estimatu genuen".

Aranak, Garapen Jasangarriko teknikariak.

Batzuei ez die merezi taberna irekitzea; beste batzuek, aldiz, ez dute uste ideia ona denik, eta eguraldiak ere badu eraginik. Hala azaldu du Urrestilla tabernako Leire Errastik: "Ateak irekiz gero aste barruan ez litzake pilaketa arazorik izango, ez dut uste, baina asteburuetan nork daki... Horrekin batera, errentagarritasun zalantzak ditut, eta, erabaki barik dudan arren, astelehenean ireki nahi-ko nuke".

### Udalaren proposamena

Udalak proposamen bat egin die terraza jartzeko baimena duten ostalaritza zerbitzu guztiei, horiek espazioa handitu ahal izateko. Terraza ez duten baina jarri nahi duten negoziok, bestalde, eskaera egin ahal izango dute.

## AKEITAK, HOTELAK, OGI-BERRIK ETA KOKOTSEK IREKI DITUZTE TERRAZAK, ORAINGOZ



# "Mezu eta dei mordoa jasotzen ari naiz; jendeari gustatu zaizkio"

**KARMELO OÑATE** ILUSTRATZAILEA

Aspalditik buruan zeukan proiektu bati heldu dio eskoriatzarrak konfinamenduan, eta 'Tragedia en el Lotshe' komikia egin du, baita hainbat musikariren ilustrazioak ere

**Eneko Azurmendi** ESKORIATZA

Azken hilabete eta egunak ilustrazioaren bitartez arindu ditu Oñatek, eta beste hainbat lan egiteko denbora ere izan du.

**Konfinamenduan zer egin duzu denborari etekina ateratzeko?**

Bizikleta estatikoan asko ibili naiz, ia su eman arte; kar, kar, kar. Horrez gain, margotzeko baliatu dut denbora gehien. Aspalditik buruan nituen proiektu batzuk egiten aritu naiz, eta burua, behintzat, entretenituta izan dut. Alde horretatik, baliagarria egin zait konfinamendua, denbora libre asko eduki dudalako. Komiki bat egiteko gogoarekin nenbilen, baina ez nuen denborarik ateratzen horretarako. Orain, berriz, lortu dut egitea. Azken hilabeteetan jo eta su aritu naiz horrekin, egunean zortzi edo hamar orduz. Izan ere, bukatu gura nuen; bestela, erdizka geratzen dira lan horiek eta gero ez duzu tarterik hartzen bukatzeko.

**Tragedia en el Lhotse** komikiari buruz ari zara. Zer dela eta erabaki duzu Jerzy Kukuczka mendizaleari buruzko komikia egitea?

Mendian erreferente nagusietako bat da. Askok irakurri dut hari buruz, eta beti eduki izan dut gogoia haren historiaren bat komiki baten bitartez islatzeko. Azkenean, banekien denbora askorik eduki behar ez nuela, erabaki nuen bere azken espedizioa lantzea. Bere heriotza ekarri

zuen espedizioa, Lhotse mendia hegoaldeko igotzeko saiakeran. **Nolakoa izan da prozesua?**

Lehenik, informazioa eta dokumentazioa bildu dut. Esan moduan, asko neukan irakurrita hari buruz, baina, marrazkiak egiteko, gehiago informatu behar izan naiz. Esaterako, hileta egin zioten katedralari buruz, Katowiceko tren geltokiari buruz... Lhotse mendiaren hegoaldeko hainbat argazki ere ikusi ditut. **Orduko argazki gutxi egongo da...** Bai, argazki gutxi daude, eta zaharrak, gainera. Beraz, nik sortu dut komikia. Egon naiz begira nolako trajeak eramaten zituzten garai hartan, eta, gutxi gorabeherako ideia egin ostean, nik sortu dituz irudiak.

**Zuretzat ezohikoagoak diren lan batzuk ere egin dituzu. Musikariren erretratuak, esaterako.**

**"KUKUZCKARI BURUZ ZERBAIT EGITEKO GOGOA NEUKAN"**

**"RIP NIRE TALDE ERREFERENTEETAKO BAT IZAN DA BETI"**

**"BETI PREST EGON BEHAR DUGU HERRIKO EKINTZETARAKO"**

Bai, baina horiek lotura zuzena dute komikiarekin. Izan ere, burua gainezka neukan hainbeste mendi konturekin, ordu asko pasatu ditut mendiak marrazten eta margotzen, eta deskonektatzeko modu bat behar nuen. Egia da aurrez inoiz marraztu barik nengoela halakorik, normalean mendiari lotutako gauzak egin ohi ditudalako.

**Ze musikari ilustratu dituzu?** Barricada taldeko *El Drogas*, RIPeko *Portu* eta The Interrumpers eta The Baboon Show taldeak. Gustuko ditudan taldeak dira. RIP nire talde erreferenteetako bat izan da beti, eta *Portu* ere ezagutzen nuen, nire klasekide izan zen. Andoaingo kontzertu bateko argazki batean oinarritu naiz ilustrazioa egiteko, zurbeltzean dagoena eta bereizmen eskasa zeukana. Hori kontuan hartuta, oso polita geratu da. **Atxorrotx mendiko egunerako ere hiru marrazki egin dituzu.**

Komentatu zidaten zerbaitek berezia egin gura zutela, eta herriko ekintzetarako beti egon behar dugu prest. Atxorrotx mendiaren hiru modelo egin nituen, umeek margotzeko. Egun polita izan zen, eta jende asko ibili zen margotzen.


**Nolako erantzuna izan dute konfinamenduan egindako lan hauek?** Jarraipen handia eduki dute. Mezu eta dei mordoa bat jasotzen ari naiz. Jendeari gustatu zaizkiola dirudi; hori pozgarria da.



Karmelo Oñate, bere ilustrazioetako bat atzean duela, etxean. K.O.



Komikiaren azala. K.O.



Portu-ren ilustrazioa. K.O.



Atxorrotx mendiko egunerako egindako marrazkietako bat. K.O.



# 'Kortazar' lana garaile playback lehiaketan

Atxorrotx Kultura Elkarteko playback txapelketan hamar lan aurkeztu dira, eta, aurreikusi baino lan gehiago jasota, parte-hartzearekin "pozik" agertu dira antolatzaileak. Hori horrela, talde guztiek jasoko dute egindako lanagatik saria

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkarteko antolatutako playback txapelketan hamar lan aurkeztu dira, eta epaimahaiak puntu gehien eman dizkion ikus-entzunezkoa Kortazar taldeak egindakoa izan da. Bigarren sailkatua, aldiz, Yankee Go Home taldeak egindako lana izan da eta hirugarren sailkatua, berriz, Buruz Behera taldearen bideoa –lan guztiak *Goiena.eus* helbidean ikusgai–.

**Uste baino lan gehiago**

Antolatzaileak "pozik" agertu dira herritarren parte hartzearekin: "Ez genuen uste hainbeste lan jasoko genituenik, eta sorpresaz jaso dugu. Gainera, jende ezberdina agertzen da lanetan: haurrak, gazteak, familiak elkarrekin, kuadrillak... Beraz, primeran", adierazi du Juan Luis Zubizarretak, antolakuntza taldeko kide eta epaimahaikideak. Bittor Gurrutxaga *Biki*-k, Gema Galdonak, Borja Garridok,



Kortazar taldearen lanaren une bat.

Edorta Barandiaranek eta Juan Luis Zubizarretak osatu dute epaimahaia, eta eszenaratzea, koreografia eta bestelako aspektuak hartu dituzte kontuan puntuazioa emateko garaian. "Epaimahaia osatu dugun bost kideok

gure puntuazio pertsonala eman dugu, besteei jakin barik, eta gero, puntuazio guztiak batu ditugu".

**Herriko dendetan gastatzeko**

Podiuma osatu dutenen artean, lehenengo sailkatuak 150 euro jasoko ditu; bigarren sailkatuak, 100 euro; eta hirugarrenak, 50 euro. Eta diru hori Axtroki Merkataritza Elkarteko dendetan gastatzeko izango da. Hala, hasierako oinarrietan markatu moduan, herriko komertzioari bultzada emateko helburuari jarraituz.

**Parte-hartzaile guztiei saria**

Horrekin batera, Inkernu tabernak itxita jarraitzen duen arren, Atxorrotx Kultura Elkartearen playback txapelketan parte hartu duten talde guztiek –lehen hiru sailkatuak izan ezik– 25 euroko bonua jasoko dute eta diru hori Inkernu tabernan bertan gastatzeko izango da.



I.B.


## Ereindakoak galduta

Joan den asteburuko euriteek eta kazkabarrak zenbait kalte eragin dizkiete herriko baseritarrei eta ortuzainei –argazkian, ortu baten alboan aska bat urez gainezka–. Izan ere, piperrak eta patatak landatzeko garaia da orain, eta asteburu aurretik landatutako guztia galdu dute zenbaitek. Hori horrela, lurra berriz mugitu eta osterara landatu beharko dituzte.

## Bidegorria itxita, zenbait artapen lan egiteko

Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait hobekuntza lan egingo ditu Eskoriatza eta Aretxabaleta bitarteko zatian, eta atzotik itxita dago bidea. Hori dela eta, hainbat egunetan itxita egongo da bidegorria, lanak segurtasun baldintzetan egin ahal izateko.

Bidegorria maiatzaren 21era arte egongo da itxita, 08:00etatik 19:00etara bitartean. "Orain dela gutxi arte, derrigorrezkoak ez ziren lanak eten ziren arlo guztietan, pandemia gelditzeko. Aste honetan, hainbat aktibitate sektoreak lanera bueltatu dira; horregatik, mantentze-lanak egingo dira", adierazi du Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburu Josu Ezkurdiak.



Pagadi, Otsoa eta Gurrutxaga, *Etxe txiki, infernu handi* saioan, berriketan. EITB

## Umorez erantzun die Otsoak Pagadiri eta Gurrutxagari

Leintz Gatzagan koronabirus kasurik ez egotearen arrazoi edo sekretua bertako gatza dela adierazi du

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Eugenio Otsoa *Gerra* alkateak bideo-deia izan zuen joan den astean Zuhaitz Gurrutxagarekin eta Mikel Pagadirekin EITBko *Etxe txiki, infernu handi* programarako. Umorezko programa izanda, Otsoak adierazi zuen Leintz Gatzagan koronabirus kasurik ez egotearen arrazoia mendiko gatza dela.

"Leintz Gatzagako gatzez beteta gaude gatzagarrok. Bertako ortuetan ditugun produktuei hemengo gatza botatzean dago sekretua. Hala, gure gatzak dituen mineral guztiek –iodoa, sodioa,

litioa, magnesioa– eta bestelakoek immune egin gaituzte eta esango nuke horregatik uxatu dugu la koronabirusa. Umorez hitz egin arren, Leintz Gatzagako gatza ekoizten jarraitu dugu, baina zailtasunak ere badaude hau saltzeko. Beraz, jendea animatu gurako nuke bertako gatza erostera".

**Domekan mezak hasiko dira**

Hori horrela, "koronabirusa herrian ez sartzeko errezatuko dugu domeka honetan. Izan ere, Dorletako Santutegian, 12:30ean izango da meza".



GUREL GURASO ELKARTEA

## Herria apaintzeko modu berria

Astean zehar herria apaintzen izan dira gatzagarrok, eta modu bitxian egin dute, gainera. Izan ere, loreontziak erabiliz pertsonaia dibertigarriak sortu dituzte. Gurel Guraso Elkarteko kide batzuen ideia izan da eta konfinamendu egoera aurretik hasi ziren horiek egiten, eta orain denbora izanda, hainbat egin dituzte –*Goiena.eus*-en argazki galeria ikusgai–.

**Eneko Azkarate Laspiur** BERGARA

Lasaitasun mezua bidali nahi izan du Bergarako alkateak: "Udalak bere baliabideak jarriko ditu bergararren ongizatea bermatzeko".

**Debagoieneko beste herriekin alderatuta, Bergaran ez du horren gogor jo koronabirusak. Zergatik?**

Faktore askok edukiko zuten zerikusia. Dena den, hartutako neurriak garaiz hartu izanak ere eragina izango zuen. Tabernari eta merkatari askok beren kabuz erabaki zuten ixtea, eta, Udaletik, zabalik zeuden apurrei ixteko gomendioa egin genien inongo agindurik eman aurretik. Inguruko herrien artean, desinfekzio lanetan hasten ere lehen-goetakoa izan zen Bergara.

**Mizpirualde zaharren egoitzak utsi egin dio, oraingoz.**

Hemen ere denborarekin hasi ziren bisitak mugatzen, kanpo bisitendako gutzitx izen arte. Babes neurriek emaitza ona izan dute, eta langileen konpromisoak ahalbidetu du hori.

**Laguntza sarea jarri zenuten abian krisiak eztanda egin eta berehala. Zenbat lagun ari dira eta zenbat artapen egin dituzte?**

Lanean jarraitzen du, hasieran baino modu apalagoan bada ere. 70 pertsona ingururi boluntario bat izendatu zaie eta intentsitate ezberdinekin eskaini zaie laguntza. Laguntza sareaz gain, Udaleko langileak maiztasun handiz deitu dute 1.200 etxetara. Elikagai Bankuko banaketan lagundu dute, itxialdian zabalik zeuden dendetan Miguel Altuna Institutuak eta Mondragon Unibertsitateak egindako babes maskarak banatu dituzte...

**Udal aurrekontua berrikusten ari zarete. Diru sarreretan zenbateko jaitsiera egongo da?**

Handia. Aurrekontu osoaren %20-25 ingurukoa. Foru Funtsean bakarrik, Gipuzkoako Diputazioak udalei egiten dien ekarpenean, 2,5 milioi euro inguruko jaitsiera aurreikusten dugu Bergaran. Hori sekulako jipoi da sarrera aurreikuspenetarako, Udal aurrekontuaren %10eko jaitsiera. Beste diru sarrera asko herriko jarduera ekonomikoari edo eskainitako zerbitzuei lotutakoak dira eta denbora honetan guztian asko gutxitu dira: Agorringo abonamenduak, obretako zergak, itxita egon diren jardueri kobratu ez zaizkien ur eta zabor tasak... Bestetik, beste jaitsiera batzuk aipatu ez



Bergarako alkatea, udaletxeko bulegoan, eguaztenean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

# "Ahalegin guztiak egingo dira bazterrean inor ez uzteko"

**GORKA ARTOLA** BERGARAKO ALKATEA

Koronabirusak herritarron ohituretan eta erakundeen kudeaketan izan duen aldaketen lekuko zuzena da alkatea. Udal aurrekontuez, zerbitzuez eta tokiko ekonomiaz dihardu

baditu ere, Diputazioa badabil aplikatzen: baserri-bideetarako dirulaguntza bertan behera laga da... Beste dirulaguntza lerro batzuekin antzekoa gertatu litekeen susmoa dugu. Foru Aldunditik udal finantzaketaren inguruan planteamenduren bat egin behako lukete: udalei dirutza hauek iritsi ezean, egoera ekonomiko larrian egongo ginateke datozen urteetan.

**Atzeratu egin beharko da Zubieta?**

Zubietako proiektua gerakineko diruari zuzen-zuzen lotuta dago. Orain, tamalez, gerakin hori beste behar batzuetara bideratu beharra dugu, eta Zubietako hurrurbanizazioaren finantzaketa guztiz baldintzatuta gelditu da. Udal Gobernuarentzat segitzen du lehentasun izaten eta aukerarik badago berrartuko dugu; momentuz, ezin da.

**Labegaraietako kiroldedia berritza Diputazioaren ia 600.000 euroko dirulaguntza bati lotuta dagoen proiektua da. Nola dago?**

Martxoaren 13an hirigintzako hiru proiektu zeuden lizitazio fasean eta hau da horietako bat. Gelditu edo lizitazioarekin arrera jarraitu erabaki beharra genuen, eta, arrazoi ezberdinegatik, hirurekin aurrera jarraitzea erabaki dugu. Obra horrek

dirulaguntza handi bat du konprometituta eta ezin zen hura galtzen utzi. Epeei dagokienez, aurreikusitakoaren barruan doa, eta, obra urte amaierarako bukatuta egotea espero badugu ere, dirulaguntza lortzeko baldintzak malgutu egingo dituztela adierazi digute, egoera berezi honek eraginik izango balu.

**Agorrosin Berria dago, bestetik. Zer gertatuko da hitzarmeneko epeekin?**

Proiektuaren idazketa lizitazio- bideratzeko prest zegoen, horretarako diru izendapena aldatuta. Baina lehen aurreikuspenetik asko garestitu zen; proiektuaren idazketa prezioa, 120.000 euro ingururaino. Aurreikuspen ekonomikoak iluntzen hasi zirenean, BKEko zuzendaritzarekin elkartu, eta proiektuaren idazketa bertan behera utziko genuela adierazi genien. Batetik, aurtengo aurrekontuan 120.000 euro behar urgentetagoi erantzuteko eskuragarri izatea beharrezkoa zelako eta, bestetik, hitzarmenean jasotakoaren arabera proiektuaren idazketak datozen urteetako aurrekontuetan 1.100.000 euroko konpromisoa hartzea zekarrelako. Gaur egungoa bezalako ezegonkortasuneko momentuan ezin du Udalak halako zamarik hartu.

**Inbertsioetarako gaitasunik bada?**

Lehen baino gutxiago, baina, inbertsio gaitasuna xumea bada ere, izango da. Neurri handi batean, lur azpiko aparkalekua egiten ez hasi izanak 2,3 milioi euroko gerakina izatea ahalbidetu digulako eta hori baliatu ahal izango delako defizita estaltzera. Bestetik, iaz zor bizia ia 7 milioi eurotik 6 milioi eurora jaitxi dugulako eta honek zorpetzeko atek ere irekita utzi dizkigulako. Inbertsio gaitasuna bermatzeko Udalak kreditu bat eskatzeko aukera jorrazteko asmoa du.

**Mugikortasun plana zertan da?**

Idazketa kontratatuta dago. Martxan da. Parkingaren gaian, berriz, hasierako lerrora itzuli gara. Ez dut imajinatu ere egin nahi gaur egun Udalaren egoera ekonomikoa zein litzatekeen parkingaren exekuzioa martxan balego, hondamendi ekonomikoa izango litzateke.

**Hartu dituzten neurri ekonomikoen artean, zein izan da eragin aipagarriena izan duena?**

Eragin zuzena, oraingoz, Kutuna ekimenak izan du, Udalaren, herri ekimeneko Magnet kooperatibako boluntarioen,

Bergarako komertzio, taberna eta zerbitzu emaleen, eta herritarren arteko ekonomia kolaboratiboaren adibide oso adierazgarria jarri da eta martxan. 200.000 euroko inpaktu ekonomikoa eragin dugu guztion artean, eta, horretarako, 44.000 euro bideratu dira udal baliabideetatik: 40.000 dirulaguntzetan eta 4.000 inguru transakzioen kostua Udalak bere gain hartuz. Bestetik, laster martxan jartzeko prest izango dugun herriko ekonomia sustatzeko 300.000 euroko dirulaguntza lerroa aurreko kanpaina osatzera dator eta Bazkundetik lantzen ari diren bonu kanpainari gertutik jarraituko diogu, osatzeko premiarik balego, aztertzeke.

#### Beste ze neurri ekonomiko hartzea duzue aurreikusita?

Herriko kaleek bizitza behar dute, eta, horretarako, beharrezkoa da kaleek bizirik izatea, komertzioa martxan eta osasuntsu izatea, tabernetan giroa izatea... Herriko kaleak eta aktibitateak suspertzeko 300.000 euroko dirulaguntzak bideratuko ditugu. Dirulaguntzak bideratuko ditugu. Dirulaguntzak itxita egon diren komertzio edo ostalaritza zerbitzuei bideratuta egongo dira, eta momentu zail hauetan beraien negozioari bultzada bat emateko aukera helarazi nahi diegu.

#### Terrazen kontuarekin erraztasunen bat jartzeko asmorik baduzue?

Elkartu gara ostalari batzuekin, aurretik informalki hitz egin badut ere eremu honetako batzuekin. Azalera handitu daitezkeen eremuetan aukera hori emateko proposamena luzatu diegu, betiere, segurtasunezko pasabideak errespetatuz eta atarrietan, beste komertzio batzuetako sarreretan, eta abarretan eragin gabe. Alboko lokaletako

fatxada eremuak okupatzeko aukera ere zabaldu dugu, betiere, jabearen baimena lortuz gero. Kontuan izango da onartzerakoan inguru berean erabilera librerako eremuak bermatzea, aktibitateen ustiaketarako okupazioaren eta eremu publiko librearen arteko oreka ezinbestekoa dela uste dugu eta. Tasei dagokionez, modu progresiboan aplikatzea proposatu diegu ostalariei, mahai gutxien jartzeko aukera dutenek ez lukete ordainduko, eta, mahai kopurua handitu ahala, tasa handiagoa ordainduko lukete, gehienez mahaiko gaur egungo tasaren %75 ordaintzeraino, mahai guztiak jartzeko aukera lukeen terrazak horretarako espazio doblea okupatuko balu ere. **Irudi kezagarriak ikusi dira han eta hemen, baina baita Bergaran ere, tabernetako terrazetan...**

Arduraz jokatzeko denoi dagokigu. Erakundeok badaukagu erantzukizun handia, baina ardura denona da eta kontu honetan denok jarri behar dugu dagokiguna, arazoa gaintzen laguntzeko. Lasaitasun mezua bidali nahi diet herritarrei, Udalak bere baliabideak jarriko dituelako bergararren ongizatea bermatzeko, eta ahalegin guztiak egingo ditugu inor ez uzteko bazterrean. Baina, era berean, arduraz jokatzeko gonbita luzatu nahi diet herritarrei.

#### Gizarte Larrialdietarako Laguntzak igo dira?

Diru izendapena 100.000 eurotik 163.000 eurora handitu da, oraingoz, baina hau ere agortzeaz dago eta partida handitu egin beharko dela aurreikusten dugu. **San Martzial eta San Martin jaiekien zer gertatuko da?**

Ederra litzateke San Martzial ospatu ahal izatea [uztaileko lehen domekan], baina arintze

fase batean ia edozein planek elkartze ez kontrolatuak sor ditzake eta, oraingoz, ezin dugu halako egoerarik indartu. Ikusiko da data iritsi ahala zein aukera dagoen. San Martinetara begira lanean jarraitzen dugu. Ea ordurako jai txukunak disfrutatzeko aukerarik dugun.

#### Kulturari dagokionez, Seminarioxoa noiz eta nola itzuliko da?

Udara begira egoerak hobera egiten jarraitzen badu, kultura eta aisialdi alternatiba ezberdinak eskaini beharko ditugu egoera berrira egokituta, espazio zabalak, edukiera mugatuak, ekitaldi xumeago baina gehiago, beharbada. *Streaming*-eko aukera kultura areto eta erakunde batzuek egin duten hautua izan da. Ikusi behar.

#### Igerilekua zabalduko duzue?

Udara begira zabaldu beharreko zerbitzu bat da, baina posible da hartu beharreko neurri zorrotzek tekniko edo ekonomiko bideragarritasuna zalantzan jartzea: edukiera, ordutegiak, aldagela erabili ezina... Itxita dagoen bitartean, hileko 85.000 euroko sarrera izateari laga dio Udalak, baina gastuen gehiengo jasaten dute kontu publikoek.

## "KIROLDEGIA ITXITA, HILEKO 85.000 EUROKO SARRERA IZATEARI LAGA DIO UDALAK"

## "HERRIKO EKONOMIA SUSTATZEKO 300.000 EUROKO DIRULAGUNTZA LERROA ZABALDUKO DUGU"



Gorka Artola, udaltxeko bakoian. E.A.L.

## Arduraz eta "ondoez emozionalekin"

lazio ekainean hartu zuen kargua Gorka Artolak Bergarako alkatez. Oñatiko alkate Izaro Elorzarekin batera, agintaldian estreinatuta ziren bi alkateak. Honenbestez, urtebete beteko ditu aurki alkate. Halako egoerarik bizitza inoiz burutik pasako zitzaion galdetuta, zera dio: "Gizateriak bere ohiko jardunarekin jarraitzeko zailtasuna daukan halako edo antzeko egoerak gertatu izan direla eta gertatu izan ahal litezkeela pentsatu izan dut beti, baina urruneko hipotesi bezala, energia errazaren defizitari edo beroketa klimatikoari lotuta edo. Baina halako egoera bat biziko genuenik eta, zer esanik ez, ardura izango nuela herri mailan erantzuna kudeatzen, ez, inondik inora".

Konfinamendu egoera, arlo pertsonalean, "gorabeherekin" eroan duela dio, "herritar gehienok bezala", seguruen. Arduraz eta ondoez emozionalarekin. "Gertukoekin egonezina, ardurak, ezjakintasuna... ez dira bidelagun onak eta gure artean ditugu azken hilabeteetan". Izan duen denbora libre apurra etxeko hainbat lanetan pasa dutela dio: "Gela bat margotu, armairu bat muntatu...".

#### Etxetik eta udaletxetik lanean

Lanean, etxetik eta udaletxetik aritu da. "Egunerokoan, udaletxetik bertatik lan egitea tokatzen zitzaigula uste dut eta Ainhoa Lete zinegotzia eta ni neu bertan egon gara. Asteburuetan, taldeko zinegotziak txandakatu dira guri atseden eman eta arretera zerbitzuko lankideekin batera egoteko une oro". Elkarrizketa egin zen unean, eguazten eguerdian, artean, bulegoan segitu zuen kazetaria bertatik atera zenean, 14:30 aldera. Bazkaltzera zihoan galdetuta, irribarrez erantzun zuen: "Egun askotan bezala, 17:00 aldera itzuliko naiz etxera eta zerbait bazkalduko dut". Herri agintari asko bezala, egoera larri honetan...

'ALKATEAREKIN BERBETAN' ATALAREN BABESLEA

Konfinamenduan pantailak  
gehiago erabili dira

**%10eko** deskontua  
argi urdinetik babesteko lenteetan  
+  
**Montura doan**



**ZABALIK GAUDE  
ESKATU HITZORDUA**

Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

**MULTIÓPTICAS**

www.multiópticas.com



lazko Kultura Astean Jose Mari Larrañagak emandako hitzaldia; urrirako egoera gainditu, eta aurtien ere ospatu nahiko lukete. GOIENA

## Elkargune gabe "hutsune handia" sentitzen dute

Martxoaren 13tik ateak itxita dago gaur egun 1.350 bazkide inguru dituen San Joxepe elkartearen Boni Laskuraingo egoitza; diote "ilarako azkenak" izango direla irekitzen: "Ea abuztuan edo irailean irekitzen dugun, askorentzat eguneroko plana da-eta bertara joatea"

### Jokin Bereziartua BERGARA

COVID-19ak ez du Bergara beziki kolpatu, baina San Joxepe erretiratu elkartearen "kezka handia" eragin du. Birusak sorpresaz hartu zituela dio elkartearen presidente Roberto Kareagak (Bergara, 1952) eta gogora ekarri du elkartearen itxi behar izan zuteneko eguna: "Egubakoitz goiza zen eta gizarte zerbitzue-

tako arduraduna etorri zen esanez elkartearen itxi beharra zegoela. Sarrera zigilatatu zuten, eta horrela gaude gaur arte; dokumentuak hartzeko ere ez naiz sartu". Martxoaren 13an izan zen itxiera eguna eta inork ez daki oraindik noiz irekiko ahaliko den berrituko: "Ezinezkoa da jakitea. Ilarako azkenak izango gara gu irekitzen; dena ondo

badoa, ea abuztuan edo, behintzat, irailean irekitzeko moduan gauden... Auskalo, ezin jakin".

### Mugimendu handia eguneroko

Izan ere, San Joxepen mugimendu handia zegoen eguneroko COVID-19ak dena hankaz gora jarri aurretik. Kareagak emandako datuen arabera, 2019an, Boni Laskurain kaleko egoitzan

186.857 bisita izan ziren, 186.857 sarrera elkartera –harreraren kontabilizatzen dira sarrerak–. Martoko egoitzan, berriz, 2.499 izan ziren 2019ko bisitariak. Horrek hilabetearen 15.571 bisita inguruan kokatzen du elkartearen mugimendua; bisitari gehien izan ziren egunak honako hauek izan ziren Boni Laskuraingo eraikinean: ekainaren 14a –593 sarrera–, otsailaren 4a –592–, martxoaren 26a –584–, abenduaren 11 eta abenduaren 20a –541 sarrera azken bi egun horietan–. "Hutsune handia da, askorentzat eguneroko plana da-eta elkartera joatea, eta horrek are luzeago egiten du itxialdia", gaineratu du Kareagak. Gaur egun, 1.350 bat bazkide ditu San Joxepe, eta Kareagak bazkideen arteko kutsatze-daturik ez badu ere asteotan erretiratuen artean bestelako berbetarako gairik

egon ez dela nabarmendu du: "Kezka handia dago".

### Batzarra aurtien egiteko asmoa

Martxoaren 26an egin behar zuten batzar orokorra, baina hori ere suspenditu zuen COVID-19ak. "Egoerak ahalbidetzen duen heinean batzar orokorra egitea izango da gure lehentasuna. Zuzendaritza taldeko hiru kide berri aukeratu behar ditugu, besteak beste". Elkartearen osasun ekonomikoa ere nolakoa den jakingo dute batzar horretan, 2021erako kuotak zehaztea izango delako beste egitekoetako bat.

**2019AN, 186.857 SARRERA IZAN ZIREN BONI LASKURAINGO ERAIKINEAN, HILERO 15.571 BISITA**

## Ekitaldi gehienak suspenditu beharra

Urtean zehar antolatu ohi dituen ekitaldi gehienak bertan behera utzi behar izan ditu San Joxepe, COVID-19ak eraginda. "Errege bezperako txokolate-jana eta martxoaren 11ko sagardotegira irteera izan dira aurtengo ekintza bakarrak", zehaztu du Kareagak. Honako ekintza hauek ez dituzte egin: martxoaren 26ko batzar orokorra; apirilaren 24ko udaberri festa; maiatzaren 10eko testamentuaren gaineko hitzaldia; eta maiatzaren 10ean irtenda Gaztela eta Leonera egin behar zuten bidaia. Ez dira egin, baina eurentzat "garrantzi handikoak" diren beste bi ekitaldi ere ez dira egingo: maiatzaren 24an egin ohi duten 87 urtekoei omenaldia eta Pentekosteetako ekitaldiak; Pazko martitzeneko askotariko txapelketak kasu. Kultura Astea urrian izan ohi da: "Garrantzitsua da guretzat Kultura Astea, eta ahalegina egingo dugu. Baina lan handia da, eta denboraz antolatu beharra dago".



lazko jaietako bolo txapelketa. GOIENA

## Autobusik eta kamiorik ez Ibargaraitik hilaren 26ra arte

Katabiako autobus geltokia ezingo da erabili maiatzaren 26ra arte; beste moldaketa puntual batzuk ere egongo dira

### J.B. BERGARA

Ibargarai kaleko 4. eta 14. atarien arteko zatia berrituko urbanizatzeko lanak eragin zuzena ari dira izaten zirkulazioan. Astelehenean hasita eta hilaren 26ra arte, autobusak eta kamioiak

ezin dira igaro Eibarko noranzkoan, eta, beraz, Ibargarai 9ko Katabiako geltokia ez da erabilgarri egongo egun horietan. Autoak eta zirkulazio arineko furgonetak normal ibili daitezke, eta Arrasaterako noranzkoan

autobusak eta kamioiak ohi moduan dabilta. Frontoitik datorren zirkulazioan ez du eraginik izan. Eta zirkulazio arinen moldaketa puntualak egiten direnean, Irala aldera sartzeko frontoiko bidetik bakarrik sartu ahaliko da.

Lanak apirilaren 22an hasi zituzten; ur, euri-ur eta argiteriako azpiegiturak berritzen dihardute, eta errepidea eta espaloia berrituko urbanizatzeko dituzte. Beste bost hilabete inguru iraungo dute obrek; aurrekontua 308.849 euro da, BEZa barne.



Ibargarai zati bat altxatuta, joan den astean ateratako argazkian. JOKIN BEREZIARTUA



Ndank Ndank elkarteko Mamadou Sarr, Eli Dominguez eta Nora Pedrejon umekin, Matxiategiko pasealekuan. ARANTZAZU EZKIBEL

## 2.570 euro lortu dituzte Dionewarrera bidaltzeko

Ndank Ndank elkartekoek espero baino diru gehiago batu dute, astebetean, Senegalgo Dionewar herriko familia guztiei arrosa eta olio banatzeko; 5.000 biztanleko irla horretan ez dago COVID-19 kasurik, baina ekonomia geldi dago, arrantzarako mugak dituztelako

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Bergara eta Senegal lortzen dituen Ndank Ndank elkarteak diru bilketa egin zuen joan den astean zehar, Senegalgo Dionewarko biztanleendako jakiak lortzeko asmoz. COVID-19ak Senegal utziko dituen "ondorio latzak" apaltzea da helburu nagusia; izan ere, ezin da ahaztu Dionewar irlako ekonomiaren oinarria arrantza dela, eta COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz mugatuta dutela arrantzan egitea.

Astebetean, espero baino diru gehiago lortu dute. "Oso pozik gaude, guztira 2.570 euro jaso ditugu eta. Astelehenean 1.995 euro bidali genituen hara eta gainontzekoa bigarren txanda baten bidaliko dugu. Lehen txandako banaketa egin ostean behar gorrienak ondo identifikatuko ditugu eta bigarren txandako dirua ahalik eta ondoen baliatzen saiatuko gara", adierazi du, astean, Ndank Ndank elkarteko Eli Dominguezek.

**Hiru tona arroz eta 500 litro olio** Ndank Ndank elkarteak 300 euro jarri ditu lehen bidalketarako,

eta zehaztuta dute dirua noren eskuetan utzi. "Dirua bideratuko dugu Dionewarren dagoen emakumeen kooperatibara. Eurak arduratuko dira jakiak banatzeaz, elikagaiok Dakarren erosi ondoren: hiru tona arroz eta 500 litro olio erosiko dituzte, herriko familia guztiei banatzeko", argitu du elkarteko kide Nora Pedrejonek.

**Senegalen 1.500 kasu daude**

Dionewar herri txikia da, 5.000 bat biztanle dituena. "Gaur egun, ez dago koronabirus kasurik, baina Senegal 1.500 bat kutsatu daude. Herrialdea geldi dago eta zaila izango du buelta ematea", azaldu du Bergaran bizi den Mamadou Sarr senegaldarrak.

Ndank Ndank elkarteak Dionewarrerako dituen proiektuetan ere zuzenean eragin du COVID-19ak: "Kultura areto bat eraiki nahi dugu; eta, hain justu, arkitektoa han zegoen mugak itxi zituztenean. Itzuli egin behar izan du. Helburua da eraikuntza teknika jasangarriak erabiltzea eraikina jasotzeko; eta, horretarako, hango gazteak trebatu gura ditugu".



# Musikarekin hazi, hezi eta bizi.

**ATE IREKIAK ONLINE**

- [bergaramusikaeskola.com](http://bergaramusikaeskola.com)
- Maiatzak 23, larunbata
- goizeko 10:30ean

**MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK**  
maiatzaren 18tik ekainaren 19ra

**Bergarako Musika Eskola**

**Bergarako Udala**

# "Helburua lehen mailan mantentzea izango da"

**JONE AGIRREZABAL** EIBAR AVIA TALDEKO ERRUGBI JOKALARIA

Espainiako Errugbi Federazioak hartutako erabakiaren ondoren, lehen mailan arituko da Eibarko emakumezkoen errugbi taldea, eta bertan lehiatuko da Jone Agirrezabal

**Jone Olabarria** BERGARA

Lehen mailan jokatu du datorren denboraldian Jone Agirrezabal (Bergara, 1994) errugbi jokalaria. Laugarren denboraldia du aurtengoa Eibarko Avia taldean, eta, hain zuzen, Oho-rezko B Mailan onenak izan ostean, liga nagusian jokatu du datorren denboraldian.

**Begararra izanda, nolatan hasi zinen errugbian?**

Donostian ikasten ari nintzela hasi nintzen, Bera Beran. Lagun batek probatzen joatera animatu ninduen eta banekien behin joanda itzuli egingo nintzela. Hala izan zen.

**Orain, Eibarren ari zara errugbian. Aurretik, baina, beste hainbat ki- roletan aritu zara.**

Aurtengoa laugarren denboraldia izan da Eibarren. Betidanik izan naiz nahiko kirolaria eta aurretik karatean eta futboleant aritu naiz. Mendira joatea ere oso gustuko dut; eskalada, snow, eskia...

**COVID-19a iritsi aurretik, denboraldi polita zenuten egina...**

Aurreko urtean igo ginen Oho-rezko B Mailara, bigarren maila izango litzatekeena, eta nahiko fuerte hasi genuen liga. Jokatu genuen azken partidua liga erregularreko azken partida izan zen, eta lehenengo eta bigarren postua genuen jokoan. Valentzian izan zen, Les Abelles taldearen aurka, eta irabaztea lortu genuen. Horrekin bukatu zen liga erregularra, partidua guztiak irabazita.

**Zer geratzen zen jokatzeko ordutik aurrera?**

Liga erregularra behin bukatuta, final-aurrekoa geratzen zitzaigun jokatzeko, eta, bertan irabaztea lortuz gero, finala. Hala, egoera honetan, Federazioaren erabakiaren zain egon gara. Kontaktuzko kirola da errugbia eta entrenamenduak oso garrantzitsuak dira kirol honetan sasoia mantentzeko;



Otsailaren 22an Las Rozasen (Madril) jokatuako partiduko irudia. FELIX BEITIA

**"TXIKI ETA ARGALAK GARA, BAINA OSO ARINAK; KORRIKA EGIN ETA BALOIA ASKO MUGITZEN DUGU"**

horrenbestez, zail ikusten genuen jokatu jarraitzea.

**Joan den astean izan zenuten Federazioaren erabaki horren berri...**

Apirilaren 30ean hartu zuten lehen erabakia; mutilentzat bat eta emakumezkoentzat beste bat. Gure ustez, erabaki berbera hartu behar zen bi ligentzat, eta errekurritu egin genuen. Azkenean, zenbait bileraren ostean, erabaki bateratua hartu, eta emakumezkoen ligan ere ez zela jokatu erabaki zuten.

**Badago berdintasunik errugbian?**

Eibarko klubari dagokionez, apustu sendoa egin zuten orain pare bat urte nesken errugbiaren alde. Babes handia ematen digute, maila guztietan daude emakumezko entrenatzaileak... Gizonezkoen tratua bera dugu. Bi urtean lortu dugu lehen mailara igotzea; klubaren babesik gabe ezinezkoa litzateke hori.

Partiduei dagokienez, gero eta neska gehiago animatzen dira ikustera eta jokatzera. Orain urte batzuk, gorakada handia izan zen Euskadi mailan.

**Nolako taldea zarete?**

Gure taldearen ezaugarri nagusia txikiak garelako da, argalak, baina oso azkarrak. Errugbiko jokalaria bat imajinatzean, denok uste dugu handia izango dela, baina ez da gure kasua. Gure jokoa baloia asko mugitu eta korrika asko egitean oinarritzen da. Talde oso gazte gara, 18 urte inguruko jokalaria asko ditugu; alde batetik, ezaugarri positiboak da, gogo handia dugulako, baina lehen mailara esperientzia gutxiarekin iristen garelako sentitzen dut.

**Datorren denboraldira begira, zein da helburua?**

Bertan mantentzea, lehen mailan, izango da erronka. Liga batetik bestera ezberdintasun handia dagoela diote. Badakigulan handiagoko egin beharko dugula bertan mantentzeko, baina prest gaude. Orain arte, astean hirutan egiten genuen ordu eta erdiko talde entrenamendua, eta gero, nork bere kabuz ere gimnasia joan beharra du.



GOIENA

## Parkeak zabalik aurreko astetik

Joan de ostiraletik zabalik daude Usondo, Errekalde eta Errotalde parkeak, ohiko ordutegian, 08:30etik 20:30era. Udalak arduraz jokatzeko eskatu die herritarrei, eta kutsatzeko aukerak murrizteko neurriak hartzea ere dei egiten die. Iturriak, bankuak eta antzerakoak saihestea gomendatu dute.

## Kalean jartzeko irudia aukeratzeko lehiaketa abiarazi du Udalak

Domingo Irala kalera ematen duen Seminarixoko fatxadan ja-rriko dute lehen argazkia eta udal artxiboko hiru argazkiren artea aukeratu beharko dute herritarrek. Bozketan parte hartzen dutenen artean, 50 euroko bi bonu zozketatuko dituzte. Norbaitek argazkien informazioa badu, [artxiboa@bergara.eus](mailto:artxiboa@bergara.eus) helbidera idaztea eskatu dute.



1936. urtean, San Martin plaza. ARTXIBOA

## OHARRAK

### Ur kontagailuen irakurketa egiteko laguntza

COVID-19 gaitza dela eta udal langileak ezingo dira etxe guztietara sartu, eta ur kontagailuen irakurketa egiteko laguntza eskatu du Udalak. Hainbat bide daude: atarietan jarritako paperetan kontsumoa idaztea, 943 00 23 00 telefono zenbakira deitzea, 616 93 69 43 zenbakira *whatsapp*-a bidaltzea edo [ura@bergara.eus](mailto:ura@bergara.eus) helbidera idaztea.

### Pol-Pol Mendizale Taldearen bulegoa, zabalik

Astelehen, ostegun eta ostiraletan egongo da zabalik Pol-Pol Mendizale Taldeak San Pedro kalean duen bulegoa, 19:00etatik 20:00etara. Federatuen txartelak kudeatzeko baino ezingo da bertara joan.

### Euskara ikastaroetarako dirulaguntzak

Begarako Udalak hiru dirulaguntza mota ematen ditu euskara ikasteko edota ikasketa osagarriak euskaraz egiteko: Begarako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten dutenentzako dirulaguntza, Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroetan parte hartzeko eta UNEDeko Idazle Eskolak antolatzen dituen modulu eta hitzaldietan parte hartzen duten begarrendako.

# Presoen eskubideen alde plazara itzultzeko deia

"Presoen eskubideak aldarrikatzen jarraitzeko asmotan", gaur, hilak 15, plazako ostiralero hitzordua berreskuratuko du Gure Artera-Sarek, Etxerat-ekin batera. "Babes neurri guztiak hartuta", plazan biltzera animatu dituzte herritarrak, 20:30ean

**Jone Olabarria** BERGARA

COVID-19 gaitzak eragindako konfinamendu egoera aurretik egin ohi zuten bezala, Etxerat Euskal Preso eta Iheslari Politikoen Senide eta Lagunen Elkartearekin batera ostiralero plazara bueltatzeko asmoa agertu du Gure Artera-Sarek: "Ostiraleko erreferentzia-gune den plazako hitzordua berreskuratuzera goaz. Presoak berriro plazara, bi hilabete igaro eta gero".

Hala, gaur, hilak 15, ekitaldi "txukuna" egin gura dute, 20:30ean, eta, era berean, Murtziako espetxean gose eta egarri greban dagoen Patxi Ruiz preso politikoa iriartaratu adierazi



Ostiraleko hitzorduetako irudia. GOIENA

gura diote. Horretarako, herritarrak parte hartzera animatu dituzte: "Leiho, balkoi eta mobilizazio telematikoak agurtzen joan eta egoera, pixkanaka eta modu mailakatuan, aldatzen joan behar dugu, kaleak berreskuratuz eta mobilizazioekin hasiz".

## Babes neurriekin

Jakinarazi dutenez, baimenak eskatu eta onartu ostean, krisi egoerak eskatzen dituen babes neurri guztiak hartuko dituzte, eta, batez ere, distantzia mantenduko dela azpimarratu dute, plaza osoa hartuta. Preso guztien eskubideak aldarrikatzearekin batera, bergarar bikotekide eta

senitartekoak dituzten sei presoren egoera plazaratuko dute: Lexuri, Josu, Alicia, Aitzol, Oskarbi eta Xabin.

## Ekintzaz betetako hilabeteak

Konfinamenduan igarotako bi hilabeteak "emankorrek" izan direla adierazi dute Gure Artera kolektibotik. Konfinamenduan sartu zirenetik, Gure Artera-Sare taldeko kideen artean *Jitsii* aplikazioaren bidez astero bilkurak egin dituzte.

"Presoen gaiarekiko sentsibiltate berezia dutenen artean ideia zaparrada bat antolatuta genuen, inkesta baten bidez, eta 81 pertsona ekarpen eta ideia desberdinak proposatu zizkiguten". Hala, "presoen gaiak herriko agenda soziopolitikoan tartea izan zezan", zortzi ekimen egin dituzte bi hilabete hauetan zehar: hainbat mahai inguru, herriko abeslariarekin egindako abestia, *Sagarren denbora* filma, argazki bildumak eta bergarar presoen bideotxoak, besteak beste. Horietatik zazpi igo dituzte Youtubeko kanalera, eta "harre-ona" izan dutela aitortu dute. Bertan daude ikusgai orain ere.

## Bergararren arreta zerbitzua zabalik asteartetik aurrera

Konfinamenduaren arintze fasean sartuta dago Bergarako Udala, eta, normaltasunera bidean pausoak emateko asmotan, datorren asteartetik aurrera, maiatzak 19, herritarrentzat zabalik egongo da bergararren arreta zerbitzua.

Hala ere, neurri bereziak hartu beharko dira bertan. Aurrez hartu beharko da hitzordua, telefonoz edo udal webgunean, eta maskararekin joan beharko da. Era berean, sartu bezain laster eskuak desinfektatu beharko dira eta itxaron gelan bi pertsona bakarrik egon ahal izango dira. Elkarren artean bi metroko distantzia gorde beharko da. Eskudirurik ez dute jasoko eta ordainketak beste modu batean bideratuko dira. Bakarrik joatea eta puntualitatea eskatu dute. Era berean, arduraz jokatzera eta emango diren jarraibideei adi egotera deitu du Bergarako Udalak. Sintomarik izanez gero BAZera ez joatea eskatu dute.

## Debagoieneko GREMIOAK

### ARROZTEGIAK

#### AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

### HONDEAKETAK

#### EXCAVACIONES Y CONTRATAS

#### ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzereka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

#### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

#### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

### LOREZAINZTA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonca D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Iragarria jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

# Ixteko erabakiak kezka eta haserrea eragin ditu

Koronabirusak eragindako egoera pasatutakoan itxiko du Elgetako bulegoa Kutxabankek, eta argitu dute kanpoko kutxazaina dela mantenduko dutena. Erabiltzaileen ustez, erabaki ulergaitza da, eta sinadura bilketa abiarazi dute

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Hautsak harrotu ditu Elgetan Kutxabankek hartutako erabakiak. Aurrez aurreko zerbitzua ematen duen banketxe bulego bakarria dago herrian, eta alka-teak, merkatariek, erretiratuek eta ohiko erabiltzaileek zerbitzu murrizketa itzela izango dela adierazi dute.

Kutxabank erakundeko ordezkari Endika Ruizek adierazi du barruko bulego osoa itxiko dutela, eta kanpoko aldean dagoen kutxazaina dela geldituko dena. Zehazteke dago noiz gauzatuko duten erabakia. "Koronabirusak eragindako egoera pasatutakoan", esan du. Hala, aurrez aurreko bulego zerbitzua eta barruko makinak kenduko dituzte. "Elgetako bulegoan arreta ematen zuen langileak jarraituko du Elgetako bezeroei zerbitzua ematen, baina Bergarako bulegotik izango da", gaineratu du Kutxabankek ordezkariak.

Ruizek azaldu du elgetarrek gero eta gutxiago erabiltzen dutela bulegoa. "Gestioak, gero eta gehiago, Internet bidez egiten dira, eta bezero gehienak ez dira bulegotik pasa ere egiten". Adierazi du baita ere banketxe guztien joera dela, gaur egun, aurrez aurreko zerbitzua emateko bulego handien aldeko apustua



Elgetako Kutxabank bulegoa, Mendizaleen Plazan. L.Z.L.

## HERRIKO KOMERTZIOETAN SINA DAITEKE ERRETIRATUEK EGINDAKO IDATZIA

egitea. "Gogorarazi nahi dut Kutxabank izan dela azken urteotan Elgetan bulegoa eduki duen erakunde bakarria, eta Kutxabank izango dela aurrerantzean ere kutxazain zerbitzua eskainiko duen bakarria".

## Xalbadorpe elkarteak, gutuna

Bezero askoren ustez, erabaki onartezina da. Uste dute gestio asko etxetik egin daitezkeela, "baina guztiak ez, eta guztiek ere ez". Xalbadorpe erretiratuen elkartetik Kutxabank erakundeari zuzendutako idatzi bat prestatu dute –osorik irakurgai 12. orrian–. Bertan, erabakia berraztertzeke eskaera egiten dute. Horrekin batera, sinadura bilketa ere abiarazi dute. Itxiera adinekoendako autonomia galera handia izango dela aurrekusten dute.



Lasao kaleko lur-jausiaren garbitze-lanak. L.Z.

## Asteburuko euriteek eragindako kalteak, konpontze bidean

Herriko hainbat tokitan kalteak sortu ditu asteburuko euriteak; bereziki, Lasao kalean eta Azulako bidean


**Narao Urien Berrio** ELGETA

Asteburuko euriteen ondorioz, Elgetako Lasao kalean sei metro zabaleran eta hiru altueran dituen harrizko pareta bat bi autoren gainera erori zen eta beste bati kalteak eragin zizkion. Euriak eragindako lur-jausi batek horma eraitsi zuen bi autoen gainean, eta harriz lurperatuta geratu ziren, baina ez zen inor zauritu. Lur-jausia gertatu zen lekutik autoak kendu zituzten auzotarrek, garabi baten laguntzaz. Horrekin batera, harri zatiak eta lurrak baztertu eta geratu zen pareta zatiari euskarriak jarri zizkioten. Iraitz Lazkano alkateak adierazi duenez, pareta zurkaiztu egin dute, apuntalatu, segurtasuna bermatze aldera, eta ez du bestelako kalterik sortu. Oinezkoentzako bidea izanik, trafikoan ez zuen eraginik izan. Orain, autoen jabeek aseguruiei parte eman beharko diete. Bestalde, Lazkanok

adierazi duenez, zenbait garajetara ura sartu zen, baina kalte handirik eragin gabe.


## Kalteak Azulako bidean

Euriteek Azulako bidean ere zenbait kalte sortu zituzten asteburuan. Abenduan kalte handiak izan zituen bideak lur-jausi baten ondorioz, eta berriki konpondu du Udalak. Sebas Arantzabal baserrien batzordeko arduradunak adierazi du "urtarrileko konponketa 12.000 eurokoa izan zela", eta oraingoa, egoera eta daukaten aurrekontua ikusita, ez dakitela noiz konpondu ahal izango duten. "Foru Aldundiak prest zeukan dirulaguntza bertan behera geratu da; beraz, ez dakigu aurten edo hurrengo urtean konpondu ahal izango dugun". Modu berean, konponketak iraun bitartean kamioiak bertatik ezingo direla pasa adierazi du.



**ELENA ELKORO**  
ELKORO BOTIKA

"Kanbioak edota eguneko kutxa dela... Nola konponduko gara aurrerantzean? Bergarara edo Eibarrera jaistea ez da soluzioa. Triste eta oso haserre nago".



**PATXI BASAURI**  
ERRETIRATUA

"Herri txikietan gutxieneko zerbitzu barik gelditzen ari gara, eta adinekoendako, bereziki, autonomia galera handia ekarriko du itxiera honek".



**NEREA SARASUA**  
OZKARBI ELKARTEKO DIRUZAINA

"Kobranta batzuk eskudirutan egiten ditugu, eta hilero joaten gara bulegora. Faena handia da. Haserre nago erabaki honekin, eta ez naiz bakarria".

## Zabor bilketa zerbitzuak martxan dira astelehenetik

Aurreko asteetan etenda egon diren hainbat zerbitzu martxan dira atzera ere. Tartean dira Angiozarko garbigunea, traste zaharren bilketa –eguenetan eta 943 71 19 38 telefonora deituta– eta ehunkiendako ontzi zurien bilketa. Garbigune ibiltaria ere bueltan da. Eguaztenean, hilak 20, izango da Elgetan, ohiko lekuan, 10:00etatik 21:00etara.

## Zaldibar Argitu plataformak dei berezia zapaturako

Bihar beteko dira ehun egun zabortegiko luizia gertatu zela. Proposatu dute naturgune edo mendi tontorretan argazkiak ateratzeko eta [elgetakoza@gmail.com](mailto:elgetakoza@gmail.com) helbidera bidaltzeko. "Hartu zure banderola edo sortu zure aldarrikapena, eraman zurekin eta atera argazkia", esan dute. 19:00etarako, berriz, elkarretaratzea deitu dute, herriko plazan.



# "Musukoak gehiago erabili behar dira"

**ELENA LARRAMENDI ETA NESTOR MAIDAGAN SENDAGILEA ETA PRAKTIKANTEA** Positiboen kopuruak nabarmen egin du gora Elgetan. Distantziak mantendu eta musukoak erabili behar direla adierazi dute osasun zentroko bi osasun-langileek

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Aste gogorak izan dituzte herriko osasun zentroan ere. Pazienteak segurtasun neurri guztiekin artatzea dute orain helburu.

**Domekan bost positibo izan ziren Elgetan. Nola ulertu behar dugu halako saltoa?**

**Elena Larramendi:** Hau ez da bukatu. Oraingo kontagioak izan daitezke oso-oso gertukoak diren pazienteenak. Egia dena da oraindik ere kasuak badaudela eta neurriak hartzen jarraitu behar dugula.

**Erdigunetik kanpoko auzune batean lokalizatutako kasuak dira?**

**E.L.:** Guk ez dakigu hori. Informazio hori, gainera, ezingo genuke eman konfidentzialtasun kontuengatik.

**PCR proban eman dute positibo?**

**E.L.:** Bai. Bi proba mota daude. Batzuk dira serologikoak eta ikusten da pazienteak antigorputzak dituen edo ez. Bestea da PCR proba eta positibo emanez gero esan nahi du infekzioa aktibo dagoela testa egiteko unean. Baietzatu diren kasu berriak PCR proba eginda izan da.

**Zer moduz diharduzue lanean?**

**E.L.:** Lehen asteak oso potentek izan ziren. Paziente asko izan genituen etxeetan kalenturarekin. Hasieran, gainera, ez ziren hainbeste test egiten. Laneko baja asko, arriskuko jendea, familia osoak koarentenan...

**Nestor Maidagan:** Elgetan baieztatutako kasu positibo bakarra zegoenean ere jende asko egon da hemen kalenturarekin. Hori bai, ez dakigu zenbatek pasa duten gaixotasuna benetan.

**Nola artatzen duzue jendea orain?**

**E.L.:** Oraindik ere, eta patologia edozein izanik, deitu egin behar da. Bergarara deitu eta zita telefonikoa eskatu behar da. Gero, ni jartzen naiz pazienteekin harremanetan, eta sintomen arabera baloratzen dut kontsulta presentziala beharrezkoa den



Elgetako sendagile Elena Larramendi eta praktikante Nestor Maidagan. L.Z.L.

## "HAU EZ DA BUKATU. KONTAGIOAK DAUDE ETA NEURRIAK HARTZEN JARRAITU BEHAR DUGU"

edo ez; izan ere, kasu batzuk ezin dira telefonoz konpondu. Horrela bada, hitzordua ematen dugu kontsultara etortzeko. Neurriak hartu behar ditugu jende pilaketarik ez egoteko. Kontsulta txikia da.

**Eta COVID-19 sintomak izanez gero?**

**E.L.:** Berdin. Bergarara deitu behar da, eta nik baloratzen ditut sintomak. Hori bai, kontsulta presentziala egin behar bada, Bergaran egiten da. Elgetakoa osasun zentro garbia da, eta Bergaran dago COVID-19aren jarraipena egiten duen ekipo espezifikoa.

**Herritarrek errespetatzen dituzte segurtasun neurriak?**

**E.L.:** Jendea, orokorrean, ondo ikusten dut. Arrain saltzaillea etortzen denean, denda atarrietan... Jendeak errespetatzen ditu distantziak eta txandak. Aurreko batean, bai eman zidala aten-

tzioa umeekin zegoen guraso talde batek. Zaila da 2 urteko ume bati lagunengana ez gerturatzeko eskatzea, baina gertuegi zeudela iruditzen zitzaidan. Eta gurasoak ere bai.

**N.M.:** Zaila da bi metroko distantzia mantentzea, baina garrantzitsua da. Nik gehiagotan erabiliko nuke musukoa. Une batean gehiago gerturatzen bazara ere babestuta zaude, neurri batean. Eta biek eramaten badute musukoa, kutsatzeko arriskua asko jaisten da. Hori bai, ondo jarri behar da. Sudurra ere estali egin behar da.

**E.L.:** Gaur bertan ikusi dut adineko pertsona bat ondoko bulego barruan, eta musukorik gabe. Atentzioa eman dit. Arrisku taldeko pertsona bat leku itxi batean eta musukorik gabe. Kontu gehiago edukiko nuke.

**Eskularruak ere erabili behar dira?**

**E.L.:** Erabiltzen badira, gogoratu garbitu egin behar direla beti. Eskuek beste transmititzen dute. **N.M.:** Jendea oso seguru sentitzen da eskularruekin, baina erabiliz gero eskuak beste garbitu behar dira izan xaboiarekin izan gelarekin. Nire ustez, erabili edo ez berdin da.

## Patxi taberna izan da herrian zabaldu den taberna bakarra

Patxi tabernak astelehenean zabaldu zuen terraza. Gainontzekoek neurrien leunketara itxarongo dute

**Naroa Urien Berrio** ELGETA

Itxialdia luze doa, eta, baldintza gogorrekin bada ere, negozioek zabalteko aukera izan dute aste honetan. Tabernari gehienek neurrien leunketari itxarotea erabaki dute, baina Patxi tabernako Iñaki Gorostizak, ordea, astelehenean ireki zuen negozioa. Egun, pozik dago lortutako erantzunarekin. "Momentuz, ederto doa dena. Jendea gogoz dator tabernara eta pixkanaka diru-sarrerak handitzen doaz. Ezin ginen denbora askoz gehiago geldirik egon", esan du Gorostizak. Modu berean, pixkanaka neurrietara ohitzen ari direla azaldu du. "Lehen egunak zailak izan ziren; izan ere, ez gaude ohituta neurri hauetara. Hala ere, pixkanaka martxa hartu dugu". Bestalde, bitxikeriaren bat ere egon dela adierazi du Gorostizak. "Makinako kafe gose

handia egon da, ez nuen espero hainbesteko kaferik salduko nuenik". Pozik dago, baina kontzientzia mezu bat bidali nahi die herritarrei. "Herritar batzuk erlaxatu egin dira, baina ez dugu ahaztu behar egoera larria dugula oraindik. Distantzia zein higie neurriak mantentzea oso garrantzitsua da. Joka dezagun zentzuz eta kontzientziaz", dio Gorostizak.

**Hurrengo fasera arte, itxita**

Gainerakoek itxita izan dituzte tabernak, beste aste batez. Hai-zeak, Bolatokiak eta Maialdek itxita jarraitu dute eta azken momentuan Rincon de Lola taberna ere gehitu zaie. "Hasieran, zabaltekotan egon nintzen, baina neurri zorrotzak ikusita ez du merezi. Atzerapausoa ematea erabaki dut", azaldu du Rincon de Lolako Maria Cobosek.

## Kalteak elizako arkupeetan

Andra Mari Jasokundearen parrokiaren arkupea urez bete zen asteburuko euriteen ondorioz. Hezetasunagatik, eskaiola erortzen hasi zen hainbat puntutan. Hala ere, domekan esango dute meza parrokiari, 12:00etan. Horretarako, segurtasuna bermatze aldera, kalteak konpondu eta Udalak eremua hesitu egin duela adierazi du Juan Cruz Juaristi parrokoak.



L.Z.

## OHARRAK

### Mailegatutako liburuak itzultzeko kutxa

Liburutegiko materialak itzultzeko kutxa prestatu dute. Itzulketak egiteko baimendutako irteerak aprobetxatu eta segurtasun neurriak errespetatu beharko dira.

### Jaietako kartela aukeratzeko bozketa

Jaietako zazpi kartel proposamenen artean bozkatu ahal izango dute herritarrek; gaur da bozkatzeko azken eguna.

### Udal zergak ordaintzeko epeen luzapena

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda ikusgai dago udaletxean. Ekainaren 25etik uztailaren 30a bitartean egin beharko dira ordainketak.

# 'Barberito'-ren ondarea inoiz baino biziago dago

Isildu da Jose Inazio Jauregi 'Barberito'-ren txistu doinua; ez, ordea, hark Antzuolako herriari emandakoa. Txistua biziberritu eta errotu zuen; herriko belaunaldi berriengan utzi du bere arrastoa eta, txistua suspertu ez ezik, herrian errotzea ere eragin du

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Aurreko astean, maiatzaren 7an, 73 urte zituela hil zen Jose Inazio Jauregi *Barberito*. Belaunaldi ezberdinei txistua maitatzen eta zaletasunean eragiten gakoa izan zen Antzuolan.

Jose Luis Lizarralde eta Bittor Arbulu izan dira ikasle izandako bi. Haren lana gogora ekarri eta balioa eman nahi izan diote. "Sasoi hartan ez zegoen horren antolatua txistu taldea eta lotura handirik ere ez zegoen. Gervasio Legorburu, Pello Lete, Iñaki Arregi, Severiano... ospakizun jakin batzuetan aritzen ziren soilik. Norbait gidari izatea falta zen eta *Barberito*-k hartu zuen ardura Arrolaren laguntzarekin. Horrelaxe hasi ginen gazte-gaztetatik txistua ikasten eta entseguak egiten. 5-6 urtez jardun genuen txistua ikasten hamar bat lagunek, Danobat elkarte zaharra zegoen tokian. Gero, Arrasaten ezkondu eta hara joan zen bizitzera



1975. urtean Antzuolako jaietako kuadrilla eguna. ARROLA

*Barberito*", kontatu du Bittor Arbuluk. "Arrola Mendizale elkarte oso garrantzitsua izan da gure belaunaldian. Kirola eta kultura uztartzen zituen. Horri esker, makina bat ekintza egiten genuen *Barberito*-rekin eta bere

anaiarekin batera. Aita herriko bizargina zuten eta harengandik jaso zuen Jose Inaziok *Barberito* ezizena", gogora ekarri du Arbuluk. Arrasatera joan arren, berak ereindako haziak eman ditu fruituak.



## Euskal Herriko lehen kanpaldia

1974. urtean, Arrolak antolatutako Urbiako kanpaldian txistua protagonista izan zen. "Urbian, Lehen Euskal Herriko kanpaldia egin zen, Pako Iriondo presidente zela. Txistua jotzen izan ziren Gervasio, Severiano eta *Barberito*", kontatu du Arbuluk.

### Alboradak taldearen esker ona

"Familia eta lagunei doluminak eman nahi dizkio Alboradak herriko txistulari taldeak; eta bereziki, *Barberito*-ri eskerrak eman txistuaren transmisioan gakoa izan delako Antzuolako belaunaldi berriendako ere".

### Goikobaluren agurra

Antzuolarra izanik, Arrasaten egin du bizimodua *Barberito*-k. Goikobaluko kide zen, eta abesbatzak azken agurra egin gura izan dio bertso eta bideo bidez [-Goiena.eus/arrasate](https://www.goiena.eus/arrasate) helbidean

dago osorik ikusgai-. "Edonon inguruak piztu eta pozteko dohaina bazenuen", diote Goikobaluko kideek. Txistuarekiko zaletasuna ere berarekin eroan zuen Arrasatera. "Txistua hartu eta ohitura zuen Aita Menniko gaixoen gaia joateko", dio Arbuluk.

## TXISTUA BIZIBERRITU EZ EZIK, EREINDAKO HAZIAK EMAN DITU FRUITUAK; DOINUAK BIZIRIK DIRAU



IBON GEZALAGA

## Aldagelak eraitsi dituzte jada

Iragarri bezala, asteon hasi dira Eztalako aldagela zaharrak eraisteko lanak, eta bi egunean bota dute makinek eraikina. Eraisketarekin ere joan da herrian zeresana eman zuen *Bansky* artista entzutetsuaren obra zirudien grafitia. Aldagela berriak abuzturako gertu egongo dira eta Eztalako erabiltzaileek denboraldi berrirako erabilgarri izango dituzte.

## Emakumezkoen San Isidro pilota txapelketa, atzeratuta

Debarroko pilota txapelketa bertan behera geratu da eta datorren urtean egin gura du Olalde taldeak

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Antzuolako Olalde pilota elkarteak azken egunetan hartutako hainbat erabakiren berri eman du. Batetik, II. Emakumeen San Isidro pilota txapelketa atzeratzeko erabakia hartu du eta irailean jokatzeko aurreikusitako egoerak, behinik behin, ahalbidetzen badu.

Bestetik, elkarteari Debarroko 73. pilota txapelketa zegokion antolatzea, baina gaur egungo egoera dela-eta txapelketa bertan behera uztea erabaki dute, eta datorren urtean antolatzeko

asmoa erakutsi du Olalde pilota elkarteak.

Bertan behera geratu da, era berean, 2019-2020 ikasturteko Gipuzkoako Eskola Kirola. Tartean, pilota sailari zegozkion partiduak ere, jakina.

Emakumeen Master Cup txapelketako finalerdiak noiz jokatuko diren ere ez dago garbi. Galeano ahizpek ez dute frontoian entrenatzerik izan, eta dataren zain daude une honetan. Master Cup-en asmoa datorren hilean jokatzeko litzateke, baina dena zehazteko dago, oraingoz.

## San Isidro eguneko meza santua babes neurri guztiekin, gaur

Asteon, neurri-arinketari esker, eta Elizbarrutiko baimenarekin, zabaldu dira elizak. Hala, gaur, San Isidro eguna izanik, meza santua egingo da parrokan, 11:00etan. "Denok dakizkigun neurriak hartu behar ditugu: 2 metroko distantzia mantendu eta eliza sarreran egongo den gelarekin eskuak garbitu, besteak beste", azaldu du Juanita Zabalo. "Domekan ere, 11:00etan meza santua izango da, Pazko aldiko seigarren domeka izanik. Gaixoen Pazkoa ospatu ohi dugu, baina daukagun egoera ikusita ezin gaixoak ekarri aurten; edozelan ere, jakin dezatela gaixo guztiek gogoan izango ditugula ospakizunean".



San Isidro ferian behi-jezte desafioa egin zuteneko unea, Zurrategin. GOIENA

# Oztopoak oztopo, aurten ere baserriar festa prest

Antzuolarrek San Isidro festa kuttuna ez dute gertutasunez eta ohi moduan bertatik bertarako ganadu azokaz gozatuko. Hala ere, festarekin bat egin eta gaur, San Isidro egunez, baserriarren azoka egingo da; biharko, baserriar jantzeko dei egin dute

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Baserriar jantzia atondu eta bihar, maiatzak 16, San Isidro egun handia ospatzeko kalera irtetea baserriar jantzeko dei egin dute; betiere, distantziak mantenduz. COVID-19ak eraginda, antzuolarren festa kuttuna beste modu batean gozatzeko abagunea izango dute herritarrek.

## Bertsolari ibiltariak, gertu

Egitarrak zabala prestatu dute: goizean, txistularien diana izango da; 12:00etan, bertsolariak zein trikitilariak girotuko dute festa. "Udaleko kamioitik bertsotan egingo dute Maialen Lujanbiok, Beñat Gaztelumendik eta Miren Amurizak. Antiguan hasi eta Beheko auzoraino. Helburua da pilaketak saihestea; eskatuko dugu distantzia ondo zaintzea", argitu du alkateak.

## Kukumarru lehiaketa

Lehiaketa esanguratsuenetako bat da kukumarruena. Umorea nagusi, aurten ere antolatzaileek

koronabirusari aurre egin eta lehiaketa aurrera ateratzeko ahalegina egin dute. Hala, parte hartzaileek kukumarrua etxean egin eta argazkia bidali dezakete, kukumarruaren izena jarrita, [kulkiantzuola@gmail.com](mailto:kulkiantzuola@gmail.com) helbidera, hilaren 17ko 20:00ak baino lehen. Ondoren, herritarrek Hirix plataformaren bitartez bozkatzeko aukera izango dute, maiatzaren 22a bitartean. "Txorimaloak balkoietan eta atarrietan jartzeko dei egiten dugu". Irabazleak Antzuolako taberna batean afaltzeko 150 euroko bonua irabaziko du.

## Baserrietara bisitak

Herritarrek baserriak bisitatze-ko aukera izango dute gaur eta

**LUJANBIOK,  
AMURIZAK ETA  
GAZTELUMENDIK SAIO  
IBILTARIA EGINGO  
DUTE KAMIOI BATETIK**

asteburuan. Lapatza, Lamaño, Pikunieta, Iralatorre eta Bidaurre gertutik ezagutzeko, aurrez deitu beharko da, 943 76 62 46 telefonora. Familian edo talde txikian egingo dira bisitak. Gainera, interesa dutenek *Antzuola sortzen* youtubeko kanalera harpidetuz beste baserri batzuetako bisitak jarraitzeko aukera izango dute *online*.

## Pintxo lehiaketa

Taldea, txorizoa edo gazta dastatzeko aukerarik ez da izango postuetan. Halaber, herritarrek etxean prestatu dezakete familia giroan pintxoak. Irabazlearendako, afaltzeko 150 euroko bonua. "Erabilitako produktuetatik bik, gutxienez, Antzuolan ekoiztuak izan behar dute. Pintxoaren argazkiari izena jarri eta 630 45 51 14 telefonora Whatsapez edo [kulkiantzuola@gmail.com](mailto:kulkiantzuola@gmail.com) helbidera bidali. Udalaren Instagram kontuan ere publikatuko ditugu, #pintxonaneria traola jarritz", diote jai batzordekoek.



Antzuola taldea Eztalan, aurtengo denboraldiko partidu bat jokatzen. GOIENA

## Ibon Gezalaga: "Mailari eutsiko diogu; pozik gaude zaleengatik"

Futbol Federazioak denboraldia bukatutzat emanda, Antzuolak Erregional Preferente mailari eutsiko dio

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Martxoaren 8an eten zuen Gipuzkoako Futbol Federazioak 2019-2020 denboraldia; hala, orduko sailkapena hartu dute kontuan orain ze talde igoko diren erabakitzeke. Jaitsierarik, aldiz, ez da izango. Ondorioz, Antzuolako futbol sailak mailari eutsiko dio –bere multzoko Aloña Mendi igoko da–: 15. postuan daude, 20 punturekin.

"Oso pozik gaude, lan asko egin dugu eta kategoriari eutsi diogu. Bereziki herritarrengatik eta zaleengatik gaude pozik. Beheko kategoria oso zaila eta neketsua da, marrazainik ere ez dago, pentsa! Ilusioz eta motibazioz ekingo diogu irailean", azaldu du AKEko presidente Ibon Gezalagak.

Denboraldi berriari dagokionez, lehen taldean baliteke aldaketaren bat egotea, baina gaur-gaurkoz ez dagoela ezer baiez-

tatuta azpimarratu du Ibon Gezalagak: "Oraindik ez dago jakinarazpen ofizialik. Baliteke aldaketaren bat edo beste egotea bai jokalariei dagokienez, eta baita entrenatzailearen kasuan ere. Gainontzeko kategoriak, aldiz, esan dezaket ia bere osotasunean mantenduko direla eta apenas izango dutela aldaketaren bat edo beste".

## AKE eguna, bertan behera

Aurtengo AKE eguna, ordea, ez da ospatuko, COVID-19aren ondorioz. Zuzendaritzak hartu berri duen azken erabakia da AKE eguna bertan behera uztea eta datorren urtean ospatzea: "AKE egunaren izaera herritarrekin batera festa handi bat egitea da. COVID-19aren ondorioz oso zaila da horrelako jai bat egitea; beraz, datorren urtera atzeratu dugu; aurten egiteak ez baitu inolako zentzurik".

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

# "Erne gaude eta lanean jarraitzen dugu"

**NORA IBARRA SAN MARTIN EGOITZAKO BURUA**

Prebentzio neurriak hartuta eta kasu positibo baten aurrean nola jokatu garbi dutela, konfinamendu-arintzea prestatzen ari dira Oñatiko adinekoen egoitzan

## Oihana Elortza OÑATI

Oraindik ez da COVID-19 kasu positiborik atzeman Oñatiko San Martin egoitzan. Gaitz horrek egunerokotasunean zer aldaketa ekarri dizkien azaldu du bertako buruak, Nora Ibarrek.

### Zer moduz zaudete?

Ondo, denok gaude ondo.

### Ze neurri berezi hartu dituzue?

Hainbat. Langileen segurtasun kontingentzia planean jaso genituen neurri horiek. Martxoaren hasieran hasi zen talde bat hori lantzen: ile apaindegia eta kafetegia, esaterako, azkar itxi genituen. Arlo guztietan egin zen lanketa: espazioen eta pertsonen berrantolaketa egitea proposatu zen, eta sukaldariek eta hondakinen kudeaketarekin bete beharreko protokoloak ezartzea.

### Nola egin duzue espazioen eta pertsonen berrantolaketa hori?

Esaterako, gerokultoreak, osasun laguntzaileak, solairuetara mugatu ditugu. Eguneko zentroa itxita dago eta hango langileak adinekoen egoitzan daude orain, guri laguntzen. Langile guztiek maskarekin egiten dute lan. Bestalde, geletan aldaketa batzuk ere egin ditugu. Adibidez, gela bikoitzetan, osasun arazoren bat antzemanez gero bietako bati, senideei jakinarazten diegu eta isolamendu gelara eramaten dugu, proba guztiak egin arte. Negatibo emandakoan, euren gelara bueltatzen dira.

### Eta zer egingo duzue kasu positibo bat gertatzen denean?

San Martin egoitzan lehen mojak bizi ziren espazioa hutsik dago oraindik, eta hori prestatu dugu horrelako egoerak heltzen direnerako. Hamabost gela daude, sukaldak, komunak, bestelako gelak eta bulego bat. Eta gune hori da egokitu duguna. Dena dago garbituta eta baliabidez prestatuta positibo emanango duena artatzeko; zein langile joango diren ere zehaztuta dugu.



Nora Ibarra, Oñatiko San Martin egoitzako burua. AITA MENNI

## "GAKOAK IZAN DIRA HAUSNARKETA, ONDO EGOKITZEA ETA LANGILEEN INPLIKAZIOA"

### Zertan aldatu du egoera honek egoiliarren egunerokotasuna?

Solairu ezberdinetako ekintzak ezin dira egin, adibidez. Solairu berean dauden egoiliarren artean ekintzak areagotu egin dira, eta euren arteko harremanak sus-

tatu, isolamenduak sor ditzakeen egoera ezkorrek gutxitzeko eta buruko nahasmenez okerrera ez egiteko. Horrela, gimnasia, bingoa, egunkarien irakurketa... eta horrelakoak egiten ditugu. Bestalde, modu horretara, kasu positiboak egonez gero, lokalizata izango dugu eta hartu beharreko neurriak solairu horretako erabiltzaileekin hartuko genituzke.

### Denok egin dituzue testak?

Bai. Egoiliar zein langile guztiok egin ditugu, eta emaitza guztiak negatiboak izan dira.

### Eta nola antolatu dituzue senideen bisitak?

Hainbat fasetatik pasa dira familiakoen bisitak. Eten zituztenetik, hiru bide dituzte egoiliarrekin harremanetan egiteko: astero telefono dei bat egiteko aukera dute egoiliarrek, bideo-deiak egiteko bi gailu ditugu eta egunero erabiltzen dira deiak egiteko, eta, hirugarrenik, etxe-koek egunero deitu ahal dute hona ordutegi baten barruan; hiru ordu goizetan eta hiru arratsaldeetan.

### Bideo orokorrik ez duzue egin, baina bideo pribatuak bai, ezta?

Bai. Gizarte laguntzaileak egoiliarren asteko deia aprobetxatzen du senideen urtebetetze egunak noiz diren galdetzeko, eta egun horretarako bideo bat prestatzen dugu egoiliarrekin, senidearen urtebetetze egunean berari bidaltzeko. Bideo indibidualak eta pribatuak dira, zuzenean senideei bidaltzen dizkiegunak. Apirilean hasi ginen horrekin eta oso harrera ona izan du familien artean.

### Aurrez aurreko bisitak, noizko?

Ez dakigu; lehen fase honetan, behintzat, ez.

### Zer diote egoiliarrek bizi dugun egoera honetaz?

Harrigarri ondo egokitu dira. Etsipen egunak ere izaten dituzte, bai, baina itxaropentsu daude etxeak ikusteko.

### Nola ikusten duzue etorkizuna?

Erne gaude, eta lanean jarraitzen Orain, konfinamendu-arintzea prestatzen ari gara, nolakoa izango den pentsatzen eta horretarako hartu beharreko neurriak lantzen. Egindako hausnarketa faseak, egoerara egokitzeko egon den gaitasuna eta langileen inplikazioa dira, nire ustez, gakoak, gauden egoerara ekarri gaituzten zutabeak.

## Domekan hasiko dira aurrez aurreko elizkizunak Oñatin

Aurrez aurreko lehenengo elizkizunak Arantzazun, San Migel parrokian eta agustindarren elizan egingo dituzte asteburuan. Arantzazun eta parrokian 12:00etan izango da meza domekan, eta zapatuan, agustindarren elizan, 18:00etan. "Distantziak gordeko ditugu. Parrokian, esaterako, bankuak mugitu egin ditugu, eta, modu horretara, 200 pertsona sartuko dira", dio parrokoak, Horazio Argaratek. Aste barruko elizkizunei dagokienez, bakarria egingo dute egunero: 19:00etan. Meza batetik bestera 24 ordu pasa behar dira.

Jaunartzei dagokienez, urriera atzeratu dituzte aurtengo maiatzean egitekoak zirenak. "Urriaren 25ean izango da elizkizun bat, baina 50 ume dira eta bakoitzarekin ezin dira lau senide baino gehiago sartu parrokiara; beraz, litekeena da aurreko edo ondorengo domeketan ere izatea jaunartzeak egiteko mezak. Hori zehaztu gabe dugu oraindik", dio Argaratek.

## HAZ bulegoa zabalik dago, baina txanda hartu behar da


Herritarren Arreta Zerbitzuan aurrez aurreko zerbitzua ematen hasi dira. Aurrez hartu behar da txanda eta maskara jantzita joatea eskatzen dute. Ordutegia ohikoa da: 07:30etik 15:30era. Hondakinen kuboak aldatzeko zerbitzua, berriz, arratsaldeetan dago zabalik. Ez da txandarik behar, baina herritarrek udal-txera sartzea saihestuko dute.

## Kiroldegian egingo dute gaur maiatzeko odol ateratzea

Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan egingo dute gaur, egubakoitza, maiatzeko odol ateratzea. Aurreko hilabetean bezala, aurrez zita egin dutenek bakarrik emango dute odola. Emailleek aurrez jasoko dute gonbidapena, eta, onartuz gero, zein ordutan joan esango zaie, jenderik ez pilotatzeko ilaran. Emaille berririk ez dute hartuko.

## 77 egoiliar daude egoitzan

Egun, 77 egoiliar eta 67 langile daude San Martin egoitzan, zerbitzu osagarriak barne. Berez, 83 egoiliarrendako tokia dago, baina alarma egoeran ezin izan da pertsona gehiagorik hartu; erabaki instituzionala izan da hori. Ibarrek adierazi du adinekoek sendotasuna ari direla erakusten, beste behin, eta "momentu txarrei aurre egin behar" zaiela irakasten.



San Martin egoitzako pasilloan. AITA MENNI

# Kultura konfinamendua hasi da arintzen Oñatin

Ekainerako eta uztaierako hainbat kultur hitzordu daude lotuta dagoeneko, ume zein nagusiendako eta espazio irekietan zein itxietan. Iker Lauroba eta Ainhoa Larrañaga, bertso saio bat eta Ganbara daude, esaterako, 'Esku(ltu)ra' programaren barruan

## Oihana Elortza OÑATI

Etenda egon da aste batzuetan herriko kultura agenda, koronabirusaren krisiak eraginda, baina hartu dira egoera berria bueltatzeko lehen pausoak. Ekainerako eta uztaierako, hitzordu dezente ditu dagoeneko lotuta Udalak.

## Doan, baina txartelarekin

Bi hilabete horietarako egindako egitarau propio bat izango da eta *Esku(ltu)ra* izena izango du. "Kultur hitzorduak dira eta horiek herritarren eskura jarri gura ditugu. Eta ideia horien hitz-jokoa da *Esku(ltu)ra*. Ezohiko egoera honetan ez da zuzenean emankizunak egiteko aukerarik egon, auzoetako jai asko ere bertan behera gelditu edo egoerara egokituta ospatu dira. Eta horietan egin ahal ziren moduko ekintzak ere jaso ditugu egitarau honetan", dio Kultura zinegotziak, Iñaki Olalde.

Besteak beste, musika, zinema, ikuskizuna eta umore saioa jasoko ditu egitarau horrek eta doan izango dira denak. Hala ere, sarrera hartu beharko da, edukiera kontrolatzeko. "Emankizun asko espazio irekietan egingo dira, baina hor ere plazar mugatuak izango dira, espazio itxietan moduan, eta hori sarre-



Shakti Olaizola-ren *Baldin bada* familia ikuskizuna. GOIENA

ren bidez jakingo dugu. Kanpo espazio horiek ere ondo neurtuta eta adierazita egongo dira, agertokia non jarri eta jendea non egon adierazteko, adibidez", azaldu du Olalde. Txartelak online edo Txokola-teixan jarriko dituzte eskuragai.

## Eguaztenetik domekara

Egongo diren ekitaldien artean, adibidez, Amets Arzallusen hitzaldia da bat. Ekainaren 18an etorriko da, *Miñan* liburuarekin. Udal liburutegian egiteko asmoz hasieratik, baina, egoera

berrira egokituta, zinema aretoan izango da. Musikari dagokionez, Ganbara abesbatza, Bizarro taldea eta Iker Lauroba eta Ainhoa Larrañaga bikotea aipatu daitezke. Bizarro taldearekin batera Oñatiko beste talde batek ere joko du, eta posible da kontzertu hori *streaming* bidez ematea gaztelektutik. Magia, bertso eta umore saio bana, aire libreko zinema emanaldia eta familian gozatzeko ikuskizuna ere egongo dira. Ekitaldiak eguaztenetik domekara bitartean izango dira; gehienak, 19:00etan.

## Emantzipatzeko dirulaguntza eska dezakete gazteek

Udalaren dirulaguntza 18 eta 35 urte artekoendako da aurtan, eta nola jaso ere erabaki ahal izango dute

### O.E. OÑATI

Zabalik dago gazteen emantzipatzeko dirulaguntza eskatzeko epea. Bi berritasun ditu aurtan: 18 eta 35 urte artekoek eskatu ahal izango dute orain arte, 30era artekoak, eta, bestalde, laguntza hori nola edo zein maiztasunekin jaso ere erabaki ahal izango dute; hau da, hilerro, bi zatitan edo ordainketa baka-rean, esaterako. "Argi dugu gazteek emantzipatze prozesuan dituzten trabak leuntzeko bitartekoak jarri behar ditugula; are gehiago, egungo alarma testuin-

guruak eta ostekoak gazteengan izan ditzaketen eraginak ikusita", adierazi du Iker Oñatek, Haur eta Gazteria zinegotziak. 50.300 euro inguruko poltsa du Udalak gazteen emantzipazio dirulaguntzetarako.

Laguntzen eskaera egiteko bi modu daude: HAZ bulegoan edo telematikoki. Kasu horretan, Bak edo BakQ ziurtagiri digitalak erabili behar lituzke eska-tzaileak. Bestalde, Jaurilaritzak martxan duen Gaztelagun emantzipazio laguntzen tramitea ere HAZen egin daiteke.

## NIRE USTEZ



ESTEBAN IRUSTA

## COVID-19a

Une berezi honetan, komunikabideetan, bizitzaren arlo guztietan eragina izan duen birus hau da gai nagusia eta ia bakarra. Mundu osoan, jendea, ume, gazte, zahar, aberats, txiro, ahaltu, ahul, jakintsu, ezjakin, denak belaunikatuta, burumakur jarri ditu bere menpe. Ez da gutxiagorako. Ez da inoiz ezagutu holakorik. Hilabete eta erdi pasa ondoren, hasierako neurri gogorrek bigundu zituztenean denok beharrezko askatasun pozgarria sentitu genuen. Batzuek gehiago, etxeen eta bakoitzaren egoeraren arabera. Galdera asko daude airean: birus hau gainditzeak zer kostu izango duen eta etorkizunean zer nolako ondorioak izango dituen mundu guztian. Badirudi errotutako ohitura asko aldatu beharrean izango garela, ez epe motzean bakarrik. Zeren honelako izurriteak errepikatuko omen dira, eta ez dira arazo bakarrik izango. Hemen dugu, gure gain, irtenbide zailagoa izango duen klima aldaketa, nahiz eta une honetan gai hau alboratuta egon hedabideetan. Ez da baztertzeko gizakiok zorigaiztoko esperientzia honetaz irakurketa egokia egitea eta giza balioen lehentasunen gai-zerrenda aldatzea.



ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

# "Sekulakoa izan da Lehen Mailara igotzea"

**EIDER EGAÑA** EIBAR TALDEKO FUTBOL JOKALARIA

Futbolzalea da Eider Egaña. Aloña Mendin ibili da eta Eibarren egin ditu azken lau denboraldiak. Lehen Mailari eusteko moduko taldea dutela uste du

## Oihana Elortza OÑATI

Konfinamenduan, etxean, jaso zuen Lehen Mailara igo ziren notizia Eider Egañak (Oñati, 2002). Oraindik sinetsi ezinik, "behar bezala" ospatzeko gogoz dago.

### Zorionak!

Eskerrik asko.

**Lehen Mailan jokatu duzue datorren urtean. Handia da gero, ezta?** Sekulakoa, bai.

**Etxean zinela jaso zenuen notizia. Zer egin zenuen hori jakitean?**

Negar. Entrenamendu saio baten izan zen. Jokalari guztiok geunden etxean, entrenamendua telematikoki egiten, konektatuta; bat-batean, Eibarko presidentea agertu zen. Hark baieztatu zigun mailaz igo garela eta Lehen Mailan jokatu dugula datorren denboraldian. Uste dut denok egin genuela negar, pozarren.

**Denboraldi ona egin duzue, eta gerta zitekeen hori, ezta?**

Bai, ondo joan da, eta gero eta gertuago ikusten genuen aukera hori. Denboraldia etenda zegoenean zurrumurruak ere bazeuden, baina ziurtasun hori falta zitzaigun. Denboraldiarekin zer gertatuko zen ez genekiela pasa ditugu aste batzuk. Agian, jarraipena izango zuela uste genuen, eta horretarako entrenatzen ibili gara aste hauetan ere etxetik, erritmo onean bueltatu eta lehiatzeko. Baina jada ofiziala da, bai.

**Azken momentura arte jarraitu duzue entrenamenduekin, beraz.**

Bai, bai. Asteko entrenamenduak lehen bezalakoak izan dira; astean bost aldiz elkartu gara denok batera entrenatzeko. Pixka bat motzagoak izan dira, agian, denbora aldetik.

**Nolakoa da zure aste arrunt bat?**

Berriz entrenatzen gara, astean lautan. Iluntzean izaten dira entrenamenduak, eta etxera orduko, nahiko berandu. Gurasoen pazientzia lagungarria izan da bidaia horiek egiteko.



Eider Egaña Bikuña oñatiarra, Unbeko futbol zelaian. JAVI LUZURIAGA

**Entrenamendurik ez duzun egunean, eguaztenetan, Azkoagainera joaten zara, Aloñako atezainak entrenatzera. Eta asteburuetan Aloñako partiduak arbitratzera.**

Bai. Atezain mutilak entrenatzen zituen lagun bat nuen ikaskide. Neskak ere hasi zirela esan zidan, eta laguntzeko prest egongo nintzatekeen galdetu. Ez dut entrenatzaile titulurik, baina dakidana erakusten saiatzen naiz. Eta arbitro lanak ere antzera; futbola gustatzen zait.

**Beharrezkoa da atezainek euren entrenatzaile propioa izatea?**

Uste dut baietz. Atezainok beste bizitzeko era bat dugu, eta partidua ikusteko era hori, erantzukizuna sentitzeko modu hori hobeto ulertzen du atezainen entrenatzaileak entrenatzaile orokorrak baino. Mikel Saizarrekin entrenatzen naiz nik, zorte handia dut. Bera oraindik jokalaria da, eta hori plus bat da. Saio batzuk berarekin eta beste batzuk entrenatzaile orokorrekin, Iker Dorronsororekin, egiten ditut, talde bat gara eta. **Talde kontzeptu hori asko landu duzue, ezta?**

Bai, eta uste dut hori dela gaurko egoeraren gako.

**Lau denboraldi egin dituzu Eibarren, eta gorengo taldearekin ere jokatu duzu. Pozik?**

Oso. 13 urte nituela hasi nintzen Eibarren, eta orain arteko esperientzia oso-oso ona da.

**Nolako taldea da Lehen Mailan jokatu duena?**

Talde berri bat da, aurten sortutakoa. Jokalariak zein gurekin lan egiten dutenak, denak ginen berriak. Harritu egin gaitu gu ere. Datorren denboraldiari begira litekeena da aldaketaren bat egotea, baina esperientzia duen jendea duen taldea da, gazteak ere badaude. Lehen Mailari eusteko gai den talde bat dela uste dut.

**Andaluzia, Galizia, Katalunia... desplazamendu luzeagoak egin beharko dituzue.**

Bai; aurten, Galizian jokatu dugu, eta gure arteko erlazioa sendotzeko aprobetxatu dugu, adibidez, autobusean egindako bidaia. Ez dakit hurrengo urteko bidaiak nola egingo ditugun.

**Hango taldeen kontra ez ezik, etxekoen aurka ere lehiatuko zarete. Athleticek eta Realaren kontrako derbiak izango dituzue.**

Ederra izango da hori. Uste dut denoi egin digula ilusioa gu gora igotzeak, eta denondako izango dira bereziak partidu horiek.

**Nola jarraitu duzu emakume futbolarien borroka lan baldintzak aldarrikatzeko?**

Taldeko gazteenetakoa naiz, eta, agian, beste batzuek nik baino zorrotzago jarraituko dute gaia, baina hitz egin dugu horren inguruan, bai. Atxikimendu bideo bat ere egin genuen. Uste dut pauso handia izan dela.

**Zer eman dizu Eibarrek?**

Futboleko egiteko aukeraz gain, diziplina, konpromisoa eta antolaketa, adibidez. Eta lagunak ere eman dizkit.

**Futbol jokalariai erreferente bihurtzen dira, maiz, askorendako. Nor miresten duzu zuk?**

Claudio Bravo, adibidez, asko jarraitu dut. Egun, Bartzelona taldeko Sandra Paños, adibidez, eta Marc-Andre ter Stegen alemaniarra.

**Eibarko lagunarterik ez dago orain Oñatin, baina nork daki.**

Kar, kar, kar.

**Ikasketak eta futbola. Nola uztartuko dituzun pentsatu duzu?**

Ez, baina biak egiteko asmoa dut. Futboleko plangintza jasotzean moldatuko naiz.



Liburu mordoa. FREEPIK

## 'Zu ere kontalari' ekimena udal liburutegian

100 euro zozkatuko dituzte parte hartzen duten ipuin kontalarien artean

### O.E. OÑATI

*Zu ere kontalari* du izena udal liburutegian martxan jarri duten ekimen berriak. Haurrei zein nagusiei bideratuta dago eta helburua da ipuinak kontatzea. "Eurek gustukoa duten ipuina aukeratu, eta kontakizuna bideo baten grabatu eta guri bidaltzea. Horixe da ekimen honetan eskatzen duguna", dio Arantzazu Ibarrondok, udal liburutegiko arduradunak. Egindako bideo hori liburutegira helarazteko bideak dira: Facebook, Twitter, Whatsapp eta posta elektronikoa. Eta eskatzen zaiena da denei guztiei #onatikoudaliburutegia traola idaztea.

Herritar guztiei dago zuzenduta ekimena eta parte hartzen dutenak zozketa zerrenda batean sartuko dituzte liburutegiko langileek. Partaide guztien artean liburutegian gastatzeko 100 euro zozkatuko dituzte. Ipuin kontaketak bidaltzeko epea maiatzaren 31n bukatuko da.

Apirileko ekintzek ere, online emandako hitzaldiek, erantzun oso ona izan zutela adierazi du Ibarrondok, eta eraikina bera itxita dagoen arren lanean jarraitzen dutela gaineratu, ahalik eta zerbitzu gehien eskaintzeko herritarrei, "beste modu batean izan arren".

# 'Ttap' berritua eskuragarri!

+



'Gorabeherak'  
websailarekin!

**ttap**

Irakurri, ukitu,  
ikusi, entzun.

**DOAN**

Euskarazko aldizkari  
digitala, deskargatu  
astero zure mugikor  
edo tabletan



# Kantxan lortutako igoera bertan ospatu gura zuten

Ligako jardunaldi guztiak jokatu barik lortu dute mailaz igotzea, federazioetako ordezkariak bulegoetan hartutako erabakiaren ondorioz. Baina inork ez die ezer oparitu, justiziazko saria izan da, urte osoko lanaren ordaina

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Kirol federazioak hasi dira denboraldiak zelan amaitu erabakitzen, eta euretako askok ofizial egin dute lehenengo sailkatuta dauden taldeak mailaz igoko direla. Kontrara, sailkapenean azken postuan daudenez ez dute maila galduko. Erabaki salomonikoa, horrenbestez. Eta Deba-goieneko talde askok arnasa hartu dute, hilabeteak zeramatzatelako erabaki horren zain. Arnasa hartu dute, baina penatuta ere badaude, igoerak kantxan ospatu gura zituztelako.

**ALOÑA MENDI FUTBOL TALDEA**

## BERGARA, UDA, MONDRA ETA ALOÑA MENDI BATUKO DIRA OSTERA ERE LIGAN

Oñatiko futbol talde nagusia dagokion tokira itzuliko da azken hiru urteotan erregional preferentean jokatu eta gero. Iaz ere mailaz igotzeko borrokan egon ziren, gutxiगतik ez zuten lortu, eta, egindako akatsetatik ikasita, aurten kategoriako oilar bilakatuta zeuden Endika Ruizen mutilak. Zortzi jardunaldiren faltan zazpi puntuko aldea zuten, eta bigarrenaren -Lagun Onak- kontra jokaturako bi partiduetan oñatiarrek aldeko zuten emaitza. "Modu berezian igo gara, baina pozik gaude", dio Endika Ruizek. "Erabaki logikoa izan da eta aurtengo helburua beteta geratu da".

Eta, normala den moduan, Gaizka Irizar taldeko kapitaina ere iritzi berekoa da: "Bi hilabete generamatzen gai honekin espekulatzen, eta pertsonalki uste nuen mailaz igotzen amai-

tuko genuela. Hala, erabaki ofizialaren berri izan genuenean izugarri poztu ginen denok, zorion mezuak bidali genizkion elkarri, baina ospakizuna falta zaigu eta deseatzten gaude, sikiera. Azkoagainen elkartu eta modu batera edo bestera ospatzeko. Ea mahai baten bueltan noiz batzen garen denok".

Ikusteko dago, baina, irailean ligak normaltasunez bueltatuko diren. Hori da mahai gainean dagoen beste zalantzetako bat, eta inork ez du erantzunik. Eta, atzerapenen bat balego, edo denboraldi erdian etenen bat, egutegiak asko estutuko lirarteke.

**LEINTZ ARIZMENDI FUTBOL TALDEA**

## EUSKAL LIGARA IGO DIRA, ETA TALDE LEHIAKORRA IZATEKO ESPERANTZAREKIN

"Igoera zelaian ospatu gura genuen, baina ez da posible izan. Hala ere, oso pozik gaude jokariengatik eta baita denboraldian zehar babestu gaituzten zaleengatik ere, urte osoko lanaren saria izan da hau", adierazi du Andoni Ezkurrak. Hala, datorren denboraldian Leintz Arizmendik Euskal Ligan jokatuko du, aurten erakutsi dute eta ohorezko erregionala txiki geratu zaiela. Eta entrenatzaile arrasatearrak uste du Euskal Ligan lan txukuna egiteko moduko taldea izan dezaketela: "Duela bi urte, maila horretatik jaitsi ginen, muzin egin genion kategoria horretan jokatzeari, ikusten genuelako taldean aldaketa handiak izan behar genituela eta ez ginela lehiakorrak izan behar".

Izan ere, Ezkurrak ondo gogoan du duela urte gutxi batzuk bizi izandako denboraldi gogorra: "Bigarren mailara igotzea lortu genuen, orduan gaur egun baino kategoria gutxiago zeuden eta batetik besterako saltoa izugarria zen. Hala, jokalariek aurreko urtean egindako lana saritzeko eta kategoria zorrotz horretan trebatzea positiboa izan zitekeela uste genuelako erabaki genuen baietz, Bigarren Mailan jokatzea, eta gero, denboraldi izugarri gogorra izan zen, partidu asko gol askoko aldeagatik galdu genituen, eta ez zen erabaki ona izan".

Ordutik, baina, aldaketa handiak egon dira emakumezkoen futboleant: "Lehen aipatu moduan, orain kategoria gehiago daude, eta Euskal Liga gure neurriko kategoria izan daiteke; hau da, erronka polita izango da taldearendako". Kontuan izan behar da, gainera, aurten Aloña Mendiko taldea ere batu dela proiektura, eta horrek indartu egin ditu: "Helburua da eskailera moduko bat sortzea, kategoria ezberdinetan taldeak izatea, eta ibarreko neskei futboleant egiteko aukera ematea".

**BERGARA ETA ARETXABALETA**

## HARROBI SENDOA DUTE, GAZTE ETA KADETE MAILETAN EUSKAL LIGARA IGOTA

Kategoria txikiagoetan ere nabarmentzekoa da UDAko gazteek eta Bergarako kadeteek lortutakoa, Euskal Ligara igo dira-eta bi taldeak. Aretxabaletak sekulako denboraldia zeraman, pandemiak dena geldiarazi zuenean.



Muko jokalaria Atxa, kontrarioaren presioa gainditu guran. GOIENA



Kadete mailako Bergarak Euskal Ligan jokatuko du. BKE



Ingou Aloñak debuta egin duen urtean lortu du mailaz igotzea. GOIENA



Guztira 64 puntu zituzten, eta bigarren sailkatua –Lagun Onak– 49 punturekin zegoen; hamabost puntuko aldea zuten, horrenbestez. Hala, kategoria horretan puntako taldea izatea beti izaten da emankorra goiko taldera begira, belaunaldi ona datorren seinale izaten da, eta lehenagotik ere Aretxabaletako gazteek jokatu izan dute maila horretan, baita maila nazionalen ere.

Bergarak, kontrara, klub mahoneroaren historian lehenengoz izango du kadete mailako taldea Euskal Ligan. Hala, Ibon Leibarrek eta Manu Diazek zuzentzen zuten taldeak kadete mailako ohorezko mailan 57 punturekin egingo du gora, eta hor debagoiendarren arteko lehia polita izan dute: Aloña Mendi zegoen bigarren postuan, 55 punturekin, eta Aretxabaletako UDA zen hirugarrena, 53 punturekin.

INGOU ALOÑA

## LEHENGO URTEAN MAILAZ IGOTZEA LORTU DU ARETO FUTBOLEKO TALDEAK

Areto futboleko Eskoriatzako jarraituko du Debagoienean erreferente izaten, maila nazionalen jarraituko du eta –sailkapenaren erdian zeuden–, eta Aretxabaletak eta Mondratek Euskal Ligan jarraituko dute. Hala, Gipuzkoako hirugarren mailan jokatzeko zebilen Ingu Aloña eman du saltoa, Anoeta taldearekiko puntu bateko aldearekin onatiarrek lortu dute eta mailaz igotzea. Eta ez da balentria txikia, areto futboleko taldea sortu eta lehenengo denboraldian lortu dute eta mailaz igotzea.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

## OINTXE!: POSIBLE DA ZILARREZKO MAILAN JOKATZEA? ORAINDIK EZ DUTE ERANTZUNIK

Espainiako Saskibaloia Federazioak erabaki du EBA mailatik sei talde igoko direla zilarrezko LEB ligara, eta, hori adierazi ondoren, gainontzeko erabakiak lurraldekako federazioen esku utzi dituzte. Eta hor, Ipar zona-ko federazioek –zazpi dira guztira– *patata beroa* dute esku artean, hain zuzen, euren multzoan bi azpimultzo daudelako. Hau da, bi hautagai daude Zilarrezko LEB kategoriara igotzeko. "Mondragon Unibertsitatea da talde horietako bat eta bestea Salamancako Alquimisa Carbajosa taldea da. Eta hemengo federazioen esku utzi dute bietako nor igoko den erabakitze eskumena", dio klub zuri-moreko zuzendaritzako kide Jose Mari Balzategik. "Eta hor dago arazoa, ez dakigula zer irizpide erabiliko duten erabakia hartzeko. Horrenbestez, Ointxe!-tik erabaki dugu guk gure interesak defendatu behar ditugula, gure multzoko lehenengo postuan geundelako, eta hori da Euskadiko Federazioari egin diogun eskaera. Salamancako klubeko ordezkariekin ere jarri gara harremanetan, ea zer dioten ikusteko, eta eurek euren defendatzen dute, eta normala da. Diote ligan jokatuak 20 partiduak irabazi egin dituztela; alde horretatik, guk baino datu hobekak dituztela. Ados, zenbakiek hori esango dute, baina, akaso, bi multzoen artean dagoen taldeen maila ezberdina da, eta gure multzoan egongo balira ez zuketuen lehenengo postuan amai-

tuko. Hori ez dago jakiterik, eta euren argudioak ez dira nahikoa guretako. Hala, bietako nor igo behar den erabakitze final bat jokatzeko prest gaudela adierazi dugu. Garbi dago orain gauden egoeran hori ez dela posible, baina udan jokatzeko prest egongo ginateke, adibidez", dio Balzategik. Bistan da Ointxe! klubak aukera guztiak agortu gura dituela; zentzu horretan, *hordagoa* bota dute, kantxan hilabetetan egindako lanaren fruitua ez diote eta inori oparitu gura.

Hori horrela, gauza bat da zazpi federazioek zer erabakitzen duten ikustea –datozen asteotan emango dute erabakiaren berri eta beste gauza bat da ea bidegarria den Ointxe! Zilarrezko LEB mailara igotzea. "Hori ere aztertu egin gura dugu, ez dugu ezer galtzen hausnarketa egiteagatik, eta klub barruan badihar dugu horretan. Hala, dagoeneko Arrasateko Udalarekin jarri gara hartu-emanetan, eta baita Diputazioarekin ere. Izan ere, kategoria horretan jokatzeko hainbat baldintza jartzen dituzte; kantxako lurzoruari dagokionez eta saskie dagokienez, esaterako. Aurrekontu handiagoa behar da, baina badakigu, baita ere, maila horretan egonda Kiroldi barruan egoteko eskubidea izango genukeela. Horrenbestez, egoera zein den aztertu gura dugu, baina garbi esango dut gauza bat: klubean lehenago bizi izan genituen esperientziak ere oso gogoan ditugu, eta garbi dugu mailaz igotzearen ez dugula Ointxe!-ko gainontzeko kategoriak hipotekatzeko inongo asmorik.

Kategoriak igotzearen *saltsa*, baina, ez da hor amaitzen, Lehen Nazional mailara igotzeko borrokan zebilen eta bigarren taldea, Alkideba: "Taldea hirugarren dago, baina aurreko bi sailkatuek baino partidu bat gutxiago jokatuta, eta hori ere ez da bidezkoa. Eta egoera hori ere ondo aztertzeko eskatu diogu Euskadiko Federazioari".

ARRASATE RUGBY TALDEA

## EUSKAL LIGAKO LEHEN MAILARA, PARTIDU GUZTIAK IRABAZI ETA GERO

Arrasate Rugby Taldeko mutilek ligan jokatuak hamasei partiduak irabazi eta gero txapel dunen izendapena merezi dute,



Duela bi urte jaitzi eta gero, Euskal Ligara itzuliko da Leintz Arizmendi. GOIENA



Aloña Mendi Ohorezko Erregional mailara itzuliko da hiru urte igaro eta gero. GOIENA

baina, kategoriak igoko badira ere, ez dute halakorik jasoko. Izan ere, hori da Euskadiko Errugbi Federazioak hartutako erabakietako bat. "Txapelketak amaitu barik daude, eta hori izan dute kontuan erabakia hartzeko, ez da inongo txapeldunik izango gizonezko seniorren lehen eta bigarren mailetan, ezta 18 eta 16 urtez azpiko kategorietan ere", dio Julen Barrutia entrenatzaileak. "Hala ere, moralki txapeldunak sentitzen gara, nahiz eta Federazioak titulu hori ez eman".

Baina hori gutxienezkoa da, duela bi urte galdu zuten kategoriara itzuliko dira, Euskal Ligako Lehenengo Mailara: "Argi eta garbi geratu da Bigarren Mailan onenak izateko gai garela, eta orain, gure maila goiko kategorian erakutsi beharra daukagu". Ondo dakite, baina, kategoria zorrotza dela goikoa, eta kontrarioek aurten baino gehiago estutuko dituztela. "Baina aurten izan dugun erosotasun eremu horretatik irroteak mesede egingo digu guztioi".



Gazte mailako UDAk Euskal Ligara igotzea lortu du. UDA

# Euskal naziotasuna oinez eta kantuz aldarrikatzeko

Uztailaren 14tik abuztuaren 1era bitartean, mendia eta kultura uztartu nahi dituen Urmuga ekimena egingo dute, Euskal Herria osoa zeharkatuta; punta-puntako euskal musikariek hamalau kontzertu eskainiko dituzte, mendi gailurretan eta herri txikietan

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Txikitatik dira lagunak Felipe Uriarte mendi-gidaria eta Migel Zeberio Et Incarnatus orkestrako zuzendaria; biak dira mendizaleak eta kulturazaleak. *Oxigenoa euskarari 6000 metroan* ekimena abiatzeaz zuela, musikariak elkarrekin proiektu bat egitea proposatu ziola kontatu du Uriartek: "Himalaian nengoela, Migelen proposamenari –musika eta mendia bateratzea– buelta batzuk ematen hasi nintzen, eta burura etorri zitzaidan Urmuga zeharkaldia egitea. Euskal Herria ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen ertz luzeari esaten zaio Urmuga, eta bide hori jarraituz egingo dugu zeharkaldia. Urmugak mugak dira batzuentzat, baina nabarmena da mugen joera eta intentsioa, eta gure iritziz, Urmugak ez du Euskal Herria bereizten, josi baizik, mendebaldea ekialdearekin eta hegoa iparraldearekin; musika bitartez eta oinez, Urmugak josi egiten gaituela aldarrikatu nahi dugu".

Uztailaren 14an abiatuko dute zeharkaldia, Angulo Bortun (Salvada mendilerroa, Araba) eta, dana ondo bidean, abuztuaren 1ean borobilduko dute, Hiru Erregeen Mahaiaren gailurrean (Añamendiak).



Kultura eta mendizaletasuna uztartzen ditu Urmuga zeharkaldiak. URMUGA

## "Inoiz baino beharrezkoagoa"

Gaur egungo egoerak ez die bermatzen egitarau osoa bere horretan egiteko moduan izango direnik, eta hala ari dira egunero moldaketak egiten. "Zurrumbilo dinamika baten sartuta gaude, eta berregituratzen

## "KIROL ERRONKA BAT BAINO, KULTURALA ETA POLITIKOA DA URMUGA GEHIAGO"

FELIPE URIARTE, MENDIZALEA

ari gara hasieran genuen ideia hori; izan ere, uste dugu aurrera egin beharra dugula proiektuarekin", dio Migel Zeberio, eta hala jarraitu du Uriartek: "Une zaila da halako ekimen bat aurrera ateratzeko. Azken bi hilabeteetan oso egoera txarrean

## "HIRIETAN EGITEN DIREN EKITALDIAK HERRI TXIKIETARA EKARRIKO DITUGU"

MIGEL ZEBERIO, MUSIKARIA

ari gara lan egiten, informazio eskasarekin. Itxialdia hasi zenean, gauzak oso ondo zihoazen, harreman sendoa genuen hainbat udalekin, kontzertu batzuk ere lotuta genituen, promo-bideoak ere eginda... Orain, bi hilabete ondoren, Urmuga itsaso zakarrean nabigatu nahian dabilen belaontzia da. Dena den, ekimena sortu genuenean, emankorra zela uste genuen; hau da, naziogintza bultzatzea, mendizaletasuna eta kultura eta musika nahastuz, eta orain, maiatz erdian, beharrezkoagoa dela ikusten dugu; izan ere, giroa nabarmena da orain: kultura zokoraturik, euskara egunero gure telebistetan gutxietsita, genuen autogobernu txikia desagerturik... horregatik guztiatik inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu Urmuga burutzea".

Erakundeei dagokienez, oraingoz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Sailaren babesa bakarrik dutela dio Uriartek: "Pozik gaude bermatuta dugulako Aizkorriko gailurrean egin nahi dugun kontzertua egitea. Pentsa zelako sinbolikoa izango den, Maddi Oihenart beste musikari batzuen laguntzarekin – baldin eta Frantziako muga pasatzeko baimena ematen dioten – Aizkorri kantuan entzutea. Hortik aurrera ez dugu, beste erantzunik jaso; gainontzeko erakundeak desagerturik daude: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako gobernu, Iparraldeko Erkidegoa... Hala ere, ez gara etsitzen; alderantziz, gogoan pizten digu. Garai ilun honetan ezinbestekoa da burua ateratzea nola edo hala".

## Hamalau kontzertu

Hemeretzi mendi ibilaldi izango dira guztira, eta ibilbidean zehar ez da mendian lo egingo, egu-

neko ibilaldia amaitzean inguruko herri txikietak aterpe edo ostatuetan baizik. "Adin eta profil ezberdineko mendizaleentzako aproposa da. Jardunaldiak luzeak dira, eta, oso gogorrak izan gabe, ez dira makalak; dena den, Urmuga ez da kirol erronka bat, ekimen poetikoa eta kulturala da, hausnarketa espazio bat zabaldu nahi duena. Parte hartzeko modu ezberdinak daude: zeharkaldi osoa eginda edo asteko zein asteburuko programa aukeratuta, horiek guztiak ordainpekoak dira, baina, era berean, guztiak gonbidatuta zaudete egun zehatzetako ekitaldietan ere parte hartzeko".

Belaunaldi eta estilo ezberdineko "erreferentziako" euskal artistekin ari direla egitaraua osatzen azaldu du Zeberio: "Mendian, formatu txikiak emanaldiak izango dira; asko jota, bost musikarirekin. Eta partaide horien artean izango da "izen handiko" artista bat edo gehiago. Mendietako zazpi kontzertu horiez gainera, beste zazpi egin nahi ditugu landa eremuko herri txikietan, eta hasierako asmoa da formatu handiko emanaldiak egitea; hau da, kontzertu bakoitzean, orkestra zein bestelako formazioetako musikariak dozena erdi bat artistarekin batzea da gure nahia. Emanaldi horiek guztiek ordainpeko sarrera-boluntarioa izango dute".

## Izen ematea zabalik dago

Motel samar bada ere, ari dira zeharkaldian parte hartzeko eskariak jasotzen; gehienez, 30 lagunendako tokia dute. *Mendiaketaherriak.eus* atarian dago informazio gehiago; izena emateko, deitu 685 75 07 63 telefonora edo idatzi *info@mendiaketaherriak.eus* helbidera.

# BELAKO

GOIENA TELEBISTA, KONTZERTUA  
MAIATZAREN 16AN, ZAPATUAN, 22.00ETAN  
BABESLEA: SALA BBK

goiena  
Zu hemen zaude.





Iban Idigoras, Iñigo Palacios, Aitor Regueiro, Tommaso Galati eta Aixibar Urtega dira Bizarro talde berria. BIZARRO

# Hipokrisiari, rock ilun zaporeko haginkadak

"Gizakion miseriei buruzko" bost kantu batu ditu Bizarro taldeak argitaratu berri duen 'Deshumanizazioa' bilduman; asteen hasi dira kantuak sarean aurkezten eta USB formatu fisikoan argitaratzeko asmoa dute kontzertuekin hasteko aukera dutenean

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Potemkin taldea banatu zenean, taldekide ziren Iban Idigoras eta Aixibar Urtegak entsegu-lokalean elkartzen jarraitu zuten kantu berriak sortzeko; eta hala ari zirela, kuadrillako-lagun Iñigo Palacios gitarra-jolea batu zitzaion. "Oñatin bizi den Tommaso Galati musikari eta soinu teknikari italiarra entsegu-lokalera etortzen hasi zen geroago, eta taldera batu zen bera ere, gitarra-jolea da. Laurak kantuak konposatzen hasi ginenean, Aixibarrek esan zigun baxua jotzea beretako gauza berria eta nahikoa erronka zela, eta hala proposatu genion Aitorri abesten pisu handiena hartzeko. Bakar-lari ibili izan da, baina segituan baiezkua eman eta ederto moldatzen da", kontatu du Iban Idigoras bateria-joleak.

## Ilunak eta amorrutik abestuta

2018an sortu zuten Bizarro boskotea, eta rock iluna, tristea eta gogorra egiten dute. Musika


eragin edo gustuei dagokienez, "bakoitza bere amarena" dela diote, iturri ezberdinetatik edan dute, eta horien guztien nahasketatik sortu dutela Bizarro: "Iñigok metal asko ekarri du; Aixibarrek eta biok, stonner eta rock-and-roll eraginak; Tommaso italiarrak oso musika ezberdina entzun izan du; Aitor musika arloan entziklopedia bat

da. Abestiak ilunak, tristeak eta amorrutik abestutakoak dira. Batik bat, hipokrisiari bost haginkada dira kantuak, bakoitzak atzetik bere istorioa duen arren".

Eltziako eraikinean, Zai Zoi Bele kolektibokoek duten lokaletan, grabatu dute. "Lan oso luzea eta gogorra izan da, eta bukatu genuenean etorri zen COVID19a; beraz, *online* egin dugu beste guztia. Nahasketak Tommasok egin ditu, etxetik; eta masterizazioa Milango PM9 estudioan egin ditu Tommasoren lagun Stefano Mariani puntako soinu teknikariak".

## Formatu fisiko, USBan

Ez dute CD edo biniloan aterako, USB formatuan aukeratu dute. "Kontzertuekin hasten garenean aterako dugu. Kantuak, argazkiak, bideoak eta beste sorpresaren bat ere jasoko ditu. Zuzenekoak noiz egin ahalko diren ez dakigunez, sare sozialetako gure profilen bitartez hasi gara zabaltzen aste honetan".



## 'DESHUMANIZAZIOA'

- **Estiloa** Rock iluna.
- **Autoekoiztua.**
- **Non grabatu** Zai Zoi Bele kolektiboaren lokaletan; eta PM9 estudioak masterizatu.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko maiatzeko sariak!



#### Telebista LG 32"

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



#### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: klub@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Informazio: 09151000 laguntza eta aholkularitza. Sare sozialetan: @goienakluba. Zuzeneko: 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena goienakluba.eus/irabazlearen-izena

## Irabazi bi lagunendako otordua

### MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: Maiatzaren 19a da



943 25 05 05



klub@goiena.eus



KLUBA Jateetxe

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkide-tza: 56€

Deitu: 943 25 05 05 • klub@goiena.eus

goienakluba  
Euskara irabazle, denak irabazle!

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN  
HARTU

**Bergara.** Hiru pertsona-ko familia bat gara eta errentan hartzeko etxebizitza bila ari gara. Badaukagu lana. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 608 03 51 50 (Garazi)

**Bergara.** Soziosanitario titulua daukan emakumea arratsaldetan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 78 43 (Mari Carmen)

**Debagoiena.** Errentan hartzeko pisu bila dabilen bikote bat gara. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 651 64 55 05

**Ofiati edo inguruak.** Ofiatio unibertsitateko ikasleak gara eta bi logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. WhatsApp mezua bidali: +39 333 8012675 edo 602 06 64 45

**Ofiati.** Ikasle bikotea gara eta logela bat hartuko genuke errentan. Ofiati edo inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 06 64 45

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** 75 urteko emakumeari laguntza eman eta etxeko lanak burutzeko emakumezko eskulduna behar da goizetan 4 orduz. Titulu ofiziala beharrezkoa da. Kontratuarekin. Interesatuok idatzi mezua edo deitu: ulexminor@hotmail.com edo 680 61 96 99

## 402. ESKAERAK

**Bergara edo Arrasate.** Bergarako neska gertu, goizez, arratsaldez edota gauzez, umek eta nagusiak zaintzeko. Baita bulego eta abarrak garbitzeko ere. Deitu 34 97 88 telefonora.

**Bergara.** Neska eskulduna lan bila: umek zaindu, etxeko lanak egin, garbiketak eta abar. Esperientzia daukat arlo horietan. Irakasle titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 03 51 50 (Garazi)

**Bergara.** Soziosanitario titulua daukan emakumea arratsaldetan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 78 43 (Mari Carmen)

**Debagoiena.** Asteburuetan eta astean zehar, egunez, nagusiak edo umek zaintzen zein garbiketetan lan egingo nuke. Legezko agiriak eta lanerako titulazioa daukat. 662 02 45 80

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu orduka, egun eta gau solteetan edota asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta beharrezko agiri guztiak. 685 22 54 01

**Debagoiena.** Esperientzia eta gomendio agiriak daukan Nikaragua-ko neska nagusiak zaintzeko edota garbiketetan lan egiteko gertu. 600 86 41 39

**Debagoiena.** Garbiketetan, etxean bizi izaten edo egunean zehar nagusiak zaindu eta laguntzen, edota umeen zaintzan jarduteko gertu nago. Erabateko prestutasunarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 604 37 79 34 (Marlen)

**Debagoiena.** Garbiketetan, etxean bizi izaten edo egunean zehar nagusiak zaindu eta laguntzen, edota umeen zaintzan jarduteko gertu nago. Erabateko prestutasunarekin. 603 23 15 01

**Debagoiena.** Gizonezkoa gertu nagusiak zaintzeko, eraikuntzan laguntzeko edo tabernan

lan egiteko. Orduka eta etxean bertan bizi izaten ere bai. 642 90 41 05

**Debagoiena.** Mutila gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egitean, zerbitzari moduan eta abar. Deitu 638 85 43 36 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak eta umek zaintzen edota garbiketetan lan egingo nuke. Autoa daukat. 666 93 32 56 (Natividad)

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketak eta lantze lanak egiteko edota umek eta nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 611 24 26 64

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko orduka, egunean zehar zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 642 41 72 62

**Debagoiena.** Neska gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egitean, zerbitzari moduan eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 654 11 15 14

**Debagoiena.** Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere, nagusiak eta umek zaintzen edota garbiketetan lan egiteko gertu nago. Erabateko prestutasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 04 13 49

**Debagoiena.** Soziosanitario titulua daukan mutila gertu nagusiak zaintzeko edo denetari-ko garbiketak egiteko. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 643 73 62 36

**Debagoiena.** Soziosanitario titulua daukan neska gertu nagusiak zaintzeko edo denetari-ko garbiketak egiteko. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 643 73 62 83

**Erizain laguntzailea.** Erizain laguntzailea orduka lan egiteko prest. Adineko pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egiteko lituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 23 58 15

**Nagusiak zaindu.** Pertsona nagusiak zaintzea nahi dut. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen. 642 19 71 33 (Mariela)

**Pertsona nagusiak zaintzeko gertu.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke, arratsaldetan, aste bukaeratan edo jai egunetan. Badut autoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 98 15 50

## Zaintza eskaintza.

Egungo egoera dela eta, eskolak itxita daude eta lanean dauden gurasoen seme alabei zaintza eta eskolako zereginetan laguntzeko eskaintzen naiz. Neska gazte eskulduna naiz, goxoa eta bokazioarekin; haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan esperientzia demostragarria daukat. Interesik izanez gero, deitu lasai informazio eske 684 14 95 54 telefono zenbakira. Eskerrik asko

## 6. MOTORRA

## 602. EROSI

**Land Rover bila nabil.** Land Rover Defenderra behar dut baserrirako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, matxuraturata, kolpearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 623 17 95 37

## 8. DENETARIK

## 804. HARTU

**Landareak.** Piper eta tomate landareak hartuko nituzke. Emateko moduan badaukazu, deitu zenbaki honetara: 656 75 76 98

## 806. GALDU

**Betaurrekoak Arrasate.** Graduutako eguzkitako betaurreko marroiak galdu ditut, Zaru-galde eta Munar aldameneko parke inguruan. Aurkituz gero, eskertuko nuke zenbaki honetara deitzea: 620 11 82 43. Eskerrik asko.

## 808. BESTELAKOAK

**Lursaila errentan hartu.** Gutxienez hektarea erdiko lursaila errentan hartuko nuke urtebetez, animaliak izateko, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza edo Aramaio inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 66 19 80


## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



BELAKO

## BELAKOREN KONTZERTUA

'Sala BBK etxean' Zapatuan, 22:00



GOIENA

## 'KULTUR ERAGILEEN ERRADIOGRAFIA DIGITALA'

'Erreportajea' Eguaztena, 21:15

## EGUBAKOITZA, 15

09:00 Kantari Ofiati 3  
09:30 Kantari Ofiati 5  
11:00 Hemen Debagoiena  
11:00 Osasun ariketak  
11:30 Hala Bazan: Kirola 6  
12:00 Hemen Debagoiena  
13:00 Kantari Ofiati 6  
13:30 Kantari Ofiati 8  
14:00 Hemen Debagoiena  
15:00 Albisteak  
15:30 Kantari Ofiati 8  
16:00 Albisteak  
16:30 Elkarrizketa: Kepa Errasti  
17:00 Albisteak  
17:30 Adinberri 15  
18:00 Hemen Debagoiena  
19:00 Erreportajea: Koronabirusaz, ospitalelik  
20:00 Hemen Debagoiena  
21:00 Hala Bazan: Kirola 6  
21:30 Etxetik plazara  
22:00 Kooltur: Ro  
23:00 Hemen Debagoiena

## ZAPATUA, 16

09:00 Kantari Arrasate 2  
09:30 Kantari Arrasate 1  
10:00 Kantari Arrasate 3  
10:30 Alde banatan 4  
11:00 Osasun ariketak  
11:30 Etxetik plazara  
12:00 Hemen Debagoiena  
13:00 Elkarrizketa: Kepa Errasti  
13:30 Elikatu 5  
14:00 Hemen Debagoiena  
15:00 Erreportajea: Koronabirusaz, ospitalelik  
16:00 Kooltur: Ro  
17:00 Alde banatan 4  
17:30 Adinberri 16  
18:00 Erreportajea: Koronabirusaz, ospitalelik  
19:00 Elkarrizketa: Kepa Errasti  
19:30 Etxetik plazara  
20:00 Hemen Debagoiena  
21:00 Astearen errepaso  
21:30 Elkarrizketa: Kepa Errasti  
22:00 Kontzertua: Belako  
23:00 Elkarrizketa: Kepa Errasti

## DOMEKA, 17

09:00 Elkarrizketa: Kepa Errasti  
09:30 Kantari Arrasate 1  
10:00 Kantari Arrasate 2  
10:30 Kantari Arrasate 2  
11:00 Osasun ariketak  
11:30 Hala Bazan: Kirola 6  
12:00 Erreportajea: Koronabirusaz, ospitalelik  
13:00 Etxetik plazara  
13:30 Hala Bazan: Kirola 6  
14:00 Erreportajea: Koronabirusaz, ospitalelik  
15:00 Hemen Debagoiena  
16:00 Kantari Arrasate 1  
16:30 Kantari Arrasate 2  
17:00 Kantari Arrasate 2  
17:30 Adinberri 17  
18:00 Erreportajea: Koronabirusaz, ospitalelik  
19:00 Hemen Debagoiena  
20:00 Astearen errepaso  
20:30 Etxetik plazara  
21:00 Kooltur: Ro  
22:00 Kontzertua: Mobydic  
23:00 Alde banatan 4  
23:30 Etxetik plazara

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

**korosti**  
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**

- Lizain, 62 m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailua, berrituta, biatzara sartako. 165.000 €.
- Bala, 103 m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailua, traxelakua, bi garaje, biatzara sartako. 340.000 €.
- Saramentot, 75 m<sup>2</sup>, 2 logela, parkinga, txakoa, biatzara sartako. 175.000 €.
- Zubietze, 63 m<sup>2</sup>, 2 logela, traxelakua, igogailua, biatzara sartako. 95.000 €.
- Berra, (Libre-zerbitzu) 59 m<sup>2</sup>, 3 logela, traxelakua, 65.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Oñate, 72 m<sup>2</sup>, 3 logela, berrituta, biatzara sartako. 100.000 €.
- Lizain, (San Isidro), 63 m<sup>2</sup>, 2 logela, traxelakua. 151.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- A. Fleming, (poligonoz) 40 m<sup>2</sup>, 2 logela, traxelakua, egokituta 30,70 €. 160.000 €.
- Alameda/ Etxea, 340 m<sup>2</sup>, txakoa, berrituta, garajea. Biatzara sartako. 350.000 €.
- Bazarre, 70 m<sup>2</sup>, 3 logela, biatzara sartako. Garajea sutsuan. 129.500 €.
- Zubietze, 70 m<sup>2</sup>, 2 logela, berrituta, berrotzekin, biatzara sartako. 373.500 €.
- Aretak, 180 m<sup>2</sup> duplexa. 4 logela, igogailua. Biatzara sartako. 129.000 €.
- Bala, 45 m<sup>2</sup>, traxelakua, igogailua, biatzara sartako. 129.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- San Antonio, 76 m<sup>2</sup>, berrituta, igogailua jabearen kutsura. 99.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Iñar Pasaolakua, 53 m<sup>2</sup>, igogailua, terrazaekin, berrituta. 160.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Zubietze, 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, berrotzekin, nidoberotekin. 75.000 €.
- Zubietze, 80 m<sup>2</sup>, 2 logela, igogailua, berrituta, biatzara sartako. 130.000 €.
- Medierriko, 75 m<sup>2</sup>, 2 logela, biatzara sartako. 169.000 €.
- Martika, 40 m<sup>2</sup>, 2 logela, igogailua, biatzara sartako. 130.000 €.
- Bergarak, 54 m<sup>2</sup>, 2 logela, igogailua, biatzara sartako. Garaje 2 sutsuan. 216.000 €.
- Alkazarre, 40 m<sup>2</sup>, 2 logela, traxelakua, biatzara sartako. 100.000 €.
- Zubietze, 70 m<sup>2</sup>, 3 logela, biatzara sartako, egokituta. 114.192 €.
- Zubietze, 54 m<sup>2</sup>, 3 logela, 2 traxelakua, biatzara sartako. 90.000 €.
- Oñate, 79 m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailuarekin. Aukara ona. 70.000 €.
- Oñate, 75 m<sup>2</sup>, 3 logela, traxelakua handiarekin. 63.000 €. Aukara ona.
- Medierriko, 86 m<sup>2</sup>, 3 logela, ofizierik berritu. Berrituta, biatzara sartako. 150.000 €.
- Freixakuri, 100 m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailua. 198.000 €.
- Mendiak, 96 m<sup>2</sup>, 4 logela, terrazaekin, igogailua. 139.500 €. PREZIO JEITSIERA.
- Freixakuri, 100 m<sup>2</sup>, 4 logela, traxelakua, igogailua. 180.000 €.
- Bidekurutzara, 130 m<sup>2</sup>, 4 logela, igogailua, traxelakua. 270.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Zubietze, 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, biatzara sartako. 65.000 €.
- Medierriko, 80 m<sup>2</sup>, berrituta, aukara ona. 60.000 €.

**UBERA:**

- Baserria eta 15 hektareako lurralde (pinak, zelaiak) 340.000 €. PREZIO JEITSIERA.

**ANTZUOLA:**

- Erretak, 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailua, biatzara sartako 135.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Bala, 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, berrituta, biatzara sartako. 120.000 €.
- Erretak, 70 m<sup>2</sup>, 2-3 logela, igogailua, biatzara sartako. 125.000 €.
- Kolebarre, 79 m<sup>2</sup> - 77 m<sup>2</sup>, berrituta. 61.000 €. - 51.000 €.
- Kolebarre, 80 m<sup>2</sup>, 1go pisua-60.000 €. - 2. pisua + garajea 70.000 €. Berrituta.
- Erretak, 61 m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailua, berrotzekin. 105.000 €.

**ELGETA:**

- San Rikio, duplexa, 83 m<sup>2</sup>, berrituta, biatzara sartako. 190.000 €.

## EGUBAKOITZA, 15

## HERRITARREN KONTAKIZUNAK

'Etxetik plazara'

21:30

## EGUNERO

## ADINDUENDAKO KIROL ARIKETAK


'Adinberri'

17:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## DOMEKA, 17



GOIENA

## 'KORONABIRUSA, OSPITALELIK'

'Erreportajea'

18:00


## EGUNERO

## EGUNAK UTZITAKO ALBISTE NAGUSIAK

'Albisteak'

15:00/16:00/17:00

**ESKER ONA**



**Jose Ignacio  
Jauregui Larrinaga**



2020ko maiatzaren 7an hil zen, 73 urte zituela.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizue. Hileta eguna eta ordua gaur egungo larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko dira.

*Hutsune haundi bat  
oroipen goxo bat  
maitasun eder bat  
itxaropen zabal bat.  
Gure bihotzean, betiko.*

Etxekoak.  
Arrasaten, 2020ko maiatzaren 15ean.

**OROIGARRIA**



**Kontxi  
Bedia Madinabeitia**



2016ko maiatzaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

*Joan zinen baina gurekin zaitugu.  
Bizi garen artean gure bihotzetan eramango zaitugu.*

Etxekoak.  
Arrasaten, 2020ko maiatzaren 15ean.

**OROIGARRIA**

**Mertxe  
Garro Gallastegi**

Fermin Urkiaren alarguna

2020ko maiatzaren 11n hil zen.



*Ez zaitugu ahaztuko.*

Goizeroko kafeko zure lagunak.  
Oñatin, 2020ko maiatzaren 15ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 15	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Zapatua, 16	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Domeka, 17	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Astelehena, 18	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Martitzena, 19	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Eguaztena, 20	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguena, 21	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 15	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 16	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 17	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 18	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 19	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 20	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 21	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 15	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 16	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 17	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 18	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 19	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 20	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 21	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2020ko abuztuaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09	
BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2020 osoan:
ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63	

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

**HILDAKOAK**

**Sebastian Aguirre Arechaga.** Arrasaten, maiatzaren 1ean. 88 urte.

**Carmelo Letona Ugarte.** Arrasaten, hilaren 2an. 80 urte.

**Javier Agirrebarrena Ortiz.** Bergaran, 2an. 61 urte.

**Eusebia Garai Iriarte.** Arrasaten, maiatzaren 4an. 100 urte.

**Jesus Maria Apaolaza Insausti.** Arrasaten, 4an. 72 urte.

**Maria Bergaretxe Abarrategi.** Aretxabaletan 4an. 80 urte.

**Dominga Isasmendi Elorza.** Aretxabaletan, 5ean. 88 urte.

**Gregorio Lazcano Arriaran.** Bergaran, 5ean. 85 urte.

**Javier Agirreolea Uriarte.** Bergaran, 5ean. 83 urte.

**Gregorio Lazcano Arriaran.** Arrasaten, 6an. 85 urte.

**Jose Ignacio Jauregui Larrinaga.** Arrasaten, 7an. 73 urte.

**Jose Ortiz Gamiz.** Aretxabaletan, maiatzaren 7an. 62 urte.

**Sole Etxeberria Agirrezabal.** Bergaran, 8an. 96 urte.

**Angela Murgia Villar.** Arrasaten, 10ean. 91 urte.

**Gerardo Urzelai Azkarate.** Arrasaten, 11n. 93 urte.

**Teofilo Morales Vecino.** Arrasaten, 11n. 74 urte.

**Maria Beatriz Cambromel Dominguez.** Bergaran, maiatzaren 11n. 53 urte.

**Mertxe Garro Gallastegi.** Oñatin, maiatzaren 11n. 74 urte.

**Isabel Zarraoa Leturia.** Arrasaten, 12an. 90 urte.

**Silverio Martinez Yagüe.** Aretxabaletan, 12an. 93 urte.

**Mari Uranga Uranga.** Arrasaten, maiatzaren 13an. 86 urte.

**Emilio Astudillo Acosta.** Arrasaten, hilaren 13an. 84 urte.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**BABESLEA**

# OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu


*Momentu zail hauetan,  
lankideok, Jonek, Ibanek, Mariok  
eta Maribik, sentsibilitate eta  
maitasunarekin lan egingo dugu  
Zure senideak ahalik eta ondoen  
agurtuko ditugu  
Beti izan dugun lan egiteko eran.*



*Lasaitasuna, maitasuna eta  
laguntza dut beti zuentzako.*

**maribi 617 44 21 55**  
**BERGARA • ANTZUOLA**

TXUTXU-MUTXUAK



**1. Hiruko saskibalo txapelketa**  
Leintz Eskola kiroleko umek eta begiraleek hiruko saskibalo txapelketa birtuala egin zuten aurreko asteburuan. Ederto ibili ziren etxeko saskietan jokatzeko.

**2. 50 urte ezkontuta**  
Jesus Mari Igartua eta Glori Irizar 1970eko maiatzaren 16an ezkondu ziren. "Zorionak, familia osoaren partetik! Aurrerago ospatuko dugu denok elkarrekin".

**3. Urrezko ezteiak**  
Jose Mari Altuna eta Txaro Kortazar 1970eko maiatzaren 16an ezkondu ziren. "Zorionak, bikote! Laster egongo gara elkarrekin, egun hori merezitako moduan ospatzeko".

**4. Jaiak, beste modu batera**  
Oñatiko Kale Zaharrean San Migel Txiki jaiak ospatu zituzten aurreko asteburuan. Balkoiak apaindu, mozorrotu eta buruhandien laguntzarekin ospatu zituzten jaiak.

**5. Hots Abesbatzaren ekarpena**  
Ganbara Faktoriako taldeak ere bere ekarpena egin du konfinamenduan. Andrea Ramseyren *Letter from a girl to the world* kantuaren bertsoia egin dute.



## ZORION AGURRAK




ANTZUOLA  
**Aitziber Etxezarreta Mujika**  
Maiatzaren 20an, 7 urte. Urte askotarako, sorgintxo! Oso ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat familiaren partetik. Ainara, Elene, Aitor eta Irati.



OÑATI  
**Arhane Zelaia Galparsoro**  
Maiatzaren 20an, 8 urte. Zorionak, maitte! Topera disfrutatu...aurten etxekuan artian! Muxu eta besarkada pila bat, familixa danaren partetik!



OÑATI  
**Unai Ibabe Kerexeta**  
Maiatzaren 19an, 8 urte. Mila zorion eta zortzi belarri tirakada, Unai! Etxeko danon partetik, ondo-ondo pasatu eguna. Laztan handi bat!



BERGARA  
**Anartz Azula Errexil**  
Maiatzaren 19an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Etxekoen partetik, patxo eta besarkada handi bat!



BERGARA  
**Erik Oribe**  
Maiatzaren 18an, 29 urte. Zorionak, tio Erik! Aurten urtebetetze desberdina izango da baina ospatuko dugu ahal dugunean. Asko maitte zaitugu. Muxu erraldoi bat Kenarren eta Alaineren partetik!



OÑATI  
**Unai Askasibar Herrera**  
Maiatzaren 16an, 10 urte. Zorionak, Unai! Etxekoen partetik, ondo-ondo pasatu eguna! Muxu handi bat!



ARETXABALETA  
**Iñigo Zuazo**  
Maiatzaren 18an, 44 urte. Zorionak, aitatxo! Ederto pasa ezazu zure egunean. Asko maitte zaitugu! Izar, Unax eta amatxo.



OÑATI  
**Maider Arenaza Arriaran**  
Maiatzaren 16an, 2 urte. Zorionak, *bitxito!* Bizkotxo ederrarekin ospatuko! Patxo erraldoi bat, maitte zaitugun danon partetik!



BERGARA  
**Jose Mari Aramburu**  
Maiatzaren 15ean, 68 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure egunean, aitxiba! Muxu handi bat, familiaren partetik.



ELGETA  
**Olatz Yong Lian eta Izar Han Xue Irazabal Gillegi**  
Maiatzaren 15ean, 16 urte Olatzek eta Izarrek 20an, 18 urte. Mila zorion etxeko danon partetik. Zoragarriak zarete! Asko maitte zaittuegu.




BERGARA  
**Unax Aldanondo Eriz**  
Maiatzaren 14an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran ospatu, txokolatezko bizkotxo erraldoi batekin! Besarkada handi bat, batez ere, Maiaren partetik.



BERGARA  
**Enara Gisasola Sevillano**  
Maiatzaren 14an, 10 urte. Zorionak, Enara! Egun berezi honek merezi duen moduan ospatuko dugu. Asko maitte zaitxugu. Zure familiaren partetik.



ARETXABALETA  
**Maialen eta Uxue Seguro**  
Maiatzaren 14an urte bat eta 18an, lau urte. Bi sorgintxo hauei zorionak eta urte askotarako, Arrasatetik.



OÑATI  
**Lur Biain Aranburuzabala**  
Maiatzaren 14an, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako, Lur! Ahal izan dun moduen ospatuta be, laster merezitako jaia egingo dugu guztiok elkarrekin!



ARRASATE  
**Danel Garcia Salaberri**  
Maiatzaren 12an, 6 urte. Zorionak, Danel! Urtebetetze egun zoriontsua opa dizugu! Muxu eta besarkada erraldoi bat familia osoaren partetik.



OÑATI  
**Nahia Aramburu Moreno**  
Maiatzaren 12an, 6 urte. Nahia, zorionak! Oso ondo pasatuko duzula badakigu! Ikaragarri maitte zaitugu etxeko laurok. Muxutxuak.



OÑATI  
**Noa Urtaza Hernandez**  
Maiatzaren 11n, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat etxeko danan partetik.



ARETXABALETA  
**Laida Eraña Larrea**  
Maiatzaren 11n, 9 urte. Zorionak, Laida! Ze azkar ein zaren handi! Muxu handi-handi bat, danon partetik!




ARETXABALETA  
**Jon Altube Porras**  
Maiatzaren 10ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Jarraitu daukazun irudimen koloretsu eta alaitasun kutsagarri horiek leku guztietatik zabaltzen. Asko maitte zaitugu!



OÑATI  
**Manex Iraeta Jaso**  
Maiatzaren 9an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, Manex! Ondo pasatu zure eguna. Patxo bat familia osoaren eta, bereziki, Oxelen partetik.



BERGARA  
**Maite Zulueta**  
Maiatzaren 9an, 25 urte. Zorionak, Txulu! Pilo bat disfrutatu egunaz. Arratsaldian Bittorirendako tartetxo bat gorde! 25 patxo potolo danon partetik!



OÑATI  
**Unai Sagasta Gavilan**  
Maiatzaren 9an, 34 urte. Zorionak. 34 urte!



ARRASATE  
**Ane Elgarresta Kastejon**  
Maiatzaren 8an, 68 urte. Zorionak, neskatila! Muxu handi bat, etxekoen partetik!



OÑATI  
**Lucas Pavlov**  
Maiatzaren 7an, 8 urte. Zorionak, Lucky! Ondo pasatu zure urtebetetze berezi honetan! Denok maitte zaitugu!



ARETXABALETA  
**Enaitz Pastor Alonso**  
Maiatzaren 7an, 8 urte. Zorionak etxeko txikiñenari! Laster etorriko da garaia lagunekin eta familixakuekin ospatzeko! Patxo eta besarkada erraldoi bat!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitze Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



OÑATI  
**Aimar Ferreira Garcia**  
Maiatzaren 6an, 8 urte. Zorionak, maittia! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat, etxeko guztion, eta bereziki, Liharren partetik.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

## Gure heroi txikiak

Ikastola bateko zuzendaria naiz. Badaramatzat aste batzuk inoiz ez dakidala hurrengo egunean zer egingo dugun, zer egin dezakegun, zer egiteko aginduko diguten. Gaur agindua dena bihar proposamena da eta etzi ezinezkoa da, alarma-egoerak ez duelako ahalbidetzen.

Bitartean, hezkuntzako langileak hala moduz etxean lanean, bakoitzak bereak dituen baliabideen eta abilezien arabera. Ikasleak ahal duten bezala irakasleari otu zaiona etxetik egiteko ahaleginean. Irakasleak bezala hala moduz telelanean ari diren gurasoak irakasle bihurtuta, formaziorik, denborarik eta aukerarik daukaten ala ez kontuan hartu gabe. Hezkuntza-sistemak egoera zail bati antsietatea gehitu dio barra-barra azken hilabeteetan. Antsietatea irakasleei, ikasleei eta gurasoei.

Arduradun politikoak beraien botere-borrokan, oposizioa asmatu ezinean, sindikatuak beraien borroka partikularrean eta gu argibiderik gabe gure ohiko jardunean online jarraitu nahian, hezkuntzak bere papera betetzeko ezinbestekoa duenean presentzialtasuna eta elkarrekintza.

En fin... irakasleak, ikasleak eta gurasoak dira gure heroi txikiak. Besarkada bana guztioi eta bakoitzari.


BUKATZEKO

# Komunitateak sarerik ederrena osatu du

Konfinamendua ezarri zutenetik, esponentzialki areagotu dira herritarrek herritarrei eskainita sortutako erronka, bideo, balkoi festa zein bestelako iniziatibak. Tokikoak garrantzi handiagoa hartu du eta gertukoa denaren balioa erdigunean jarri da

**Miren Arregi** ARRASATE

Etxetik ezin irtenda egon garen bitartean, herritarren iniziatibak protagonista izan dira. Herrian bizitzetik etxean bizitzera pasatu gara, gure balkoiak bilakatu dira munduarekiko konexio eta bizilagun; aurrez behe-barruan gurutzatzerakoan agurtzen genituen horiek, bidelagun. Denbora honetan, bidaide izateko behar horrek bultzatuta batzuetan, eta asperdurari aurre egiteko beste batzuetan, herritarren ekimenez bete dira kale, auzo eta sare sozialak. Dantza, musika, erronkak, errezetak... partekatu dituzte herritarrek etxetik. Eta GOIENAK ere egin du horien bozgorailu, *Etxetik plazara* atalaren bitartez. "Bereziki, musika aipatuko nuke", dio telebista saioko gidari Aitor Agirianok. "Cover-ak, kantu ezagunen bertzioak, abesbatzek egindako bideoak, musika taldeenak eta sare sozialetako zuzenekoak. Horrelako asko eta asko egon dira. Umorea oinarri hartuta herritarrek grabatu dituzten playback bideoek ere izan dute protagonismoa". Asteon jaso dira, esaterako, Bergarako Karlos Etxanizek abesten duen The Upper Room taldearen proposamena, edo Sarasua familiako



Karlos Etxaniz, The Upper Room-ek grabatutako *Segi aurrera* abestian. GOIENA



Erramu Zapatua balkoietan ospatu zuten Bergaran. GOIENA



Jon Sarasua, familian egin duten *Aroa eta gutxi* abestiaren bideoan. GOIENA

kideek sortutakoa; ikustaldi asko izan dituena, gainera.

Itxialdia hastearekin batera hasi ginen proposamenak jasotzen. Bergarako Musika Bandak partekatu zuen San Martin martxaren bideoa -4.000 ikustaldirekin- da aipatzekoa, edo Oñatin balkoietatik egin dituzten *Herrixa kantuan* ekimenak; Maria Izagaren, Aiert Alberdiren eta Madidi Arlanzonek eta Beñat Arizabaletaren *cover*-ak ere arrakatsatuak izan dira, baita Debagoieneko abesbatzenak ere. Dantza taldeen ekarpenek ere ikustaldi dezente izan dituzte.

**Auzoak, ekintzaile**

Gurean herriko eta auzoetako festek zein auzoek eurek duten garrantzia ere nabarmen agerian geratu da azken bi hilabeteotan. Ez dira falta izan San Migel Txiki jaiak, Erramu Zapatua, Aste Santua, eta abar. Arrasaten, bereziki Itxaropena eta Erdiko kalea izan dira animatuenak: Maritxu Kajoi eguna, Euskaraldia etxetik, Apirileko Feria, San Fermin... ospatu dituzte eta. Auzotarren arteko bingoak ere klasiko bilakatu dira herri askotan.

Erronkak eta kirol bideoak ere ez dira falta izan. Mondrako jokalarienak, Athlon-ekoena, herritarren kirol proposamenak eta Debagoieneko Ospitaleko langileek bidalitako aholku bideoak, esaterako.

Ondorio garbietako bat da komunitatearen indarra inoiz baino ageriago geratu dela. Hurbilekoak zaintzeko eta laguntzeko betebeharrak. Esparru guztietan tokikoa dena indartzea lortzen bada, ez da dena galera izango, zerbaitetan irabazi dugula esan gurako du.

**arizmendi**  
ikastola **PRO**

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

## ATE IREKIAK ONLINE



943 77 20 25 • www.arizmendipro.eus • arizmendi@arizmendi.eus

## Zure Lanerako Bidea

**Maiatzak 20**

- GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOAREN IRAKASKUNTZA
- MIKROINFORMATIKA

**18:00etan**

**Maiatzak 21**

- ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK
- OSASUN LARRIALDIAK

**18:00etan**